



ATALEN LABURPENA



Aurkibidea

1. EUSKARAREN TAMAINA
2. MONUMENTU BAT EUSKALDUN BERRIENTZAT
3. EUSKAL BABEL
4. EUSKARA ETA PUBLIZITATEA
5. NOLA HITZ EGITEN DUTE GAZTEEK ?
6. EUSKARA SEXISTA AL DA?
7. URTE BERRI, ASMO BERRI
8. RIOJATIK ERRIOXARA
9. EUSKARA ETA ZIENTZIA
10. FRANTZIAREN ITZAL LUZEA
11. ABESTIEN HITZAK, HITZEN DOINUAK
12. BERTAN BILBO
13. JENDEAURREAN
14. EUSKATALA
15. HAU DUNK UMOREA!
16. GELATIK KALERA
17. NAFARROA , ARRAGOA
18. ADI, FILMATZEN, EGIN !
19. ITSU, GOR, BAINA EZ MUTU
20. BIBA XIBERUA!
21. EUSKARA 2039
22. JOLASEAN
23. KANPOKO ETA BERTOKO
24. BATUA VS. EUSKALKIAK
25. MUNDUKO HERRIRIK EUSKALDUNENAK
26. AHOZ AHO, BELAUNEZ BELAUN
27. ARRASATE: EUSKARA ETA KOOPERATIBISMOA
28. ITSASOA LAIÑO DAGO
29. SAREAN HARRAPATUTA
30. 60KO HAMARKADAKO ASTINDUA
31. GASTEIZ-VITORIA-GASTEIZ
32. ZERGATIK EZ DUGU EGITEN?
33. OPOR GIROAN
34. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA EUSKARA?
35. MUNDU-GERRAK ETA EUSKARA
36. EZKERRALDEAN
37. GARUNA, HIZKUNTZAREN FABRIKA
38. EUSKARA IKASTEKO HAMAIA BIDE
39. OKZITANIERA, EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA

40. KULTURA EXPORT
41. ETXEA BARRUKO ERRONKA
42. EUSKARA JUSTIZIA ESKE
43. KOSTALDEKO ENKANTUA
44. KIROL LEHIAN
45. IRUÑEA, HIRI BURUZAGIA
46. EREDU ERE BAGARELA KO
47. PARISEN EUSKARAZ
48. KORRIKA BADATOR
49. 60ETAKO EMIGRAZIOA GAUR
50. PIRINIOETAKO EUSKARA
51. ON DAGIOLA EUSKARARI
52. GOIERRI: MUIN ETA MOTORE
53. EUSKARA DELA ETA, EMAKUMEEK ZER DIOTE?
54. XXI. MENDEAN, HAMAIIKA TRIBU, HAMAIIKA EUSKARA
55. MUGARIK EZ DA EUSKARARENTZAT
56. ESKOLAN ERABILERA SUSTATUZ
57. NERBIOITIK IBAIZABALERA
58. EUSKARA OSASUNGINTZAN
59. EZINBESTEKO EKINTZAILETZA
60. ONDORIOZ...

1. EUSKARAREN TAMAINA

Milioi bat euskal hiztun gara munduan. Ez gara beraz, hain hizkuntza txikia, ezta?

Kike Amonarrizek ETB1en gidatutako ‘Tribuaren Berbak’ saioaren lehen atalean, **euskararen tamaina** aztertu dugu. Euskara ez omen da uste bezain txikia, ez omen da askok dioten bezain zaila, baina, hala ere, ez dugu ahaztu behar arriskuan dagoela.

Munduan 7.000 milioi pertsona baino gehiago gara, eta **7.000 hizkuntza** hitz egiten dira. Batzuk hizkuntza handiak dira, etorkizunaren beldurrik gabe bizi direnak; beste batzuk, berriz, txikiak, oraina ere arriskuan ikusten dutenak.

Otik 10erako rankinga egingo bagenu, 10ean txinera legokeela kontuan hartuta, hau da, munduan gehien hitz egiten den hizkuntza, eta 0an, berriz, azken hiztuna galdu berri duen hizkuntza bat, non legoke euskara? Bada, askorentzat harrigarria badirudi ere, **euskara 9. postutik gora** kokatuko genuke.

43	swahili ▶	3.924
44	albanais Tosk ▶	3.908
45	marathi ▶	3.831
46	occitan ▶	3.829
47	lithuanien ▶	3.817
48	ukrainien ▶	3.793
49	galicien ▶	3.773
50	macédonien ▶	3.773
51	basque ▶	3.738
52	leton ▶	3.721
53	télougou ▶	3.714
54	gallois ▶	3.675
55	suisse allemand ▶	3.665
56	tibétain, central ▶	3.65
57	haoussa ▶	
58	biélorusse ▶	

euskara

51.a

Izan ere, Ethnologue erakundearen arabera, 400 hizkuntza daude munduan **1.000.000 hiztunetik gorakoak**, eta euskara da horietako bat. Beraz, esan genezake euskara munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzen % 10ean dagoela.

Orduan, zergatik ikusten dugu gure burua hain txiki, horren txikiak ez bagara? Bada, **Jon Sarasua** HUHEZIKo irakasle eta Garabideko kideak argi adierazitakoaren arabera, **bi erraldoiren barru** angudelako, nolabait esanda (gaztelania eta frantsesa), eta hirugarren erraldoi bat alboan daukagulako (ingelesa). Horiekin alderatuta txikiak gara, baina munduko batez bestekoarekin alderatuta, berriz, “ez gara harri koxkorak, harri kozkorak baizik”.

Hiztun kopurua ez da hizkuntza baten bizi-indarra neurtzeko aintzat hartu behar den faktore bakarra. Calvet barometroaren arabera, 500.000 hiztunetik gora dituzten munduko hizkuntzak kontuan hartuta, **euskara 51.a** da, mazedonieraren eta letonieraren artean.

Izan ere, barometro horrek Interneti eta sare sozialei garrantzi handia ematen die. Wikipedian, esaterako, erabiltzen duten 280 hizkuntzetatik 35.a da, artikulua kopuruaren arabera. Twitterri dagokionez, 38 hizkuntzatan soilik erabil daiteke, eta euskara da horietako bat.

Euskara ez da, beraz, **uste bezain txikia**, eta ez da askok **uste bezain zaila**, baina begi bistakoa da ez dagoela sendo. UNESCOk argi gorria piztu du, eta **euskara arriskuan** dauden hizkuntzen artean sailkatu du, munduko beste 2.470 hizkuntzarekin batera.

UNESCO katedraren zuzendari **Itziar Idiazabalek** adierazitakoaren arabera, mende honetan munduko hizkuntzen erdia baino gehiago gal liteke, hau da, 3.500etik gora. Hori gerta ez dadin, garrantzitsuena **belaunaldien arteko transmisioa** omen da. Euskarari dagokionez, Hego Euskal Herrian nahiko ongi gauzatzen omen da hori; ez, ordea, Ipar Euskal Herrian.

Euskara mende honetan galduko den hizkuntza horietako bat izan ez dadin, ezinbestekoa **danorbera bere hizkuntzaz harro** egotea. Izan ere, baldintza hori beteta, erreskadan etorriko dira gainerakoak (transmisioa, erabilera...).

2. MONUMENTU BAT EUSKALDUN BERRIEI

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea da, transmisioarekin batera, euskararen etorkizunaren zutabeetako bat

‘Monumentu bat euskaldun berriei’. Izenburu horrekin aurkeztu digu Kike Amonarrizek ‘Tribuaren Berbak’ saioaren bigarren atala ETB1en. Euskaldun berriak goretzi nahi izan ditu saioak, eta euskaltegien lana goraipatu. Ez baita nolanahikoa daukaten meritua. Non legoke euskara euskaldun berriek egindako ahalegina gabe?



1987tik hona, 400.000 pertsona inguru ibili dira euskara ikasten Euskal Herrian dauzkagun 154 euskaltegietan. Joan den ikasturtean bakarrik, 38.349 pertsona matrikulatu ziren. Datu ofizialen arabera, emakumea, 25 eta 40 artekoa eta goi mailako ikasketak dituen da euskaldun berriaren erretratu robota. Baina denetarik topatu du Amonarrizek Iruñeko, Santurtziko eta Miarritzeko euskaltegietan. Eta jendeak, gainera, arrazoi anitzek bultzatuta jo du euskara ikastera: hizkuntza bera gustatzen zaielako, daukan balioaz ohartzen direlako, gurasoen hizkuntza berreskuratzeko, seme-alabei euskaraz egiteko, lana bilatzeko... Hiru euskaldun berri ezagun elkarrizketatu zituzten bigarren ‘Tribuaren Berbak’ saioan: Fernando Goñi pilotaria, David Doblaz saskibaloi-jokalaria eta Andrea Arrizabalaga ETBko aurkezlea.



Fernando Goñi nafarrak ahaztuta omen zuen zekien euskara gutxia, eta zerotik hasi behar izan zuen. “Beldur hori kentzea izan zen zailena, lotsa hori galtzea”, esan du. Hiru urte eta erdi eman zituen euskaltegian, eta “oso gustura” ibili zela aitortu du.

David Doblaz Gipuzkoa Basketeko jokalaria kantabriarra duela hiru urte hasi zen euskara

ikasten. 13 urte daramatza Euskal Herrian, eta ikasteko beharra sentitu du. “Kirolaria naiz, eta nire erresposabilitatea da, kultura, hizkuntza, euskara garrantzitsuak dira”, adierazi du. Ez zaio samurra egiten ari euskara ikastea, baina, “ilusioarekin”, ikasten ari da.

Andrea Arrizabalaga aurkezlea Galdakaokoa da, eta euskara pixka bat bazekien arren, ez zen ongi hitz egiteko gai. Horregatik, unibertsitate garaian, euskaltegira joatea erabaki zuen. “Arrazoi berezirik ez nuen, behar nuen. Euskal Herrian bizi naiz eta ez nekien ia hitz egiten”, esan du kazetariak.

Euskal Herritik kanpo euskara ikasten dabilenik ere topatu du ETB1eko saioak. Madrilen, esaterako, **Carabanchelen**, Jesus ‘Iosu’ Solerak euskara eskolak ematen ditu. Bera ikusminez hasi zen euskara ikasten, ez baitu euskal jatorririk, eta orain, irakaslea da. 12-13 pertsona ari dira ikasten bertan; gehienak madrildarrak dira. **“Jendeak japoniera, alemana, ikasten baldin badu, zergatik ez du euskara ikasiko”**, esan digu.

Euskaldun berriei lotuta, **fenomeno literario** bat ere badugu Euskal Herrian. Joxean Sagastizabalek idatzitako **Kutsidazu bidea, Ixabelliburu**a da euskal literaturak inoiz izan duen best-sellerrik salduena. 1994an argitaratu zuten, 50 edizio atera dituzte dagoeneko, eta ia **100.000 ale saldu dira!** Zalantzarik gabe, euskaldunon Harry Potter da Juan Martin euskaldun berriak Tolosaldeko baserri batean euskara ikasten egindako egonaldia kontatzen duen liburua. Ez da erraza izango marka hori gainditzea!



Euskara ikastea zaila dela dioen mitoa suntsitu genuen aurreko saioan, eta oraingoan, euskara ikasteko bidea luzea dela dioena gezurtatuko dugu: **900 ordu behar dira euskara ikasteko**. 3-4 ikasturtez euskaltegian arituta, euskaraz taxuz idazteko, hitz egiteko eta idazteko gai izango litzateke edonor.

Baina zein da **euskaltegiek egun duten** erronka? **HABEko** zuzendari nagusi **Joseba Erkizia** eta **AEKko** koordinatzaile nagusi **Mertxe Mujika** esandakoaren arabera, eskaintza hobetzea eta euskara ikasteko prozesua erraztea da. Izan ere, euskararen etorkizunerako, transmisioarekin batera, **helduen alfabetatzea da zutabe nagusietako bat**, eta administrazioen ikuspegitik, **euskaltegien sistemari egonkortasuna** ematen asmatu beharra dago. Gainera, hizkuntza bat ongi ikasteko erabilera ezinbestekoa denez, **euskaldun zaharren lana** da euskaldun berriei laguntzea, erabiltzeko esparruak ematea, pazientzia izatea, eta batez ere, haiek ez uxatzea!

Edonola ere, euskaldun berri ala euskaldun zahar, guztiok gara euskaldun. Bide batez, esan dezagun Kike Amonarrizek saioaren amaieran topatu zuela **euskaldun berriei eskainitako monumentua**: Altzan dago, Donostian, ‘**Lau Haizetara**’ du izena, eta **Antton Mendizabaleskultore** gipuzkoarrak egindakoa da.

3. EUSKAL BABEL

100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira Euskal Herrian

Kike Amonarrizek gidatzen duen 'Tribuaren Berbak' saioak Euskal Herrian, euskaraz gaindi, hitz egiten diren beste hizkuntzei buruz galdetu du **Euskal Babel** izeneko saioan. Kalera irtetea nahikoa da inguruan atzeritar ugari ditugula eta bakoitzak bere hizkuntza duela ikusteko.



Xabier Aierdi irakasle eta soziologoari galdezka hasi da Kike Amonarriz lehendabizi. Inoizko aniztasunik handiena dugula baieztatu du Aierdik eta Unesco Etxeak eta Ikuspegik 2007 inguruan egindako ikerketa baten arabera, **Euskal Herrian 100 hizkuntza** baino gehiago hitz egiten direla jakinarazi du.

Eta horietan guztietan, **Arabiera da hiztun gehien** dituen atzerriko hizkuntza. Aspalditik bizi dira gure inguruan arabiar hiztunak. ETB1eko saioak argitu duenez, arabiarrek 713. urte inguruan iritsi ziren Euskal Herrira lehendabizikoz. Casius konde bisigodoak islama besarkatu zuenean.

Eta gainera, gure hizkuntzan eragin dezente izan duen hizkuntza da. **Euskarak arabieratik eratorritako** hitz pila bat ditu; 'al' silabarekin hasten direnak horietako asko: albistegi, alkate, al baitari, alkandora...

Arabiera baldin bada Euskal Herrian hiztun gehien dituen atzerriko hizkuntza, gure artean hiztun gutxien dituen **Okzitaniera** da. Gure artean, **Baiona eta Biarritz inguruan** presentzia duen hizkuntza erromanikoa da. Frantziako estatuan eta munduan bi milioi pertsona inguruk hitz egiten dute, baina Unescok galtzeko arriskuan dauden artean sailkatu du.

Okzitanierak hainbat dialekto ditu eta Lapurdin hitz egiten dena **itsasaldeko gaskoia** da. Garai batean, Gipuzkoako kostan ere hitz egin zen hizkuntza hau eta Donostiako izen asko horren ondorio dira: Urgull, Gros, Polloe, Morlans, Monpas, Aiete, Ulia, Miramon...

Euskararekin lotu izan duten beste hizkuntza bat **Amazigera** da. Guk bereberen hizkuntza bezala ezagutzen dugu, nahiz eta "Bereber" hitza Amazigera gutxiesteko erabili izan den. **Afrika iparralde osoan** hitz egiten da, eta bizirik iraun du arabieraren eta hizkuntza kolonialisten menpean.

Amazigerak eta euskarak **hitz** asko dituzte oso **antzekoak**: nekk-nik, akir-aker, aste-asto, aña-anai... Hala ere, duela urte dezente baztertu zuten bi hizkuntzen arteko ahaidetasun posiblea: Trask linguista estatubatuarrak frogatu zuen bezala, kasualitate hutsa izan liteke; azken finean bi orduko bilaketa labur baten ondoren, antzeko 65 hitz topatu baitzituen hungarieraren eta euskararen artean, bi hizkuntzek bata bestearekin zerikusirik ez izan arren.

4. PUBLIZITATEA ETA EUSKARA

Euskarazko publizitateak etorkizun itzela du

Izenbururik gabe aurkeztu du Kike Amonarrizek bosgarren 'Tribuaren Berbak' saioa. Eta, zer dela eta? Euskararen eta publizitatearen arteko lotura aztertzeko asmoari jarraiki, slogan deigarri bat bilatzea izan zuelako helburu.

Salerosketa etengabea bizi gara, eta produktu eta marka guztiak gure onespina lortzeko lehiatzen dira. Horretarako, publizitatea da darabilten teknikarik eraginkorrena, behar ez ditugun beharrak sortzen dituen erreminta boteretsua. Testuinguru horretan, zenbaterainoko garrantzia du euskarak (garrantzirik badu)? Alegia, **euskarak saltzen al du?** Horixe da Kike Amonarrizek gidatutako 'Tribuaren Berbak' saioaren bosgarren atalaren muina.



Izenbururik gabe hasi da bosgarren saioa, eta horixe izan da erronka nagusia: slogan deigarri eta egokia asmatzea. Horretarako, hainbat publizitate-aditurengana jo du, eta lelo egokia bilatzeaz gain, euskarazko publizitatearen egoera aztertu dute elkarrekin.



Iñigo Fernandez Ostolaza 'Euskara eta publizitatea' blogaren egileak nabarmendu dituzten **euskarak pertsuasio-abantailak** eskaintzen dituela, besteak beste, "gertutasuna, konplizitatea, enpatia, hurbilpen afektiboa, identifikazioa maila altuagoa... Euskarak aukera ematen du modu informalago, lasaiago batean jarduteko, horrek pertsuasio ikuspegitik dituen onura nabarmenekin. Gainera, euskaraz

jardunda suerta gaitezke fidagarriago, sinesgarriago, eta, beraz, eraginkorrago".


Orduan, **zergatik ez da euskara gehiago erabiltzen publizitatean?** Ikerketatxo bat egin du Kike Amonarrizek Bilbon, eta Plaza Biribiletik Moiuara bidean dauden iragarkiak aztertu ditu. 9 topatu ditu gaztelaniaz, 2 elebitan, eta bakar bat ere ez euskaraz. Ikerketa txikia, baina esanguratsua, zinez.

Errazkeriaren, axolagabekeriaren eta ezjakintasunaren eraginez erabiltzen da hain urria euskara publizitatean. Baina **Joxerra Gartzia** EHUKo irakasle eta idazlearen iritziz, publizitatea euskaraz egiteak bakarrik ez, **publizitatea euskaraz sortzeak dauka garrantzia**. "Publizitateak jarrerak eta joerak aldatzeko balio du, bestela ez da publizitatea. Egun,



euskarazko publizitatean, erdaraz landutakoa hartu eta itzultzen dugu, kalko hutsa egiten dugu, morrontza handiegiko bertsio bat. Beharbada, euskararen lege gramatikalak betetzen ditu, baina ez du balio inorengan eragina izateko". Horregatik, Gartziak nabarmendu du **pazientzia beharrezkoa dela sormena euskaraz lantzeko**, eta euskal iragarleek ahalegintxoia egitea garrantzitsua dela azpimarratu du.

Iragarki onak gogoan gelditzen zaizkigu, baina txarrak are gogoangarriagoak egiten zaizkigu sarritan. Eta gure memorian iltzatuta gelditu izan zaizkigu **euskarazko itzulpen negargarriak** zeuzkaten iragarkiak. Nola ahaztuko dugu, bada, Espainiako Barne Ministerioak 1999an drogen kontsumoaren kontra egindako 'A Tope Sin Drogas' kanpainaren euskarazko itzulpena? '**Atsedetik Ez Drogarik Gabe**'. Itzultzaile profesionalik ez kontratatzearen ondorio negargarria. **Estitxu Garai** publizitate ikertzaileak Amonarrizi kontatu dionez, euskarazko publizitate gehiena gaztelaniaz sortzen eta, ondoren, itzultzen edo moldatzen bada ere, **publizistek badakite prozedura ez dutela ongi egiten**, eta horrek euskarazko publizitateari kalte egiten diola. "Beraz, etorkizunera begira, hori positiboa izan daiteke". Gainera, **aurreiritzi ugari dago publizisten artean**, euskarazko mezuak luzeegiak direla uste da, eta Garaik ateratako ondorioen arabera, "ez da horrela". Gainera, leloek grazia galtzen dutela uste dute.



Beraz, gaititu egin behar dira aurreiritzi horiek euskaraz publizitate egokia eta eraginkorra sortzeko, ez baita aski publizitatea egotea, eragin egin behar du. Abadiñoko **Di-Da** publizitate agentziako **Gorka Barruetabeñak** azaldu duenez, argi izan beharra dago **zer esan behar den, nori esan behar zaion eta nola hitz egin behar den**. Deigarria eta ulergarria izan behar du, eta ideia on bat izateko, ideia asko baztertu behar dira. Eta bide horretan, **euskarazko publizitateak etorkizun itzela omen du**, harik eta aurreiritziak gaititzen baditugu, pazientzia badugu, euskarazko pertsuasiorako ematen dizkigu abantailak baliatzen baditugu, eta euskarazko sormenari leku handiagoa ematen hasten bagatzaizkio.

Bide batez, Di-Dako kideen laguntzari esker, 'Tribuaren Berbak' saioaren bosgarren atalari izena jarri diote: '**Hitz eta pitz, publhitz**'.

5. GAZTEEN EUSKARA

Haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak




Gazteek hitz egiten duten euskara hartu du aste honetan hizpide Kike Amonarrizek gidatzen duen **'Tribuaren Berbak'** saioak. Eta hasteko datu argigarri bat eman du: gaur egun, **haurrak eta gazteak euskara gehien erabiltzen dutenak** dira.

Eta datu hori pozgarria da hizkuntzaren jarraikortasunari

dagokionez. 80ko hamarkadako euskararen erabilerako datu ofizialen arabera, helduek erabiltzen zuten gehienbat euskara. **Olatz Altuna soziolinguistak** saioan eman dituen datuen arabera 1986an 10 gaztetik bi soilik zen euskaraz hitz egiteko gai. Eta gaur egun, aldiz, **10 gaztetik zazpik** daukaten gaitasun hori.

Olatzek berak dioenez, gaur egun, euskara hitz egiten duten haurren **guraso gehienak erdaldunak** direlako gertatzen da hau. Haur askok eta askok **euskara eskolan jasotzen** dute, ez etxean. Eta arlo pribatuan gazteleraz errazago aritzen dira, euskaraz baino. Hutsune hori betetzea da euskararen hurrengo erronka.

Urteetan eta denboran aurrera egin ahala, **hizkuntzak aldatzen** joaten dira. Garaian garaiko hiztunek hizkuntzak eraldatzen dituzte, eta azken belaunaldi honek bultzada berezia eman dio euskarari, teknologia berriei esker batik bat. Nor da gai gazteen **whatsapp bidezko mezuak** ulertzeko? Egokia al da idazkera hori edo arazoak sortuko ote dizkie gazteei ondoren ongi idazteko?



Gasteizko ikasle pisu batean ere sartu da Kike gazteei eurei galdetzeko. Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak elkarrekin bizi dira etxe hartan eta primeran moldatzen dira elkarri ulertzeko. Hasiera batean batuan egiten saiatzen omen ziren, baina behin elkar ezagututa, **bakoitzak bere euskalkia** darabil eta primeran ulertzen diote elkarri.

Hala ere, argi dute **helduek eta gazteek ez dutela berdin hitz egiten**. Hitz batzuk erabiltzeari utzi zaio gaur egun eta beste berri batzuk sortu dira, batik bat, beste hizkuntzetatik datozen maileguak eta teknologia berriei lotuak.

Baina hori ez da berria. Gizaldiz gizaldi euskarak **mailegu** asko jaso ditu beste hizkuntzetatik, baina beste batzuk ere eman ditu. Gaztelerari, adibidez, ehun bat hitz gutxienez mailegatu dizkio euskarak: izquierda, bacalao, aquelarre, chistera... jatorri euskalduneko hitzak dira.

Eta horrekin lotuta '**pidgina**' zer der ikasi dugu 'Tribuaren Berbak' saioaren atal honetan: **Inolako harremanik gabeko bi hiztun komunitatek elkar ulertzeko sortzen duten hizkuntza praktiko eta oinarritzkoa** da pidgina.

Euskarak ere izan ditu bere pidginak, adibidez euskal arrantzaleek **Ternuako biztanleekin** erabilitakoa. Gezurra badirudi ere XVII. mendean Ternuan bizi ziren mikmaq amerindiarrek zer moduz galdetzen zitzaientean "apaizac obeto" erantzuten zuten.



Eta **Islandian** ere aztarna utzi zuen euskarak bere aztarna. XVII. mendeko euskal-islandiar pidginaren hitz eta esaldi bakan batzuk iritsi zaizkigu. Ungetorre = Ongi etorri

Gaur egun, euskañola eta frantseseuskara egiten omen dira askotan gure inguruan, baina **euskanglisha** ere

hitz egiten da munduan. AEBtako euskal diasporak sortutako hizkuntza, euskalki, dialekto edo dena delakoa da eta hitz berezi ugari ditu: tibixa (telebista), aizkrimia (izozkia), troka (kamioia), kukia (galleta), uikena (astebukaera)...

Hizkuntza handiek txikietan daukaten eraginari buruz **eztabaida ugari** sortu dira. Batzuentzat kaltegarria da hizkuntza txikien kalitatea gutxitzen duelako. Besteek naturalizat hartzen dute edozein gizarteren eta hizkuntzaren garapenean.

Sekretua, agian, euskara formala eta kolokialaren artean bereiztea izango da, eta bakoitza dagokion esparruan erabiltzea. Eta horrez gainera, **hizkuntza sendoa eta malgua** lortzea: sustrai sendoak dituen baina beste hizkuntzekin harremanak izango dituen.

6. EUSKARA SEXISTA AL DA?

Hizkuntzak ez dira sexistak; sexistak hizkuntzen erabilerak dira

Agurtzane Juanena idazlearen hitz batzuk aipatuta hasi du Kike Amonarrizek **'Tribuaren Berbak'** saioaren seigarren atala: **"Kultura sexistatik mintzaira sexista dator, eta mintzaira sexistak iraunarazi egiten du sexismoa kulturean"**. Esaldi hori hizkuntzen arloa ekarrita, sexistak al dira hizkuntzak? Eta gurera etorrita, euskara generorik ez duen hizkuntza dela entzun dugu beti. Baina hori hala al da?



Izan ere, gure inguruko hizkuntza gehienek duten genero gramatikalik ez du euskarak, baina **ezin esan genezake hitz euskaldunek generorik ez dutenik**. Horren adibide ditugu, esaterako, **oiloa eta oilarra, ahuntza eta akerra, behia eta zezena, eta emakumea eta gizona**. Eta hortxe dugu, halaber **hitanoa**. Hika ari garenean, solaskidearen generoa kontuan daukagu. Beraz, euskarak egiten du genero bereizketarik.



Amelia

Barquin idazleak *Euskararen erabilera ez sexista* idatzi zuen, genero bakoitzak hizkuntzan duen presentzia maila berekoa ote den jakiteko. Izan ere, luzaroan pentsatu dugu aldameneko erdaratan bazela zer ikertu gai horretan, baina ez, ordea, euskaran. Eta euskaraz ere bada hainbat adibide gizartearen beste arloetan gertatzen diren parekotasun

ezak hizkuntzan ere gertatzen direla erakusten dutenak. Dena den, Barquinek ez luke esango "euskara sexista denik. **Erabileran dago gakoa, erabilerak izan daitezkeelako sexistak, edo arrazistak**".

Esaterako, **GIZON** hitza oraindik erabiltzen da PERTSONA izendatzeko. Barquinek gogorarazi digu, adibidez, hain maitea dugun **"Izarren Hautsa"** kantuko hainbat bertso direla horren lekuko: "Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia" edo "Gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea".

Eta "gizon portatu" esamoldea "zintzo portatu" edo "adoretsu portatu" esateko erabili ohi da, baina ez dago horren pareko "emakume portatu" esapiderik. Beraz, **badaude oraindik asimetria batzuk, emakumeei eta gizonezkoei dagokienez**.



Hiztegiek erakusten digute oraindik badirela emakumea gutxiesteko erabiltzen diren **hitzak** (esaterako, “tuntuna”, “txolina”, “bargasta”, “txatxala”, “baldraska”...), eta batzuek, gainera, ez dute gizonentzako ordainik. Eskualde gehienetan, “alua” esatea iraingarria da, “zakila” esatea ez da hain iraingarria, eta “a ze potroak” esatea ona edo txarra izan liteke.

Baina zergatik gertatzen ote dira hitzen arteko desberdintasun horiek? **Ibon Sarasola** idazle eta hizteigile ohiaren iritziz, **“gizartea matxista baldin bada, hizkuntza matxista izango da**; eta gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntza aldatzen da”. Sarasolaren iritziz, indarra egin beharra dago ideologikoki matxismoaren kontrako gizartea lortzeko.

Historikoki, gizona izan da jendaurrean agertu eta trebeki moldatu dena, “plazagizona” izan dena. Baina, beharbada, erabileraren poderioz, “plazandre” hitzak ere lekua izan dezake hiztegian. **Uxue Alberdi** bertsolari, kazetari, idazle eta abestigileak, esaterako, haren burua “plazandretzat” duela esan daiteke, eta hitz hori bezala, “etxeko gizon” esamoldea ere hiztegian falta dela aipatu du.

“Emakumera batua” kontzeptuarekin bat egiten du Alberdik (Estitxu Eizagirrek duela zenbait urte sortutakoa), izan ere, komunikazio kode berri bat behar litzateke publikoki egiten den gauza ororako, bai umore publikoa egiteko, bai eztabaida publikorako. Izan ere, publikoki egiten den diskurtsoa ez da neutroa, **“gizontasun hegemonikoko baloreen gainean eraikia dago”**.



Horregatik sortu dituzte **bertso eskola feministak**. “Bertsolaritza, orain gutxi arte, gizonak eta gizonentzat egindako jarduna izan da, eta emakumezkoak plaza horretara sartu direnean, aldaketak izan dira, baina oraindik, kasu askotan, buruan daukagu egindako bertsolaritza eredu bat, eta gure eredutik joan beharrean, egokitu egiten gara. Plaza eraikiko dugu une bakoitzean plaza egiten ari garen guztiok”.

“Matxismoan edo sexismoan eraikitako baloreak gehiengoa dira”, azpimarratu digu Alberdik. Izan ere, bai ipuinetan, bai iragarkietan, bai filmetan topatzen ditugu horrelako diskurtsoak. “Aza berriz berotua, eta emakume berriz ezkondua, berdintsu”; horrelako atsotitzek argi erakusten digute **sexismoa aspaldiko kontua** dela, eta ezin dugu ahaztu hizkuntza sexista baten atzean gizarte sexista bat dagoela.

Beraz, **gakoa ez dago gure hizkuntzan, hiltunon burmuinean baizik**.

7. URTE BERRI ASMO BERRI

Urte berri, asmo berri on!

“Urte berri, asmo berri” izenburupean aurkeztu digu Kike Amonarrizek “Tribuaren Berbak” saioaren zazpigarren atala, Eguberri egunean. Gabon kutsu nabarmeneko saioan, 2014. urteari begira jarri gaituzte, eta hainbat pertsona ezagunek urte berrirako euskarari lotuta dituzten asmoak azaldu dizkigute.

“Urte berri, asmo berri”. 2014a gainean dugu, eta Kike Amonarrizek gidatutako “Tribuaren Berbak” saioak urte berriari begira jarri gaitu. Zehazki, geure buruei **2014rako euskarari lotuta asmo edo erronka batzuk ezartzea** izan du helburu saioak, eta horretarako, **hainbat pertsona ezaguni** eurenak azaltzeko eskatu die. Askotarikoak bildu dituzte!



Ametz Arzallus bertsolaria Hendaia ikastolako ikasle izana da, eta 2014ari eskatuko lioke **Seaska** ez dezatela ikusi batzuek “burdinazko kaiola bat balitz moduan”. Aitzitik, Seaska haurrek mundura ateratzeko hizkuntza bat ikasten duten lekua dela nabarmendu du.

Hainbat **pilotariren** asmoak bildu ditu Kike Amonarrizen saioak. **Oinatz Bengoetxeak**, esaterako, **aldagelatan euskaraz gehiago aritzea** adostu dutela azpimarratu du “euskaraz ez dakitenek pixka bat ikasteko”, eta, euren artean, “euskal giro hobea izateko”. **Abel Barriolak** izen bati lotutako erronka du. Pilotan bikote duten **Juan Martinez de Irujorekin euskaraz gehiagotan** hitz egitea. Lehendik ere ongi egiten omen du Iberokoak, eta, beraz, elkarrekin gehiago aritzea hartu du asmo gisa Leitzakoak. Azkenik, **Jose Javier Zabaletak** euskaraz **“beldurrik gabe”** hitz egiten saiatuko dela adierazi du.



Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleak euskaraz umorea egitea zaila dela dioen topikoa **“irauli, eta euskaraz umorea fintzea”** hartu du helburu 2014rako.

Toti Martinez De Lezea idazlea “euskaldun berri zaharra” da. Duela 40 urte ekin zion euskara ikasteari, eta irakurtzeko eta ulertzeko arazorik ez badu ere, zailtasunak dauzka **“aditzekin eta nor-nori-norkekin”**. Beraz, bi horiek

menderatu nahi ditu 2014an.

Garbiñe Biurrun epaileak 2014ari eskatu dio **auziak**, “batzuk sikiera”, euskaraz egin ahal izatea, eta “herritarrok gure eskaerak, argudioak eta arrazoiak euskaraz adierazi ahal izatea epaimahaiari”.

Iker eta Eneko Pou eskalatzaileek hainbat hizkuntza erabiltzen dute euren eguneroko bizitzan. Ingelesez, gaztelaniaz, italieraz, alemanez aritzen dira, eta, **euren artean** euskaraz egiten badute ere, **“ia guztia” euskaraz egitea** dute 2014rako helburu.

Josebe Iturriotz Berdintasun teknikariak euskara haren bizitzaren “zentroan” sartzea erabaki du: sexualitatean txertatzea, alegia. **“Txortan egin nahi dut euskaraz gehiago eta hobeto”**.



ETBko bi kazetariren hitzak ere bildu ditu “Tribuaren Berbak” saioak. **Asier Odrizolak**

Joxanton Artzeren esaera ezaguna oroitu du, “euskara galtzen bada, dakigunok hitz egiten ez dugulako izango da”. Horregatik, hitza eman du **2014an euskara gehiago erabiliko duela, eta, ahal duen neurrian, ingurukoek ere gehiago erabil dezaten ahaleginduko dela**. Gainera, hitza bete egingo duela azpimarratu du. **Franck Dolosorrek**, berriz, **euskara bizitzen eta sustatzen segituko du**, eta idazten hasi den liburua “bururatzea” agindu du, “Senperetik gaindi, gure herritarrak eta eskuara, lapurtera, hobeki ezagutzeko”.

Eli Pinedo eskubaloia jokalaria euskara bere bizitzaren **“esparru guztietara”** zabaltzea hartuko du erronka moduan.



Azkenik, **Alberto Iñurrategi** mendizalea ez omen da irakurle amorratua, eta, gainera, euskaraz ez du irakurtzen “nahi beste”. Hori dela eta, horixe izango du datorren urterako asmoa: **“euskaraz orain arte baino gehiago irakurtzea”**. **#Asmoberri** erabilita, jendeak Twitter bidez 2014rako asmoak bidaltzea eskatu zuen “Tribuaren

Berbak” saioak, eta **arrakasta handia** izan du traolak. Izan ere, **UMAPek** emandako datuen arabera, euskarazko txioen artean joera izan da, **#euskalTT**, alegia.

Askotariko asmoak bidali dituzte txiolariak. Zenbaitek, Iñurrategiren asmoei jarraiki, **euskaraz gehiago irakurtzea du helburu**. Besteren batek, Josebe Iturriotzen erronkari helduta, **euskarazko “txortagaluna” topatzea**. Gainera, **lagunartean euskaraz gehiago aritzea, lehen hitza euskaraz egitea, euskara irakastea**, baita **noizbait “euskararen inguruan #asmoberri gehiagorik beharrezko ez izatea”** ere.

Asmo ederrak guztiak, zalantzarik gabe. Guk ere, **“Euskaldunok Euskaraz”** blog xume honetatik, gure asmoa azalduko dugu: **euskarari lotuta euskaraz post interesgarriak osatzen** jarraitzea izango dugu helburu 2014an.

Urte berri, asmo berri on!

8. RIOJATIK ERRIOXARA

Errioxan euskaraz aritzen ziren Erdi Aroan



Arabako Errioxako euskararen egoeraezagutzera joan da Kike Amonarriz Lapuebla de Labarca ingurura **'Tribuaren Berbak'** saioaren azken atalean.

Koldo Zuazo hizkuntzalariarekin hitz egin ostean, jakin dugu Erdi Aroan **Errioxan euskara** hitz egiten zela. Arabako Errioxako daturik ez dago XVII. mendera arte, baina Errioxako datuak bai.

Esanguratsua da **Ojaca**stro herriko datua adibidez. 1234-39 urte inguruan, Gaztelako Erregeak herri hartako bizilagunei epaitegietan **euskaraz aritzeko eskubidea** onartzen zien Foru baten bidez.

Beraz, pentsatzekoa da inguru guztian, baita Arabar Errioxan ere, euskaraz aritzen zirela herritarrak. Lurralde hartan, gainera, euskarazko izen ugari agertzen dira; gehienak mendebaldeko hizkuntzan: barri (berri), uri (hiri), baltz (beltz)...

Tamalez, handik mende gutxira desagertu zen euskara lurralde haietan. Baina azken 50 urteetan sekulako lana egin dute Arabar Errioxan **hizkuntza berreskuratzeko**. Gaur egun, bertan jaiotako euskaldun zaharrak ere badaude etalehenda **biziko euskaldun zaharra** topatu du Kike Amonarrizek; 13 urte ditu eta Maite Viteri du izena.

Lapueblako Assa ikastolan aritu ziren lehen ikasleen seme-alabak dira Arabako Errioxako gaur egungo euskaldun zaharrak. Arabako Errioxako, Errioxako eta Nafarroako **32 herritako ikasleak** dituzte. Casalarreinako eta Vianako ikasleak ere badituzte, horietako batzuk gainera ordu eta erdi egiten dituzte autobusean egunero ikastolara joan ahal izateko bertako irakasle Aitor Urkizak Kike Amonarrizi kontatu dionez.

Hain zuzen, Assa ikastola ari da aurtengo Araba Euskaraz antolatzen eta ilusioz beteta daude herrian **ekainaren 15eko** festa horretarako.

Ikastolari, bailarako euskara elkarteei, bertso-eskolari eta euskara zerbitzuari esker, euskarak asko irabazi du azken hamarkadetan inguru haietan; **Leire Sueskun euskara teknikariarekin** hitz egin du **Arabako Errioxan euskarak** gaur duen egoeraz eta baieztatu duenez, **erdaldunen kopurua %50 jaitsi** da azken 30 urteetan. Beraz, urte gutxitan biztanleen erdiak euskaraz hitz egitea lortu dute.

Bejondeizuela! Segi horrelaxe lanean!

9. EUSKARA ETA ZIENTZIA

Euskal dinosauroa eta robot bertsolaria ez dira zientzia fikzioa!



Zientziak gauza handiak lor ditzake. Hori argi dago, baina, **euskarak zein pisu du zientzian?** Galdera horri erantzuten ahalegindu da Kike Amonarriz **'Tribuaren berbak'** saioaren bederatzigarren saioan.

Zientzia eta euskara fusiona al daitezke? **1976.** urtean, **Adolfo Suarez** Espainiako

presidente zenak *Paris match* aldizkarian **esan zuen fisika nuklearra unibertsitatean irakastea ezinezkoa zela.** Baina argi eta garbi dago erabat **oker zebilela,** eta hori argi erakutsi du **'Tribuaren Berbak'** saioak.

Basque Center On Cognition, Brain And Language izenekoak hizkuntza jabekuntzan, ulermenean eta elebitasunean parte hartzen duten mekanismo kognitiboak argitzea du helburu, eta bertako kide **Jon Andoni Duñabeitiaren** arabera, **erlazio oso estua dago elebitasunaren eta hizkuntzarekin bat ez datozen beste gaitasun kognitiboen artean,** adibidez, atentzioa edo arreta sistema. Elebitasunak, beraz, abantailak ematen dizkigu.



euskarazko bilatzaileak erabiltzen ditugunean, baita euskarazko itzultzaileetan ere. Hori eguneroko bizitzan, baina, aipatzekoa da **Galtxagorri robot bertsolaria** ere, oinak emanda, bertsoa osatzeko gai den robota, alegia. Bikaina!

EHUko Ixa ikerketa taldean informatikariak eta hizkuntzalariak ari dira lanean, hizkuntzaren prozesamenduaren arloan. **Xabier Arregik** azaldutakoaren arabera, **makinei euskara erabiltzen erakutsi nahi diete,** gizakien eta makinaren arteko komunikazioa erosoagoa eta hobe izan dadin. Lan horren emaitzak ikusten dira, esaterako, Xuxen zuzentzaile ortografikoan,



Juan Ignacio Perez Iglesias EHuko kultura zientifikoko katedradunaren arabera, **zientziaren hizkuntza edozein izan daiteke**, erabilpenaren arabera. Esaterako, ikerketa baten goi mailako emaitzak jakitera emateko, ingelesa da hizkuntza, irakurleak mundu osoan daudelako, gutxi direlako, eta ingelesa erabiltzen dutelako. Baina zientziaren hezkuntza edo prestakuntza sisteman ari bagara, edozein izan

daiteke, gure kasuan, euskara, gaztelania edo frantsesa. Eta gauza bera gertatzen da dibulgazio mailan, hau da, zientzia gizarteratzerako orduan, herrietako eta nazio hizkuntzak erabiltzen baitira.

Dibulgazioaren arlo horretan **Internet eta blogak** nabarmendu ditu Perez Iglesiasek zientzia herritarrengana helarazteko. Arlo horretan, **Zientziakaiera** atarian askotariko materialak eta gaiak bildu dituzte.

Zientzia gizarteratzeaz arduratzen da, halaber, **Elhuyar** fundazioa. 70eko hamarkadan aldizkari bat sortu zuten ingeniartzako hainbat ikaslek, zientziak euskaraz aritzeko zailtasunak zituztela jabetuta. Hortik abiatuta, asko garatu eta zabaldu da Elhuyar,

eta **zientziaren komunikazioan eta hizkuntzaren eta teknologiaren garapena** ditu ildo

nagusi. Horretarako, eskura dauzkaten euskarri guztiak erabiltzen dituzte, **Eider Carton**en arabera: **aldizkaria**, **'Norteko Ferrokarrila'** Euskadi Irratiko saioa, **'Teknopolis'** ETBko saioa, Internet, eta komunikabide tradizionalak.. Gainera, pertzepzio azterketak ere egiten dituzte Euskal Herriko biztanleek zientzia gaiekiko duten interesa ezagutzeko, eta, itxura denez, **interesa ba omen dugu, eta gero eta gehiago gainera**, batik bat, haur eta gazteen artean. Esaterako, **Irria** aldizkarian **'Marikalanbre'** izeneko pertsonaia daukate, hura atsegin duten gaztetxoak zientzia euskaraz kontsumituko duten heldu bihurtzeko asmotan.



Bitxikeria gisa Kike Amonarrizek nabarmendu du Elhuyar anaiek isolatu zutela lehen aldiz **taula periodikoko Wolfram** elementua Bergaran. Gainera, **euskal dinosauroa** ere existitu zen, Gasteiztik 30 kilometrorra dagoen Laño aztarnategian topatu zuten espezie bati **Liranosaurus Astibiae** izena jarri omen zioten. Eta ezin dugu aipatu gabe utzi **panda artzak ezagutzera eman**

zituen **Armand David** zoologo eta botanikaria ezpeletarra zela.

Argi dago, beraz, euskarak baduela pisurik zientzian, eta osasuntsu dagoela, oraindik ere egiteko askorik badago ere. Bejondeiela **'Tribuaren Berbak'** saioan ikusi ditugun ikertzaile, dibulgatzaile eta lantalde guztiei!

10. FRANTZIAREN ITZAL LUZEA

Ipar Euskal Herriko gaztetxoen artean euskararen berpizkundea antzematen da

Kike Amonarrizek zuzendu eta gidatzen duen ‘**Tribuaren Berbak**’ saioa **Ipar Euskal Herriko euskararen** bizi-indarraren bila ibili da aste honetan. Hasteko, datu orokorren bila jo du Kikek eta **Eguzki Urteaga** soziolinguistarengana. Honek esandakoaren arabera, gaur egun, biztanleen %22 da elebiduna, %9 elebidun hartzailea eta **%69 erdaldunak**, hau da, ez dute euskara ulertzen ez erabiltzen.



Datuak horrela ikusita, **euskara larri** dagoela Ipar Euskal Herrian ematen du, baina egoera hau sakonago aztertzeko lanak hartu ditu ‘Tribuaren Berbak’ saioak. Eguzki Urteagak esan bezala, euskararen egoera ezberdina da eremu geografikoen arabera; Baiona inguruan eta hiri handietan oso gutxi

entzuten da eta landa eremuetan, aldiz, Zuberoan eta Baxe Nafarroan indartsuago dago. **Urepelen**, adibidez, egoera hobea da.

Bestalde, 1991z geroztik egiten diren **ikerketa soziolinguistikoek** erakusten dute euskararen gainbeherak oraindik ere jarraitzen duela, baina azken urteetan beherakada leundu egin dela. Gainera, datu positibo bat ere eman du Eguzkik: **16 eta 24 urtekoen artean berpizkunde** bat antzematen da azkenaldian.

Euskara hizkuntza ofizial ez izatea ere ez da batere lagungarria egoera honetan. Frantziako Konstituzioaren bigarren artikulua dio frantsesa dela Estatuko hizkuntza eta horri heltzen diote agintariek hizkuntza gutxituen hiztunak eskubideak aldarrikatzen hasten direnean.

1992ko azaroaren 5ean **Hizkuntza Gutxituen Karta** onartu zen Europako Kontseiluan, hizkuntza gutxituak babesteko. Europako Kontseiluko 47 estatuetakin 24 dira **akordioari muzin** egin diotenak eta horien artean dago **Frantzia**.

Frantziak munduari gauza on asko eman dizkio. Baina frantsesa ez diren beste hizkuntzei dien begirune eskasa die. Eta **Henri Grégoire** abadea da ezinikusi horren erantzule nagusietako bat. 1794an, “Rapport sur la Nécessité et les Moyens d’anéantir les Patois et d’universaliser l’Usage de la Langue française” plazaratu zuen, hau da, Frantziako hizkuntza gutxitu guztien suntsipena defendatzen zuen liburua.





Horregatik, Seaska ikastolen elkarteak bezalako ekimenak behar-beharrezkoak dira. 30 ikastola eta 3.100 ikasle baino gehiago biltzen ditu. **Paxkal Indo** da bertako lehendakaria eta egiten ari diren lanari buruz mintzatu da Kike Amonarrizekin. **Eskolima** elkartearen lehendakaria ere badela azaldu dio. Elkarte honetan bost hizkuntza gutxituta irakasten duten

Frantziako eskolak biltzen dira; okzitaniaraz, katalanez, bretoiarrak, alsaziaraz eta euskaraz aritzen direnak, hain zuzen. Hainbat lan egiten dituzte elkarrekin, irakasleen formakuntza esate baterako.

Eta euskara egoera onean ez badago ere, Frantziako beste hizkuntza asko okerrago daudela dio Paxkal Indok. Baina haietako batzuetako hiztunak ere lanean ari dira etengabe, euren hizkuntzak salbatzeko: okzitaniarra, alsaziera, korsikera, bretoiara eta katalana indartzeko ekintzak egin izan dituzte.

Euskararen alde ere ekimen ugari egin dituzte Ipar Euskal Herrian. **Baionako Bernat Etxepare Lizeo**ko gazteek egindako bideoklipa bestea k beste. Baionako hau, Iparraldeko lizeo bakarra da eta, horren ondorioz, hiru lurraldeetako gazteak biltzen ditu. Etxetik urrun daudenak, zuberotarrak eta baxenafarrak, gertuko barnetegi batean igarotzen dute astea eta asteburuan joaten dira etxera.



Haien artean errazago komunikatzeko eta euskalkien zailtasunak gainditzeko, “**Iparraldeko batua**” moduko bat sortzen ari omen da. Eta frantsesa eta euskara ere nahasten dituzte tarteka, “**freuskara**” sortuz. Adibide gisa, **futitzen**esan ohi dute bost axola esateko; edota **dragatuhitza** erabiltzen dute ligatu adierazteko.

Ikastolen elkartean bezala, eskola publikoan euskara txertatzeko ekimenak ere gero eta gehiago dira. Biga Bai gurasoen elkarteak gogor ari da lanean helburu horrekin.

Amaitzeko, euskarazko egitasmo ugari daudela Ipar Euskal Herrian gogoratu behar dugu, hala nola, Kanaldude telebista, Mintzalasai proiektua, Zinegin eta Euskal Herria Zuzenean festibalak, eta beste hainbat. Denon artean lan eginez, euskaren jakintza eta erabilerari buruzko hurrengo urteetako datuak hobeak izango direla espero dugu!

11. ABESTIEN HITZAK, HITZEN DOINUAK

Euskal Herriko ekoizpenaren barruan, euskal musikak gero eta pisu handiagoa du



Voltairek idatzita utzi zuenez, euskaldunok Pirinioen oinaldean dantzatzen dugun herria gara. Eta dantatzeko, musika ezinbestekoa da; kasu honetan, euskal musika. “**Tribuaren Berbak**” saioak, baieztapen horretatik abiatuta, euskal musikaz hitz egiten dugunean zertaz ari garen argitu nahi izan du.

Izan ere, sinplea dirudi, baina ez da erraza. **Zer da euskal musika?** Jon Eskisabeli, **Badok.info** atariko arduradunari egin dio Amonarrizek galdera, eta haren hitzetan, 70eko hamarkadaren amaiera eta 80koaren hasiera aldera hasi zen euskal musika etiketa bezala erabiltzen euskaraz kantatzen zuten talde eta bakarlari berriak multzo batean sartzeko. Eta, Eskisabelen iritziz, garai hartako irizpide horrek balio du gaur egunerako. “Nire ustez, gaur egun ere **euskal musika euskaraz egiten dena da**. Gaztelaniaz edo ingelesez egiten den musika Euskal Herrian ekoizitako musikaren barruan dago, eta euskal taldeak dira, baina ez nuke esango euskal musika egiten dutenik”.



Euskal Herriko musika ekoizpenaren daturik onenak **Eresbil** musika artxiboan daudenez, hango zuzendari **Jon Baguesi** galdetu diote zien den egungo egoera. Hark esandakoaren arabera, diskogintzaren zenbakiak gutxitu egin dira, baina beste alde garrantzitsu batzuk badaude. Esaterako, autoekoizpenaren kopuruak gora egin du. Beraz, oro har, Euskal Herriko musika

ekoizpena mantendu egin dela esan genezake. Euskarak, ekoizpen horretan, % 50etik gorako pisua izango luke presentziari dagokionez. Are gehiago, azken hamarkadan, % 42tik % 50era iritsi da zenbatekoa. Ondorioz, **Euskal Herriko ekoizpenaren barruan, euskal musikak gero eta pisu handiagoa duela esan genezake**. Ingelesaren eta gaztelaniaren proportzioa, berriz, aldatzen joan da, eta orain ia parean omen daude, Baguesen hitzetan. Ipar Euskal Herriaren kasuan, jakina, frantsesak beteko luke gaztelaniaren lekua.

Mikel Markez musikariarekin ere aritu da Kikeeuskal kantagintzaz, eta, haren iritziz, “oso osasuntsu dago kantitateari eta kalitateari dagokionez, beraz, osasuna eta ugaritasuna baditugu”. Baina gizarte pixka bat despistatuta ikusten du, informazio gaindosia dagoelako. Bestalde, euskal kantagintzak euskararen normalizazio prozesuan duen garrantzia azpimarratu du. “**Askotan**



ez gara konturatzen zein tresna eraginkorra den kantua. Maitemintzen gaituen kantu batek politikari baten 10 urteko lanak baino askoz ere eraginkortasun handiagoa du”, esan du Markezek.

Musikari esker, gainera, **euskarak Euskal Herriko mugak gainditu ditu.** **John Berkhout** talde oiartzuar gazteak **Fermin Muguruzarekin** eta **Berri Txarrak** taldearekin euskara mundu zabalera zabaltzeko delako azpimarratu du. Gainera, **Anne Etchegoyen** lapurtarrak, euskal kantagintza tradizionala landuta, Urrezko Diskoa lortu du Frantzian; **Amuma says no** taldeak ere transmisio lan txukuna egin du AEBetan; eta **Kalakan** hirukote lapurtarrak **Madonna euskaraz** abesten jarri du.

Estiloari erreparatuta, **aniztasuna** aipa genezake, euskara edozein musika eredutara egokitzen dela argi baitago. Baina, **Gaztea** irratiko “**didal!**” irratsaioko kideen esanetan, **rock hitzaren zabaltasun horretan dago euskal musikaren indar gunerik handiena.**

Eta **euskararen aberastasuna** ezin izan du aipatu gabe utzi “**Tribuaren Berbak**” saioak. Izan ere, badira euren **euskalkiaren aldeko apustu garbia** egin dutenak, **Gatibu** talde gernikarra eta Ibarrangelu eta Elantxobe aldeko **The Uski’**taldea, esaterako.



The Uski’seko kideen hitzetan, eurentzako ez da berritzailea izan bizkaieraz abestea; aitzitik, kontrakoa izan da. Antzinako rock & rolla euren erara moldatu nahi izan dute, eta, horretarako, euren “euskaria” erabiltzea beste biderik ez zuten topatzen. “**Barrutik urteten daskuna da gure herriko bizkaieri**”.

Euskal musikaren osasuna, pisua, aniztasuna, zabaltasuna eta aberastasuna nabarmendu dizkigu “**Tribuaren Berbak**” saioak, euskaraz dantzaz jarraitzeko adina arrazoi badugu, beraz!

12. BERTAN BILBO

Bilbo euskaldun gehien dituen munduko hiria da

Hiri erdaldunaren irudia ematen omen du **Bilbok**, baina egiazki **euskaldun gehien dituen munduko hiria** da. Hala erakutsi du behintzat Kike Amonarrirek gidatzen duen '**Tribuaren Berbak**' saioak.



Irudi erdaldun horren zergatia azaltzeko Aitor eta Pedro Zuberogoitia anaiekin hitz egin du Kikek. **Bertan Bilbo** liburuaren egileak dira eta euskarak XX. mendean izan duen bilakaera aztertu dute lan honetan.

Aitorren hitzetan, **euskararen gainbehera XIX. mendean hasi zen Bilbon**; ziurrenik gizaldi amaierako industrializazioaren ondorioz. Garai

hartan, hirietako gizarteak nekazal giroa baztertzera eta **ridikulizatzer**a jo zuen, besteak beste, baserritarak euskaraz mintzatzen zirelako eta gaztelaniaz ez zirelako moldatzen. Gaztelaniaz aritzea moda eta prestigio kontua bilakatu zen hiri eta herri handietan.

Hala ere, Pedrok azaldu duenez, 20ko hamarkada inguruan, Errepublikaren aurretik, Bilboko biztanleen %20a euskalduna zen. Hala erakusten dute garai hartako datuek. Eta **galera handiena**, Gerra Zibilaren ondoren, 40 urte iraun zituen **diktaduran**, gertatu zen. **1975ean** %6k soilik zekien euskaraz. Eta geroztik, gora egin du datu horrek gaur egun arte.

Alabaina, Bilboko txoko guztietan ez da berdin erabiltzen euskara. Bilboko Udalaren datuen arabera **Ibaiondo, Abando eta Deustu barrutiak dira euskaldunenak**, eta euskaldunen erdiek baino gehiagok 34 urte baino gutxiago dauzkate.

Beste hari bati helduz, euskararen esparruan **Bizkaiko hiriburua aitzindari** izan zela jakin dute Zuberogoitia anaiek euren ikerketei esker. Lehen euskara katedra bertan sortu omen zen eta Gerra Zibilaren garaian euskaraz idatzitako liburu ugari saltzen omen ziren bertako liburu-dendetan.

Bitxikeri gisa, **lehen euskara katedra** hura lortzeko lehian Sabino Arana, Resurrección Maria Azkue eta Miguel de Unamuno aritu omen ziren. Azkenean, Azkuek irabazi zuen. Eta gerora, lehen lanak euskaraz idatzi bazituen ere, gure hizkuntza ohorez ehortzi beharrekoa zela idatzi zuen Unamunok. Ez zuen elebitasunean sinesten.

Bilbon euskararen eta **euskaldunen guneak bilatzen hasita, Kafe Antzokira joateaderrigorrezkoa** da. 1995ean sortu zen Gabriel Aresti euskaltegiaren ekimenez **ikasleek euskara erabili ahal izateko** espazio errealak izan zituzten. Kultur ekitaldi ugari egiten dira Kafe Antzokian: kontzertuak, bertso saioak, liburu eta disko



aurkezpenak eta abar. Eta horrekin batera, Aresti euskaltegiak beste hainbat ekimen ere baditu martxan: Bilbo Hiria irratia, Algara konpartsa, Zenbat Gara elkarte...



Euskaltzaindiaren egoitza nagusia ere Bilbon dago, Plaza Berrian hain zuzen ere. 1919an sortu zen erakunde hau eta haren helburuak dira, besteak beste, euskara sustatzea, erabilera zabaltzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hiztunen eskubideak zaintzea. Linguistikaz, soziolinguistikaz, onomastikaz, toponimiaz, gramatikaz, hiztegiak, dialektologiaz eta abarrez arduratzen da.

Euskaraz Bilbo ala Bilbao esan behar ote den jakin nahi izan du 'Tribuaren Berbak' saioak bertan. Mikel Gorrotxategik, Onomastika batzordeko idazkariak, **euskarazko izen jatorra Bilbo** dela argitu dio. Horren arrazoia euskal literaturan beti izen hori erabili izan dela da. Eta ez euskaraz bakarrik, baita ingelesez ere: Erdi Aroan Bilboko portutik bidaltzen zituzten merkantziei buruz idazten zutenean Bilbo hitza erabiltzen omen zuten.

Lehen euskal antzerki talde profesionala ere Bilbon sortu zuten 80ko hamarkadan, **Maskaradataldea** hain zuzen ere. Mikel Martinez aktorea izan zen sortzaileetako bat, "euskaldun berriak eta euskararen aldeko militanteak" zirelako.

San Inazio auzora joanda, **Euskararen Etxea** topatu du Kikek. Azkue Fundazioaren ardurapean dago eta **euskarari buruzko gune espezializatua** da. Interpretazio zentro bat eta euskaraz idatzitako unibertsitate-liburuen bilduma ditu bertan. Eta horrekin batera, ekimen ugari antolatzen dituzte bai gazteentzat bai helduagoentzat.

Gazteengan euskara zabaltzeko, oster, **Harrapazank aisialdi programa** dago. Kutsu urbanoko ekintzak antolatzen dituzte gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko.

Azkenik beste bitxikeria bat: ba al zenekiten gurea ez dela munduko Bilbo bakarra? **Mexikon, Coahuila estatuan, bada Bilbao** izeneko 400 bat biztanleko herrixka bat. Bertan hondar fineko dunez disfrutatzeko aukera daukate eta turismorako leku aproposa bilakatu omen da.

13. JENDEAURREAN

Nola hitz egin behar da jendaurrean?

Jendaurrean hitz egiteak jende askori sortzen dizkion zailtasunei buruz aritu dira aste honetan ETB1eko **'Tribuaren Berbak'** saioan. Beldurrak nola gainditu eta gai honetan nola trebatu azaldu digu Kike Amonarrizen saioak.



Zergatik diogu halako **beldurra publikoan hitz egiteari?** Manu Marañon komunikazio trebatzailearen hitzetan, alde batetik, **“naturala” da lotsa edota beldurra sentitzea**. Baina bestetik, duela gutxi arte, ez da arlo hau jorratu eskoletan eta, ondorioz, helduak garenetako askok ez dugu alderdi hori inoiz trebatu.

Beldur hori gainditzeko, **norberarengan konfiantza** izatea funtsezkoa dela adierazi du Marañonek. Horretarako, alde batetik, hizketarako gaia erabat barneratuta izan behar dugu. Eta bestetik, **autoestimua landu** behar dugu; hau da, ziur egon behar dugu egoera gure eskuetan dagoela, egitera goazena egiteko gai garela irudikatu behar dugu eta pentsamenduari buelta eman behar diogu era positiboan.



Jendaurrean mintzatzeko trebetasuna izatea gero eta beharrezkoagoa da gure gizartean; trebakuntza hau lantzen duen pertsona autonomoagoa eta malguagoa izango baita. Marañonen hitzetan, **gaitasun honekin ez da jaiotzen**, trebatu egin behar da.

Hori bera diote irratia eta telebista esatari askok, eguneroko ofizioan hitza erabili behar dutenetako askok. **Maite Artola irratiesatariak**, adibidez, argi du: jardutea da garrantzitsua, zenbat eta gehiago jardun, orduan eta lasaiago egoten da.

Hitz egitea ofizio dutenentzat (izan aurkezle, irakasle, komertzial, apaiz, politikari...) **ahotsa zaintzea** ezinbestekoa da. 'Tribuaren Berbak' saiokoak **Mirari Perez Gaztelu foniatrekin** aritu dira gai horri buruz. Foniatrak, medikuntza ikasketak egin ondoren, ahots organoan espezializatu diren profesionalak dira. Komunikazio arazoak dituztenek tinbrea, tonua, intentsitatea, modulazioa, erritmoa eta ahoskatzea kontrolatzen ikasi behar dute eta foniatrekin eta logopedekin hartzen dituzte horretarako beharrezkoak diren neurriak.



Behin beldurra gaindituta eta ahotsa osasuntsu daukagula, bota behar dugun **diskurtsoa nola egituratu** ikasi behar dugu. **Joxerra Garzia** irakasleak beti **entretanimendu puntu batzuk** bilatzea gomendatu du; esan behar duguna esatearekin batera, jendea ez aspertzeara bilatu behar dugula alegia.



Horrez gainera, diskurtsoa egituratzean ze efektu edo **erantzun lortu nahi dugun kontutan hartu** behar dugu. Askotan, kontatu behar dugunaren ordenak ere jendearen erantzuna aldatzen baitu.

Hau guztia **eskolan lantzen hasi behar** dela argi du Joxerra Garziak. Hezkuntza sistema askotan **oratoriari** garrantzia handia ematen diote; AEBetako

pelikuletan askotan ikusi ditugu eztabaida lehiaketak eta klubak adibidez. Euskal Herrian, duela urte batzuk arte, ez zaio aparteko garrantziarik eman, baina azken aldian, eskola eta ikastoletan, hasi dira jendaurrean hitz egiteari kasu handiagoa egiten. Bertso-eskolek ere lan handia egin dute umeak jendaurrean eroso aritu daitezen.

Koldo Amestoy ipuin-kontalariak euskaraz zein frantsesez egiten ditu bere emanaldiak. Euskarak onomatopeiekin, hitz jokoekin eta hainbat formulekin aritzeko erraztasun handiagoa ematen diola aitortzen du. Izan ere, haurrentzat ipuinak kontatzen ari denean, hauen **atentzioa mantentzeko**, hitzekin irudi bat sortzen saiatu behar izaten du; “ipuinak ikusi egin behar” direla esan dio Kike Amonarrizi.



Azkenik, jendaurrean hitz egin behar duenak **gorputzaren hizkuntza** ere kontutan hartu behar du. Esaten duen horretan konfiantza duela adierazi behar du gorputzak. **Olatz Beobide** aktoreak gorpuzkera itxia ez izateko gomendatzen du; **burua tente, jendeari zuzenean begiratzea, eskuak modu naturalean mugitzea eta zangoak gogorregi ez jartzea**.

Dударik gabe, atzerriko hainbat herrialdeetan guk baino askoz naturalago ikusten dute jendaurrean hitz egitea. Esate baterako, ba al zenekiten **Londresen Speaker's Corner** izeneko leku bat dagoela? Bertan, edozeinek edozer gairi buruz hitz egiteko eskubidea du eta edonor aurkitu dezakegu edozein momentutan diskurtso bat ematen.

Guk ere, utzi ditzagun lotsak alde batera eta hitz egin dezagun naturaltasunez edozer gauzari buruz, edozeinen aurrean!

14. EUSKATALA

Euskararen eta katalanaren arteko loturak aztertzen

Euskararen eta katalanaren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak aztertzen aritu da **'Tribuaren Berbak'** aste honetan eta horretarako Katalunian ibili da Kike Amonarriz euskaldunen edo euskararen ezagutzaren bila eta baita Donostian ere Kataluniarekin ditugun loturen bila.



Hasteko, **katalanaren tamaina** aztertu du saioak. Euskararen kasuan esan genuen milioi bat hiztun inguru garela. Ba katalana gurea baino askoz indartsuago dago: **11 milioi hiztun inguruditu**. Calvet barometroaren 19. Lekuan dago eta, Unescoren iritziz, Alguer inguruko hizkuntza soilik dago arriskuan.

Izan ere, katalana Katalunian eta Alguer hirian hitz egiteaz gainera, Valentziako Erkidegoan, Balear Uharteetan, El Carxe Murtziako eskualdean, Aragoiko Sartaldeko Zerrendan, Ipar Katalunian eta Andorran ere hitz egiten da. Eta guztien artean **Països Catalans** bezala ezaguna dena osatzen dute. Andorran adibidez, hizkuntza ofizial bakarra da katalana. Eta herrialde hau Nazio Batuen Erakundeko kideetako bat denez, NBEtan katalana entzun daiteke.

Euskararena baino egoera hobea badute ere, **Miquel Strubell** irakasleak Kike Amonarrizi aitortu dionez, oraindik hiru eremutan **lan gogorra** daukate: **justizia** administrazioan, **arlosozioekonomikoan** eta azken urteetan Kataluniak jaso dituen **etorkinekin**. Hiru alor horietan gaztelania gailentzen zaio katalanari, antza.

Miquel-en anaia **Toni Strubell filologo** eta politikariaren hitzetan, berriz, euskararen eta katalanaren arteko **ezberdintasun** nabariena da "Euskal Herrian oso bisiblea dela **euskararen aldeko mugimendua**". Euskararen aldeko jaiak eta ekimenak ugariak dira urte guztian zehar eta hori Katalunian ez omen da gertatzen; agian katalana oso hedatuta dagoelako eta nagusi delako hezkuntzan.



Tonik **'Un catalá entre bascos'** liburua idatzi zuen. Sortzez Oxfordekoa da, baina ama katalana zuen, Gerra Zibilaren garaian ihes egindako familia bateko alaba. Eta euskaraz ere primeran aritzen da denboraldi luze bat eman zuelako Bidasoa bailaran bizitzen.



Toni eta Donostian bizi den bere seme **Xabier Strubell kulturen arteko nahasketa** horren adibide dira. Xabierren hitzetan “ispilu bat egon da beti bi herrien artean”, asko begiratu izan diogu elkarri eta horrek bi herrien arteko loturak ere handitu izan ditu. Asko dira hemen denboraldi bat pasatako katalanak edo han bizi izandako euskaldunak.

Eta lotura horrez gainera, posible da Euskal Herrian katalana ikastea eta baita han euskara ikastea ere. **Bartzelonako hizkuntza eskolan** adibidez, **300 lagun** inguru ari dira euskara ikasten.

Eta **Bartzelonako Euskal Etxean** ere badago euskara ikasteko aukera. 1979an sortu zen eta gaur egun **500 bazkide** inguru ditu, erdiak euskaldunak eta erdiak katalanak. Euren helburu nagusia **euskal kultura Katalunian ezagutaraztea** da eta horretarako kultur ekitaldi ugari antolatzen dituzte: Euskal Herria Sona musika jaialdia, euskal zinema bultzatzeko proiektzioak, Literalia...



Funtzio berbera dauka Donostiako **Espai Catalunya** topalekuak. Erakunde ofiziala da eta jatetxea ere badu. **Katalan eskolak** ematen dituzte, haurrentzako ekitaldiak antolatzen dituzte, Donostiako hainbat **kultur ekimenetan** parte hartzen dute, calçotadak egiten dituzte... Kataluniako kultura donostiarrei gerturatzen diete. Eta oso harrera ona du Cristina Lagè bertako lehendakariaren hitzetan; izan ere, **300 bazkide** ditu gaur egun eta horietako asko euskaldunak dira.

ere, **300 bazkide** ditu gaur egun eta horietako

15. HAU DUNK UMOREA

Euskaraz ba al dago umorerik?

Umorea gai hartuta ibili da aste honetan **'Tribuaren Berbak'** ETB1eko saioa. Herrialde eta hizkuntza ezberdinetan umorea ezberdina ote den jakin nahi izan du Kike Amonarrizek gidatzen saioak.



Lehendabizi, umorea zer den argitu behar dela eta, umoreari buruz tesia egiten ari den Uxo Anduagarekin hitz egin du. **Umorearen ezaugarriak** hiru direla argitu du Uxoak. Lehendabizi fenomeno soziala izan behar du (arraroa da pertsona bat bakarrik, bestelako arrazoirik gabe, barre egiten ikustea). Bestetik, hauslea izan behar du; hau da, normala denaren eta ez denaren arteko haustura suposatzen du umoreak. Eta azkenik, umoreak

atsegingarria izan behar du, bestela ez baita umorea.

Bestalde, umorea egitean ohikoa izaten da **norberaren taldea normala** edo orekatua dela iradokitzea; eta besteen taldeak normalak ez direla adierazten da. Hala gertatzen da hainbat talde sozialei buruzko txisteak egiten direnean; hala nola, bilbotarrei buruzkoak, *giputxiei* buruzkoak, baserritarrei buruzkoak, Lepekoei buruzkoak, eta abar.

Horri lotuta, **euskaldunok serioak** garela esaten da normalean. Eta Uxoaren hitzetan **XIX. mendean Espainian euskaldunei buruz sortu zituzten txisteei** esker da irudi hori, hein batean. Baina orokorrean ez da horrela eta horren adibide dira inauteriak edo bertsolaritzako pasarte asko adibidez.

Tradiziozko euskal umorearen adibideetako bat **Pernando Amezketarra** dugu. Milaka pasarte barregarri utzi zituen 1764an Amezketan jaio zen Fernando Bengoetxea Altunak. Ahoz aho transmititu ziren Gregorio Mujikak jaso eta idatzi zituen arte. Euskal umorearen antologian gordeta daude, baina tamalez euskal literaturan ez dugu horrelako adibide asko.

Bertsolaritzan ere asko jokatu izan da umorearekin. Lazkao Txiki, Mattin, Mitxelena bezalako bertsolarietan umorea finkatu zela adierazi dio Kike Amonarrizi **Xebastian Lizasok**. Eta gaur egun galtzen ari ote den galdetuta, Xebastianek dio gizartean, orokorrean, hizkuntza ohiturak aldatzen ari direla. Alegia, duela urte batzuk, herri txikietan ohikoa zen elkarri minik egin gabe umore ukituarekin adarra jotzea eta gaur egun galtzen ari dela hori. Baina oraindik ere bertsolaritzan esanahi biko hitzak, ziriak eta adarra jotzeak badutela bere lekua.





Gaur egun, **telebista saioetan eta antzerkian umorea euskaraz** egiten da eta horren eragileetako bi dira Aitziber Garmendia eta Iker Galartza. '**Kontrako Eztarria**', 'Hau ez da Finlandia' eta 'Wazemank' saioetan, adibidez, presentzia handia du edota izan du umoreak. Baita antzerkian ere: '**Ondoko hilobiko gizona**' antzezlanarekin batera eta bestera dabilta. Txiki txikitatik 'pailazokerietan eta tontoarena egiten'

aritu izan direla esaten dute biek. Eta euren antzezlanetan baten bat barrezka hasi eta mareatu edo konorterik gabe gelditu izan dela ere aitortu diote Kike Amonarri.

Baina orokorrean, **barre egitea osasunarentzako oso ona** dela frogatu du 'Tribuaren Berbak' saioak. Felix Zubia medikuaren hitzetan honako onura hauek ekartzen ditu: **tentsioa** jaisten du, **bihotzari** on egiten dio, **giharrek** indartzen ditu (abdominalak egitea bezalakoa da), **defentsak** indartzen ditu (infekzioen aurka eragiten du) eta gaixotasun auto-inmuneentzat ere osasungarria da.



Beraz, egin dezagun barre, zeren eta **barre egiteak bizitza luzatzen** omen du edota, gutxienez, biziko ditugun egunak kalitate handiagoz bizi ditzagun lortuko dugu.

16. GELATIK KALERA

Euskarak aisialdi egitasmoetara irten behar du

Euskararen inguruan egindako ikerketek esaten digute euskararen ezagutza hazten ari dela, haur eta gazteengan bereziki. Baina ingurura begiratuta, sarri entzuten ditugu gaztetxoak erdaraz kalean. Fenomeno hori aztertu du aste honetan Kike Amonarrizek gidatzen duen **'Tribuaren Berbak'** saioak. **Eskolan haur gehienek euskaraz** ikasten badute, **zergatik ez** ditugu **kalean** horiek denak euskaraz aditzen?



Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak egindako **Arrue ikerketa** eskuetan hartuta hasi du ibilbidea ETB1eko saioak. **Pablo Suberbiola soziologoarekin** aztertu dituzte ikerketa honetatik ateratako datuak eta lehendabiziko datua da EAEko Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleen **%60 euskaraz** mintzatzen dela gelan ikaskideekin.

Haur horiei etxean nola aritzen dien galdetuz gero, %20k erantzun zuten euskaraz aritzen direla eta, lagunekin txateatu zuten azken aldia galdetuta, %26k erantzun zuten euskaraz izan zela.

Beraz, adin horretako gaztetxoek eskolan gehiago egiten dute euskaraz kalean baino. Gainera, adinean gora eginda, gelan euskaraz aritzen diren gazteen portzentajeak behera egiten du; 13-14 urtekoen artean adibidez %29k egiten du euskaraz eskolan.

Ondorioz, Suberbiolaren hitzetan eskolak eremu babestu bat ematen die haur eta gazteei bertan euskaraz aritzeko, baina kanpora irteteen bakoitzak inguruan gehien erabiltzen den hizkuntzari heltzen dio.

Euskararen erabilera sustatu nahi baldin bada, **komenigarria da gazteen aisialdiko ekintzetan** eragitea. Eta hala egin dute hainbat herritako euskara zerbitzuetan eta euskara elkarteetan. Adibide bat **Arrasateko**

Txatxilipurdi elkartekoa da. Aisialdirako ekimenak antolatzen dituzte: ludotekek, udalekuak... Alde batetik, kalera atera dituzte



egitasmo horiek, gazteek **euskara leku itxiekin erlazionatu ez** dezaten. Eta bestetik, **gazteei eurei hitza** eman diete. Herriko plaza batean zer egin zitekeen gazteek eurek erabaki zuten eta erabakitakoa martxan jarri zuten. Hori guztia euskaraz.

Lasarteko euskara zerbitzuan ere aspaldi ikasi zuten euskara aisialdi guneetan bultzatu behar dela, erabilera zabaldu dadin. Eta eman ditu fruituak; izan ere, dituzten datuen

arabera 1986an %43 zen euskaraz ongi aritzeko gai eta gaur egun %86ra igo da kopuru hori. Martxan jarritako ekimenetako bat **Kuadrilategi** da. Gazteentzako aisialdiko ekintzak antolatzen dituzte, baina koadrilan eman behar dute izena, taldean hartu behar dute parte. Eta horrela, koadrilako hizkuntza ohituretan eragitea dute helburu.



Azkenik, Sarako Gozatuz bizi ekimenaren berri ere eman dute 'Tribuaren Berbak' saioan. Guraso eta haurrek aisialdi denbora elkarrekin eta euskaraz pasatzea du helburu egitasmo honek.

Izan ere, **haurrak imitatzaile** bikainak dira. Helduok egiten duguna errepikatzen dute etengabe, baita hizkuntza ohiturei dagokionean ere. Horregatik gure haurrek euskara erabili dezatela nahi badugu, **helduok hasi behar dugu** hizkuntzaren aldeko hautua egiten.

Hori argi dute Real Sociedad futbol taldean ere. Badakite haurren eta gazteen eredu direla eta balore asko zabaltzen dituztela, baita hizkuntza ohitura ere.



Taldean erdia inguru euskaldunak dira, entrenatzailearengandik hasita. Hori dela eta, naturala da **euskaraz aritzea Realeko jokalarientzat**, nahiz eta euskaldunak ez direnekin erdaraz egiten duten. Eta horrela, euskaraz, agertzen dira jarraitzaileen aurrean ere.

Gainera, badakite euskarak **bestelako abantailak** ere badituela kanpoko taldeen aurka ari direnean batik bat. Etsaiek normalean ez dute ulertzen elkarri esaten diotena eta jokaldia komunikatzerakoan ondo etortzen zaie.

Jon Ansotegik dioen bezala **alor guztietan bizi daiteke euskaraz**. Erabiltzea da egin behar den bakarra.

17. NAFARROA ARRAGOA

Nafarroako euskararen egoera aztertuz

Euskarak Nafarroan bizi duen egoera aztertu du 'Tribuaren Berbak' saioak aste honetan ETB1en. Datuak orokorrean hartuta, gaur egun, **Nafarroan 645 mila biztanle bizi dira eta horietatik %12 dira euskaldunak.**



Baina egoera ongi ulertzeko, lehenik eta behin, legeari begiratu diote Kike Amonarrizek gidatzen duen saioan. Izan ere, 1986ko Euskararen Foru Legeak Nafarroa **hiru eremu linguistikotan** banatu zuen:

- Eremu euskaldunean euskara hizkuntza ofiziala da, eta biztanleriaren % 59 da elebiduna.
- Eremu mistoan euskara ez da ofiziala, baina hainbat eskubide ditu. Bertako biztanleriaren % 10 elebiduna da.
- Eta eremu ez-euskaldunean euskara ez da ofiziala eta ez du inolako eskubiderik. Biztanleriaren %2 bakarrik da elebiduna.

Horrez gainera, Nafarroako **eskoletan zortzi hizkuntza eredu** daudela gogorarazi behar da. Duela gutxi arte ohikoak ziren lau ereduak:

- A eredu: Irakaskuntza gaztelaniaz da eta euskara eta ingelesa irakasgai ditu.
- B eredu: Zikloaren arabera, gai batzuk euskaraz ematen dira eta beste batzuk gaztelaniaz. Ingelesa irakasgai bezala ematen da.
- D eredu: Irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelania eta ingeleseko irakasgaiak izan ezik.
- G eredu: Ez da euskara ematen.

Hauetaz gainera, ingelesa bultzatzeko asmoarekin, azken ikasturteetan sortu dituzten beste lau ereduak: British, TIL, TIL-A eta TIL-D. Hauetan, ereduaren arabera, ikasketen portzentaje bat ingelesez egiten da.

Egoera honek eragina du noski, euskararen irakaskuntzan eta hedapenean. **Paula Kasaresekin, Iruritako** euskara teknikariarekin, **eremu euskaldunaren egoerari** buruz aritu da Kike. Berak azaldu duenez, **eremu euskaldunean Nafarroako biztanleen %10** inguru bizi da. Orokorrean herri txikiak dira, 10.000 biztanlera iristen ez direnak, eta gehienek 1.000 biztanletik behera dituzte.



Horrez gainera, errealitate soziolinguistiko ezberdinak dituzten herriak direla dio. Batzuetan biztanleriaren %100 da euskalduna eta beste batzuetan portzentaje hori askoz txikiagoa da. Hala ere, azken urte hauetan, orokorrean, euskararen egoerak hobera egin duela aitortzen du.

Tokiko administrazioan eta hezkuntzan euskara nahikoa bermatuta badute ere, gabezien artean aipatu ditu osasun arloan eta merkataritzan hizkuntzak duen egoera.

Eremu mistora salto eginez, Erronkarin egin du geldialdia saioak. Han, duela hamarkada batzuk, **erronkarieraz** hitz egiten zen. Baina, 1991. urtean, Fidela Bernat erronkarieraz ziharduen azken hiztuna hil zenean, haren euskalkia ere desagertu egin zen. Hala ere, euskara ez da Erronkaritik desagertu, justu kontrakoa, azken urteotan indarberritu egin da.

Euskarak eremu mistoan orokorrean daukan egoera ikertzeko **Koldo Colomoren**ekin, **Gareseko teknikariarekin** aritu dira hizketan. Bere hitzetan, eremu misto osoan antzerakoa da egoera. Legeari dagokionez, inguru honetan euskara ez da ofiziala, baina euskal hiztunek badituzte **eskubide batzuk**: euskaraz ikasi ahal izatea edota administrazioarekin hizkuntza hori erabili ahal izatea. Ondoren, neurri batean betetzen dira eskubide horiek, askotan, administrazioak dituen baliabideen arabera.



Konkretuki Gareseko euskarari buruz galdetuta, oster, **XIX. mende erdian galdu** zela familiako transmisioa dio Colomok, nahiz eta XX. mende hasieran euskaldun nagusiren bat topatu zitekeen Obanosen edo Utergan, adibidez. Horrez gainera, euskararen arrasto ugari, hitz ugari, gelditu dira erdaraz hitz egitean ere: zaborra, bigurria, hondarra, laia, area...



Amaitzeko, **eremu ez euskaldunean** 157 udalerrri daude. **Lodosako** Ibaialde ikastolako **Itziar Aizpeolea eta Arantxa Ariz** irakasleek azaldu diote 'Tribuaren Berbak' saioari inguru hartako egoera. Euskaraz **ikasteari** dagokionez, **ikastolan soilik** dago aukera hori. Eskola publikoetan B eredia ematen dute, baina ez omen da haur asko joaten. Eta DBHra iristen direnean Lizarra aldera jotzea beste erremediorik ez dute izango. Euren ikastolan, adibidez, 62 ikasle dituzte eta zazpi herritatik joaten dira haurrak ikastera: Lodosa, Mendabia, Sartaguda, Andosilla, San Adrian, Pradejón (Errioxa) eta Alcanadre (Errioxa).

Kaleetan, aldiz, euskara gutxi entzuten den arren, gero eta espazio gehiago egiten dela diote. Eta horrek aurrera jarraitzeko ilusioa ematen omen die.

Hizkuntza eremuak alde batera utzita, euskararen aldeko mugimendu ugari daude Nafarroan ere. Euskalerrria Irratia da horietako bat. Euskara hutsean emititzen dute 91.4an eta, **Juan Kruz Lakasta** kazetariak kontatu duenez, lizentziak berritzeko arazoak izan dituen arren, eta Nafarroako Gobernuaren aldetik diru-laguntzarik jasotzen ez duen arren, aurrera jarraitzen dute.



18. ADI, FILMATZEN, EGIN!

Ze tamaina du euskarazko zinemagintzak?

Euskarazko zinema hartu du ardatz aste honetan ETB1eko **'Tribuaren Berbak'** saioak. Azken urte hauetan dozenaka film luze, labur, dokumental eta animaziozko egin dira euskaraz, baina duela urte batzuk lehortea ere izan zen alor honetan.

Urteetan atzera eginda ordea, duela gutxi arte uste izan da euskarazko lehen filma Gotzon Elortzak 1959an egindako **'Ereagatik Matxitxakora'** dokumentala zela. Baina joan zen urtean, Pariseko ganbara batean, **1956an André Madré jeneralak zuzendutako 'Gure Sor Lekua'** dokumental desagertua aurkitu zuen Josu Martinezek eta hau da orain **euskarazko filmik zaharrena**.



Miren Manias, EHUko ikerlariarekin aritu da **euskarazko zinemaren historiari** buruz Kike Amonarriz. Bere hitzetan lehendabiziko aldiz 1933 inguruan entzun zen euskara apur bat film batean; Teodoro Hernandorenaren **'Euzkadi'** lanean adibidez. Gero etorri ziren **'Gure Sorlekua'**, Gotzon Elortzaren lanak, Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxearen

'Amalur' eta Antxon Ezeizaren **'Ikuska'** bilduma.

80ko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzak zinemagintzarako lehen diru-laguntzak eman zituen eta garai hartan euskal ekoizpena asko hazi zen. **43 film luze** egin ziren hamar urtetan. 90ko hamarkadan ordea, krisia egon zen; administrazioa eta ekoizleen artean tirabirak egon ziren eta euskarazko zinemagintzak geldialdia izan zuen. Azkenik, 2000. urtetik aurrera loraldi berri bat ikusi dugu.

Denetik egin da azken hamarkada honetan: film laburrak, luzeak, dokumentalak, animazioa... Baina **fikziozko film luzeak**, adibidez 80ko hamarkadan baino gutxiago izan dira, **16 soilik**. Izan ere, film luze bat ekoiztea ekonomikoki ez da erraza, gastua handia da eta, horren ondorioz, euskal zinema aretoetan proiektatuz soilik oso **zaila da errentagarria** izatera iristea.

Hori horrela, oso lan handia egiten dute Lekeitioko Euskal Zine Bilera edota Hazparneko Zinegin Festibala bezalako jaialdiek.

Historian **gehien ikusi den euskarazko filma** **'Aupa Etxebeste'**, Telmo Esnal eta Asier Altunak zuzendu zutena izan da. 70 mila ikusle gerturatu ziren zinema-aretoetara. Urte askoren ondoren, euskaraz egindako lehen filma izan zen. Telmoren eta Asierren iritziz euskarazko zinemaren **erronkanagusietako bat, gure filmak kanpora ateratzea** izango da. Izan ere, Euskal Herria herri txikia da eta soilik bertan ikusgai egonda, **zaila da filmek irabaziak ematea**.



Ikuspegi horretatik begiratuta, **historia interesgarriak** kontatzea dela kontua diote bi zuzendariak eta horretarako **modu naturalean** ondoen datorkien hizkuntza erabiltzea.

Horrekin lotuta, **euskalkiak erabiltzeak** daukan garrantzia aipatu dute; ikusleenganako gertatutasuna lortzen dela horrekin irizten diote.

Film luze bat egiteak dituen kostuak zeintzuk diren jakiteko, egunotan gure herri eta hirietan grabatzen ari diren **'Lasa eta Zabala' filmeko ekoizlearengana**, *Joxe Portelarengana*, jo du Kike Amonarrizek. Ideia bat egiteko, pelikula honetan, esate baterako, 60 aktore inguruk, figurante pila batek eta 50 laguneko talde teknikoak hartu du parte. Jende hori guztia Euskal Herriko hainbat herritara mugituko da zazpi astez, sekuentzia bakoitzari dagokion lekuan grabatu ahal izateko. Produkzio garaiko gastuak, beraz, ez dira makalak.

Portelak kontatu duenez, duela zortzi urte inguru, akordio bat sinatu zuten ETBk eta zinema-ekoizleek, eta finantziazio horri esker, urtean bi pelikula egiten dira gaur egun.

Hizkuntzei buruz galdetuta, 'Lasa eta Zabala'-ren kasuan ere, errealismoa eta naturaltasuna bilatu nahi izan dituzte eta **bai euskara bai gaztelera** erabiltzen ari dira. Alde batetik, Joxi eta Joxeanen familia eta lagunak giroa euskalduna da eta hala erakutsiko du filmak; eta bestetik Intxaurrenondoko kuarteleko edo epaiketako hizkuntza gaztelania izango da.



Animaziozko zinema da euskal zinemaren barruan emaitza gehien ematen ari dena, "industria" deitu dezakeguna. Urtero eskaintza berri egiten da, eta gainera "Gartxot" bezalako filmek ikusleengana iristea lortzen dute. Juanba Berasategiren **"Kalabaza Tripontzia"** izan zen aitzindaria eta ondoren etorri dira "Blackie eta Kanuto", "Haritzaren bihotza", "Ipar haizearen erronka", **"Adar Txikiaren kondaira"**...

2015ean adibidez, **Juanjo Elordiren 'Pixi Post'** ikusi ahal izango dugu. Alemaniako ekoiztetxe batekin koprodukzioan egindako lana izango da eta, horri eskerrak, Euskal Herriko mugetatik kanpora ateratzeko ere erraztasun handiagoak izango ditu. Istorioa euskaraz idatzi zutela lehendabizi kontatu dio ETB1eko saioari eta ondoren ingelesera itzuli zutela koprodukziorako lankide bila aritzeko.

Animazioan askotan egiten da lan **beste herrialde batzuetako ekoiztetxeekin**. Juanjo Elordiren Yoko izeneko telesailean adibidez, errusiarrek, katalanak, euskaldunak, amerikarrak eta abar daude lanean. Lehendabizi bakoitzak bere hizkuntzan idazten du gidoia eta ondoren ingelesera itzultzen dute denen artean adostasun batera iristeko.

Zinemagintzaren beste negozio unitate bat bikoizketarena da. Baina **bikoizketa eta azpi-idatziei buruz eztabaida** handia dago gizartean: Batzuk euskara hizkuntza bezala bultzatzeko ahalik eta film gehienak bikoiztu behar direla diote. Besteek ordea, ekonomia arrazoiak argudiatuz (merkeagoa baita azpi-idaztea bikoiztea baino) eta hizkuntzak ikasteko aukerak aipatuz azpi-idatzia nahiago dituzte.

Eta **film laburren mundua** ere aipatu behar dugu. Kasu honetan, dirua behar bada ere, askoz merkeagoa da produktu bat ekoiztea, hori dela eta, sortzen den film laburren zenbakia askoz altuagoa da. Joxean's Hileben zombien filma ekoizteko 700 euro behar izan dira efektu bereziak barne.

Euskarazko zinemagintzak muga estuak dituela jakin arren, era guztietako historiak gure hizkuntzan kontatzen eta ikusten jarraitu nahi genuke. Horretarako, ekoizpenak ahalbidetuko dituzten baldintzez gain, ikusle bultzada ezinbestekoa izango da.

19. ITSU, GOR, BAINA EZ MUTU

Nola komunikatu gaitezke gorrekin eta itsuekin?

Gorrek eta itsuek erabiltzen dituzten hizkuntzak izan ditu hizpide aste honetan ETB1eko “**Tribuaren Berbak**” saioak eta horiek euskararekin duten harremana aztertzen aritu dira. **Zeinuen hizkuntza eta braille alfabetoa** gure inguruan zenbat erabiltzen den edota erabili daitekeen azaldu ditu Kike Amonarrirek gidatutako saioak.

Zeinu hizkuntzekin hasita, ba al dakizue AEBtako jatorrizko biztanleek, indiar amerikarrek, aspalditik hizkuntza mota hau erabiltzen zutela tribu ezberdinetako biztanleen artean komunikatzeko? Izan ere, zeinu hizkuntzak ahozkoak bezain zaharrak dira.

Gaur egun entzumen urritasuna daukaten pertsonak erabiltzen dituzte gehien bat hizkuntza hauek. Munduan entzumen urritasuna duten 360 milioi pertsona daude; hau da, biztanleriaren %5a baino gehiago dira.



Agurtzane Urteaga eta Iñaki Orbegozorekin hizketan, gorrek dituzten arazoez jabetu da Kike Amonarri. Horietako batek ikasi dituzten hizkuntzekin dago lotuta. Garai batean, **gorrak ziren haur askori hizkuntza bakarra** erakusten zieten (gaztelania Hego Euskal Herriko kasuan), zituzten zailtasunengatik bi hizkuntza ikastea ezinezkoa izango zitzaieela sinetsita. Hori dela eta, 40 urtetik

gorako gor askok, etxean giro euskalduna izanda ere, erdaraz soilik irakurri ditzakete ezpainak.

Gaur egun, joera hori aldatu egin da, entzuteko zailtasunak dituzten haurrak besteak bezala eskolatzen dira, eta ahal dituzten hizkuntza guztiak ikasten dituzte. Horrez gainera, zeinuen hizkuntzak ere ikasten dituzte.

Atzerriko hainbat herrialdetan, **zeinu hizkuntzak gizartean** oso hedatuta daude; Baliko Bengkalan, Kolonbian, Brasilen eta Ghanan adibidez. Ainhoa Moia, zeinu hizkuntzako irakasleak azaldu duenez, hainbat herritan gor kopuru handia izan denez, normaltasun osoz erabiltzen dituzte zeinu hizkuntzak.

Horrez gainera, mundu osoan **ehun zeinu hizkuntza baino gehiago** daudela ere azaldu du; datua zehazki jakiterik ez badago ere, horietako batzuk oraindik ez direlako ikertu edo aurkitu. Hala ere, nazioarteko komunikazioetarako zeinu sistema bat sortu zela argitu digu. **Eta Euskal Herriko zeinu hizkuntza** Espainian erabiltzen denaren aldaera bat dela jakinarazi digu.



Itsuen egoerari begiratuta, euren hizkuntza zailtasun handienak komunikazio idatzia edo bisualari dagozkionak dira. Hori hobetzeko Louis Braille itsu frantziarrak **Braille alfabetoa** sortu zuten 1821ean eta mundu osora zabaldu da. Brailleak sei puntu erabiltzen ditu 64 konbinazio desberdin sortzeko eta horiekin edozer gauza komunikatu daiteke.



Itsuek gure gizartean gaur egun dituzten zailtasunei buruz, Manu Agirrerekin hitz egin du Kike Amonarrizek. 2005ean **gose greba** egin zuen Manuk euskarazko **liburuak braillez irakurtzeko eskubidearen alde**. Orduetik, euskarazko hainbat liburu eta egunerokoan jasotzen ditugun mezu idatzi asko braille alfabetoan jartzea lortu da. Baina oraindik ere

gabezia nagusi bat ikusten du Manuk: “eskubideak erakunde publikoek” bermatzea, alegia. Esate baterako, braillean idatzitako liburuak edozein liburutegitan eskuratu behar liratekeela irizten dio, ez erakunde pribatu bateko partaidea izanda soilik.

ONCE erakundeak **euskarazko 600 liburu braille**alfabetoan jarri ditu azken urteetan. Inma Arrietak, ONCEko liburutegiko kudeatzaileak, azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzarekin daukaten akordio bati esker 50 liburu inguru argitaratzen dira urtero hizkuntza honetan. Eta beste hainbeste audio-liburu argitaratzen dituzte.

Baina ez da liburuaren beharra itsuek duten bakarra. Egunero ehunka mezu idatzi jasotzen ditugu: kale eta eraikinetako kartelak, igogailuetako botoiak, erosketak egiten ditugunean produktuen informazioa... Eta **dena ez dago braillez** jarrita, beraz, itsuak direnek zailtasun ugari izaten dituzte eguneroko zereginetan. Braillez idatzitako testu luzeak ongi ikasteko, gainera, urte eta erdi edo bi urte behar direla esan digu ONCEko Amaia Zalakain irakasleak.

Gorrekin eta itsuekin hobeto komunikatzeko beste hizkuntza eta alfabeto batzuk badaudela ikasi dugu ‘Tribuaren Berbak’ saioaren atal honetan. Horiek gizartean zabalduz eta ezagutu araziz gizarte aberatsagoa lortuko dugu.

20. BIBA XIBERUA!



Zuberoa Euskal Herriko herrialderik txikiena da. **14.000 pertsona** inguru biltzen ditu, eta hiru eskualdetan banaturik dago: Pettarra, Arbaila eta Basabürüa. 36 urdalerriz osaturik dago eta 3.000 biztanle dituen **Maule** da hiriburua.

Argitxu Camusek, saioko berriemaileak, Zuberoan euskararen egoera zein den azalduko dio Kikeri. Biztanleriaren erdia euskalduna da, baina hiztunen artean desorekak nabari dira. Izan ere, **65 urtez gorakoen hiru laurdenak** euskaldunak dira, baina **16-24 urte bitarteko herenak** baino ez du euskara ezagutzen.



Eskiulan ere izan da Kike. Biarnoko administraziopean dagoen herri euskaldunean, hain zuzen. Han, Jeruntzen bezala, badira euskaldunak. **Henry Castillon** da horietako bat. Hura, euskalduna da, etxean ikasi zuen euskaraz, 40 urtez gorakoen antzera. Haren esanetan, gauzak aldatzen ari dira, eta euskara atzerantz doa. **Eskiulako eskolan**, Mixel Etxekopar musikariaren eskutik, ikasleek euskaraz abestuz egin diote ongietorria Kikeri.



Maulen Jean-Baptiste Coyos euskaltzainarekin izan da Kike. Coyosek **zubereraren zenbait ezaugarri** aipatu ditu saioan, hala nola: **Fonetika, lexikoa, aditza, azentua...** Halaber, zubererazko hiztegi ttipi bat ere eskaini du: **Haboro = gehiago, neskenegüna = larunbata, prefosta = noski**. Zubereraren eta euskara batuaren arteko harremanaz ere mintzatu zaigu.

Xiberuko Botza irratia bisitatu du Kike Amonarrizek. **Artzen Letona** esatariak Zuberoako hedabideen egoeraren berri eman dio. Maleruski, euskaraz (zubereraz, hain zuzen) egiten duen hedabide bakarra da irratia hau eta frantses hedabideekin lehiatzea ez da lan erraza. Gazteen egoera ere izan du hizpide Letonak, eta hauek euskarara lotzeko egiten diren ekintzak.

Jean-Jacques Etxeveryk Zuberoako egoera sozio-ekonomikoaz hitz egin dio Kikeri. Garai batean, Maulen espartingintza zen nagusi, garaiotan berriz, eraikuntza, laborantza... azkartzen ari dira. Etxeveryren esanetan **euskarak gero eta presentzia gehigo du lan arloan.**



Migrazioak garrantzi berezia izan du Zuberoan. Italiarrak, aragoiarrak, portugesak jaso ditu Zuberoak, eta jaso bezala, eman ere, eman ditu zuberotarrak mundura, zuberotar ugarik utzi baitu herrialdea. Askok **Uruguai** izan zuten harrera-herri. **Carlos Costa**, uruguaiarra da, baina amona zuberotarra zuen. Uruguain ikasi du zuberera eta harekin hitz egin du Kikek skype bidez.



Zuberoa hizpide, ezin aipatu gabe utzi **pastoral** eta **maskaradak**. **Xantiana Etchebest** gazteak ikuskizun hauen berri eman dio Kikeri, izan ere gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute hauetan. Halaber, Zuberoako kultur bizitza zein den jakin dugu bere eskutik.

21. EUSKARA 2039. URTEAN

Zein izango da euskararen egoera 2039an?

Hemendik 25 urtera euskarak izango duen egoeraz aritu dira “**Tribuaren Berbak**” saioan. Etorkizunean **osasun ona** edukiko du **edo makal xamar** ibiliko da? Hurrengo belaunaldiak nola biziko du? Ze erabilpen emango dio? Galdera horiei erantzuten saiatu dira.



Orioko Maria Maestra haur eskolan izan da Kike Amonarriz. Bertan, ume txikiak dituzten **gurasoen iritziak** jaso ditu. Guraso gehienen ustez, hemendik 25 urtera haurrek **hiru hizkuntza jakingo dituzte gutxienez**; euskara, erdara eta ingelesa, nahiz eta beraien ohiko hizkuntza euskara izan.

Euskararen etorkizunaz eta erronkez hitz egiteko **Iñaki Martinez de Luna soziolinguistarengana** jo du Kikek. Iñakiren ustez, 2039an **1.200.000 euskaldun** egongo dira eta gainera, **erabilera maila areagotuko** da. Etorkinek ekarpen polita egingo diote euskarari, azken finean, etorkinek bilatzen dutena gizartean txertatzea da eta hizkuntza lagungarria izango zaie. Gaur egun, gizartearen %33 euskalduna da eta, hemendik 25 urtera, **erdia izatera iritsiko** garela esan digu. Geografikoki homogeneotasunerantz joko dela uste du Martinez de Lunak.

Patxi Baztarrika, Lurdes Auzmendi eta Zigor Etxeburua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, sailburuorde ohia eta Gipuzkoako Euskara zuzendaria hurrenez hurren, euskararen botilaren inguruan bilduta euren hausnarketa eskaini dute. **Baztarrikak** betea eta betetzen ikusten du botila. Betetzen jarraitu edo ez, haiek, herritarrek eta oso bereziki euskaldunek egiten dutenaren esku dagoela adierazi du.



Etxeburuaren arabera, euskararen egoera zein den jakitea garrantzitsuena da, baina, edonola, behar duguna, hori betetzeko ahalmena da. **Auzmendik** ere erdi betea ikusten du. Hor daude euskara ikasi dutenak, euskal hedabideak, milaka langile eta guztiekin botila hori betetzen jarraitu behar da. Nahi izanez gero, botila betetzea lortu dezakegula adierazi du.

Bestalde, **Karmelo Ayestak, Goza daiteke gehiago: euskaldun baten hizkuntza-bidaia** liburuaren egileak, **ez du euskara arriskuan ikusten**. Etorkizunean euskara, gaur egun, baino **askoz indartsuago** ikusten du. Bere ustez, uste faltsu asko daude euskararen inguruan. Horietako bat euskaraz hitz egiteko euskaldun perfektua izan behar dela da. Iritzi horrek kalte handia egin dio euskarari, Ayestaren arabera, **euskara txarrena eta traketsena hitz egiten ez denabaita**.

Bukatzeko, 2039an profesional izango diren **gazteekin** izan da Kike. Askok hemen eta euskaraz egin nahiko lukete lan, baina badira hala nahi dutelako, edo egoerak bultzatuta, ingelesez egingo dutela uste dutenak, baita gazteleraz edo frantsesez. Beraz, **etorkizuna eleanitz** ikusten dute.

22. JOLASEAN

Euskararekin jolas egin al daiteke?

‘Tribuaren Berbak’ saioak **euskaraz eta hitz jokoak** erabiliz jolasteko ditugun joko ezberdinak aipatu dizkigu. Ezagutzen al ditugu era honetako jokoak? Euskarazko hitz joko asko al daude? Galdera hauei erantzuten eta euskarazko hitz joko ezberdinak azaltzen saiatu dira.



Kike Amonarriz Luma aldizkarian izan da. Bertan, **Joxean Elosegirekin egon dira eta gurutzegramak nola sortzen dituzten azaldu du**. Gurutzegramak sortzeaz gain, Luma aldizkariak Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen txapelketa ere antolatzen du. Txapelketak lau proba ditu, eta maila handia eskatzen du. Gurutzegramak osatzea joko bakartia da; horregatik, ondo dago zaletasun hau

konpartitzen duen jendea biltzea. Urtean behin bakarrik bada ere, txapelketak aukera hau eskaintzen du.

1938. urtean sortu zen ‘Scrabble’ hitz gurutzatuen jokoa eta oso famatua da mundu osoan. Joko honek **badauka euskarazko bertsioa ere eta ‘Euskarbel’ du izena**. Joko honi eta estilo honetako euskarazko beste joko batzuk ezagutzeko, **Urtxintxa eskolako Maite Asensio**rekin hitz egin dute. Maiteren ustez, aisialdiak garrantzi handia dauka hizkuntzaren ikasketan. Umeak txikitatik euskarazko jokoetara jolasten ohitzen badira, lagunekin euskaraz aritzeko joera hartuko dute, eta euren arteko harremana euskaraz oinarrituko da. **Urtxintxan jolas bilduma bat egin dute**, eta **‘Ele mele’** deitutako **jolas berria** ezagutu dute ‘Tribuaren Berbak’ saioan. Beste hainbat joko ere badaude eta gurasoek www.aisia.net/jolasak webgunean aurki ditzakete.



Bestalde, badago **euskarazko ehun bat hitz joko** biltzen dituen **liburu** bat ere; **‘Hitza Azti’** deitzen da. **Iñaki Arranzek idatzi du** liburuia eta Kike Amonarriz berarekin egon da. **Ehun bat hitz joko mota daude Iñaki Arranzen lan honetan**. Hainbat tokitatik atera ditu jolas hauek: liburuetatik, literaturatik, lagunaren arteko solasaldietatik... Iñakiren ustez, **joko hauek hizkuntzaren beraren baitan topa daitezke**.



Bukaeran, **euskarazko palindromoekin jolas egin dezakegula** azaldu digute 'Tribuaren Berbak' saioan. Horretarako, **Markos Gimeno** palindromogilearekin hitz egin du Kike Amonarrizek. **Palindromoak eskumatik ezkerrera nahiz ezkerretik eskumara berdin irakurtzen diren hitzak edo testu simetrikoak dira.** Markosek palindromoak sortzen ditu. Erraz ikusten

diren palindromoak daude, palindromoak direla azkar nabaritzen direnak, baina badaude konposizio lan bat dutenak, luzeagoak direnak edo esaldiak direnak. Palindromo bat sortzeko, hitz batetik abiatu behar gara eta hitz horri buelta eman. Ondoren, erdian edo alboetan hitzak gehitzen joan gaitezke hitza bi aldeetarantz berdin irakurtzen den arte. **Markos Gimeno**k **palindromo ariketak biltzen dituen bloga du: www.zerorajaso.com.** Palindromo bat ezkutatzen du, eta jendeak palindromo hori bilatu behar du. Palindromo tailerrak ere eskaintzen ditu Markosek euskaltegietan edo eskoletan eta laster, **131 palindromo ariketa bilduko dituen liburua** aurkeztuko du.

23. KANPOKO ETA BERTOKO

Nola gerturatu etorkinak euskarara?

Etorkinek euskararekin daukaten harremana ikertu du aste honetan ETB1eko **'Tribuaren Berbak'** saioak; guregana datozenek euskara nola jasotzen duten eta euskarara nola gerturatu ditzakegun jakiten, hain zuzen ere. Eta ongi-etorri goxoa eginez, gure hizkuntza hobeto hartzen dutela ondorioztatu du.



Hego Euskal Herrian 285.000 etorkin inguru bizi da gaur egun, biztanleriaren %7,3. Euskal Autonomia Erkidegoan, esate baterako, 58 mila amerikar, 41 mila europar, 37 mila afrikar, 12 mila asiarrak, 121 ozeaniar eta 30 aberriar bizi dira.

Horiek guztiek euskara bere egin dezaten, **eskolak paper garrantzitsua** jokatzeko duela iritzien dio Amelia Barquin HUHEZiko irakaslea. Orain arte bezala, kanpotik datozkigun ume horiei **harrera ona** egin, **"karinoz hartu"**, eta **bertakoei ematen zaizkien aukera berberak** ematen jarraitu behar duela aurrerantzean ere dio Barquinek.

Eta era berean, **haur bakoitzaren egoera ulertzen** eta, behar denean, goxatzen saiatzea ere garrantzitsua da. Izan ere, lehen aldiz gure eskoletara iristen diren etorkinen egoerak oso ezberdinak dira: batzuk txikiak dira, besteak dagoeneko helduagoak, batzuk ikasturte hasieran datoz, besteak ikasturtea aurreratua dagoenean, kasu batzuetan familiek arazo juridikoak izan ditzakete... Horrek guztiak estresa eta egonezina sor dezake gaztetxoengan, beraz, ulertzea eta laguntzea ezinbestekoak dira gizartean integratu daitezen, baita hizkuntzari dagokionean ere.



Eta ez eskoletan bakarrik. **Xabier Mendigurenek EH 11 Kolore elkarte**ko **ordezkariak** ere gauza berbera aipatzen du. Gure ongi-etorria eta abegia eskainiz, errazago integratuko zaizkigu eta ulertuko dute bertako hizkuntza errealitatea. Horrekin batera, Xabierren hitzetan, euskarak guztion arteko lotarri funtzioa bete behar du eta horretarako bitartekoak behar direla dio.

Horrela bada, Eskoriatzako Udalak etorkinei euskara ezagutzeko eskura jartzen dizkien baliabideak ezagutu ditu 'Tribuaren Berbak' bertako **euskara teknikaria den Mari Carmen Arrietaren** eskutik. Txikienentzako aisialdi programak eskaintzen dituzte, bertan jaiotako haurrekin batera eta, noski, guztiak euskaraz. Horrez gainera, nerabeei apropos zuzendutako euskara eskolak ere ematen dituzte. Eta helduenentzat Topagunearekin

batera bideratzen duten Auzoko izeneko programa daukate; etorkinek eta bertakoek elkar ezagutzea ahalbideratzen dute eta gure hizkuntza errealitateaz jabetzen dira.


Eskoriatzan bertan, **Yuli Vargas kubatarra**ezagutu du Kikek. Yuliren hitzetan hona etorri zenean ez zekien euskara bazegoenik ere. Ondoren, euskara ikasten hasi zenean eta hitz egiten saiatzen zenean, **euskaldun askok erdarara jotzen** genuela konturatzen zen eta ezin zuen euskara nahi adina erabili, batik bat trabatzen zenean. Baina, ikasten jarraitu zuen eta gaur egun primeran hitz egiten du; batuaz gainera, Eskoriatzako hizkera ere ikasi du.



24. BATUA VS. EUSKALKIAK

Noiz erabili euskalkiak eta noiz euskara batua?

Euskara batua eta euskalkiak hizpide hartuta etorri da aste honetan ETB1eko **'Tribuaren Berbak'** saioa. Euskalkiak euskararen dialektoak dira, hizkuntza berean mintzatzen gara, baina aldaera ezberdinak, hitz egiteko modu ezberdinak, ditugu batzuek eta besteek.



Baina zer dira hizkuntzak eta zer dialektoak? Kike Amonarrizek gidatzen duen saioak **Lionel Joly soziolinguistarengana** jo du zalantza hau argitzeko. Lionelek argitu duenez, **hizkuntzak eta dialektoak ezberdintzeko** hainbat aldagai erabiltzen dira: **geografikoa, elkar-ulergarritasuna eta baita sozio-politikoa ere**; nahiz eta irizpide subjektiboak izan eta salbuespenak egon daitezkeen. Hala ere,


azpimarratu duenez, kasu askotan, ofizialtasuna lortzen denean onartzen da hizkuntza bat.

Euskarari dagokionez, bere **dialektoen lehendabiziko mapa** Louis-Lucien Bonapartek, Frantziako enperadore izan zen Napoleon Bonaparteren ilobak, egin zuen 1863. urtean.

Zortzi euskalki identifikatu zituen: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, hegoaldeko goi-nafarrera, iparraldeko goi-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera, mendebaleko behe-nafarrera eta zuberera.



Koldo Zuazo hizkuntzalariak mapa hori eguneratu du **euskalkien gaur egungo egoera** ikertu duenean. 25 urte daramatza Euskal Herriko leku ezberdinetako hizkerak aztertzen.



Gaur egun, Bonaparteren maparekin alderatuta, **hiru ezberdintasun nagusi** topatu ditu: alde batetik, Nafarroako ekialdean eta Iruñerri inguruan euskara galdu egin dela; bestetik, Lapurdin eta Nafarroa Beherean euskalki bakarra dagoela orain eta, azkenik, Gipuzkoako euskara zabaldu egin dela.



Euskalkiak noiz edo nola sortu ziren galdetuta, Zuazoren ustez, gaur egun erabiltzen ditugun hauek nahikoa berriak dira, **Erdi Aro ingurukoak**edo. Euskara hizkuntza zaharra denez, dialektoak beti egongo ziren, seguruenek; baina itxura batean behintzat, **Erromatarren garaia**ren ondoren euskara '**batu**' bat zegoela esan daiteke eta ondoren sortu zirela gaur egungo hizkerak.

Euskara batua, berriz, 1968 inguruan sortu zen, **Andres Urrutia** euskaltzainburuak 'Tribuaren Berbak' saioan gogorarazi duenez. Euskaltzaindiak 50 urte bete zituen hartan, **Gabriel Arestik** aipatu omen zuen euskara moderno eta jaso bat izan nahi baldin bazen, garaia zela kode bateratu bat sortzeko. Eta halaxe egin zuten.

Urrutiaren hitzetan, **euskara batua eta euskalkiak**, guztiak, dira **beharrezko**, baina **bakoitza bere esparruan**. Familian, lagunartean eta komunikazio ez formalean euskalkiak erabiltzea da egokia. Eta, aldiz, komunikazio formalagoa eskatzen duen egoeretan batua erabiltzea gomendatzen du.



Hizkuntza maila gorenera eramatean, literaturara alegia, zer egin? **Aingeru Epaltzak, Irati Jimenezek, Itxaro Bordak eta Andu Lertxundik** euskalkiak iturri dituen euskara batuaren alde egiten dute. Hau da, euskaldun orok ulertuko dituzten testuak idaztea dute helburu, baina euskalkiek eta tokiak tokiko hizkerak eta esamoldeek hizkuntza aberatsagoa, naturalagoa, sortzen laguntzen die.

Euskalki ezberdinak entzuten ohitzea, leku bateko eta besteko hitzak eta esamoldeak ezagutzea... horrek guztiak euskarari mesede egiten dio. Horretarako, adibidez, <http://nieuskalduna.metroo.es/webguneak> ematen duen zerbitzua dugu eskuragarri. Euskal Herriko herri ugaritako pertsonekin izandako elkarrizketen bideoak eskegi dituzte bertan, edonoren esku.

Amaitzeko, ETB1eko saio honek astero ekartzen dituen bitxikeria interesgarrietako bat aipatuko dugu. Ba al dakizue **erromintxela** zer den? Bada, **euskararen gramatika eta romanieraren lexikoa** nahasten dituen hizkera da, **Euskal Herriko ijitoek** tradizioz hitz egin izan dutena. Gaur egun, tamalez, 80 urtetik gorako aitona-amona apur batzuk soilik mintzatzen dira horrela. Hona erromintxelaren hitz batzuk: pindroa (hanka), kirkilak (babarrunak) eta gilitziniak (giltzak).

25. MUNDUKO HERRIRIK EUSKALDUNENAK

Zeintzuk dira munduko herririk euskaldunenak?

Amazonia munduko birika edo arnasgunerik garrantzitsuena den moduan, hizkuntzek ere arnasguneak dituzte, hau da, erabilera handiko guneak. Ideia hau abiapuntu hartuta, euskararen arnasguneak jorratu ditu aste honetako ETB1eko **'Tribuaren Berbak'** saioak.



Horretarako, **Jon Aizpuruak**, Hizkuntz Politikarako Sailburu ordezakoa kidearengana jo dugu. Eusko Jaurlaritzak euskararen bosgarren **mapa soziolinguistikoa** argitaratu berri du. Bertan, euskarak duen egoera eta bilakaera aztertzen da, EAEko biztanleria kontutan hartuz. Azterketa honetaz eta euskara indartsuen dagoen eremuez gehiago ezagutu nahi izan du Kike Amonarrizek aurkeztzen duen saioak.

Mapa soziolinguistiko honetatik **bi ondorio** nabarmendu ditu Aizpuruak. Lehenik eta behin, **euskararen ezagutzak aurrerapen handia** egin du. EAEko euskaldunen portzentajea %22tik %36ra igaro da. Bestetik, **euskaldunen ezaugarriak ere aldatu dira**. Orain 30 urte, euskaldun gehienak helduak ziren, gune euskaldunetan bizi ziren eta euskara etxean zein eremu informalean erabiltzen zuten. Gaur egun, aldiz, euskaldun artean gero eta gazte gehiago daude, gune erdaldunetan bizi dira, eta euskara etxetik kanpo ikasi dute, eskolan zein euskaltegietan.

Gainera, emaitzen arabera **lau eremu soziolinguistiko** sailkatu dituzte: Lehena, euskaldun kopurua %20tik beherakoa duena; bigarrena, %20tik %50era bitartekoa; hirugarrena, %50tik %80rako; eta azkenik, laugarrena, %80tik gorakoa. Azken eremu honetan, EAEko herririk euskaldunenak aurkitzen dira. Guztira 62 udalerrri daude honetan, 61 Bizkaia eta Gipuzkoakoak dira, eta 1, Arabakoa:



Aramaio, hain zuzen ere. Horrela, 5.000 biztanle baino gehiagoko herrien artean **Azpeitia munduko herririk euskaldunena** dela adierazi digu Jon Aizpuruak.

Honekin lotuta, **Lea-Artibai da eskualderik euskaldunena**. Bertokoek esaten dutenaren arabera, orain garai batean baino gehiago erabiltzen da euskara. Etorkinek ere euskaraz hitz egiten dute bertan eta.



Xabier Bengoetxea euskara teknikariak ere Tolosaldeko lau herri-arnasgune ikertu zituen: Berastegi, Asteasu, Alegia eta Amezketa. Hizkuntza bat ahul dagoen herrietan hizkuntza hori indarberritzeko prozesuan, arnasguneak oso garrantzitsuak direla azpimarratu du Bengoetxeak. Azken finean, daukagunetik abiatu behar garela edozein indarberritze prozesutan (etxeak, eskolak...). Dena den, lau arnasgune hauetan egindako azterketan ahulguneak ere azaldu

dira: esparru formalean euskararen erabilera areagotu bada ere, etxe giroan ahuldu da. Aldaketa sozialek, kulturelek, demografikoek... euskararen erabilera eragina izan dutela esan du Xabier Bengoetxeak.

'**Tribuaren Berbak**' saiok ere **Iparraldeko euskararen arnasmuneak** ezagutu nahi izan ditu. Horretarako, Kike Amonarriz **Pagolara** hurbildu da eta bertako bi lagunekin izan da: Maitena eta Jean Claude.



Historikoki, euskararen arnasmune izan da Pagola eta bere ingurua. Lehen, gehienek euskaraz hitz egiten bazuten ere, denborarekin euskaldun kopurua txikituz joan dela esan digu **Maitena Etxeber Pagolako erizainak**.

Bere adinekoen artean, eskola frantziarrari leporatzen dio euskara ez erabiltzearen arrazoi nagusia. Maitena lau urterekin eskolan sartu zenean, soilik euskaraz hitz egiten zekien. Eskolan, ordea, zigortu ez zezaten frantsesez egitera behartuta zegoen. 80 urtetik gorakoek ere, euskara maitatzen duten arren, ohituragatik frantsesez aritzea nahiago dutela esan du. Haur eta gazteen artean, ere euskararen erabilera asko jaitsi dela dio.



Jean Claude Aguerre irakaslea euskara ama-hizkuntza izan zuen, eta frantsesa eskolan ikasi zuen. Gaztaroan, ordea, euskara baztertu zuen inkontzienteki. Egoera honi buelta eman nahi dio orain, eta bere familiarekin euskaraz hitz egin eta bizi nahi du.

Beraz, pertsonak, herria eta hiriak etengabe aldatzen ari dira, eta era berean, hizkuntzak ere eraldaketa horietara moldatzen dira. Honen harira, **UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak** egiten duen lana eta helburuak hurbilago ezagutzeko **Maren Belastegi UEMAko presidentearengana** jo du Kike Amonarrizek.



UEMA orain 23 urte sortu zuten eta 19 herrik osatzen zuten. Egun, EAE eta Nafarroako 70 herrik osatzen dute UEMA. Hasieran, herrietako administrazioak euskalduntzen batu zituen indar guztiak. Orain, herritarren bizitza pribatua eta publikoa euskaraz izatea da UEMAren helburu nagusienetako bat.

Arnasmuneak herri handi edo hirietan ere aurki ditzakegula esan du Marenek. Horrela, Zarautz, Azpeitia, Bermeo, Bergara eta Tolosa, adibidez, UEMAren barnean dauden herriak dira, eta %70 baino gehiagok euskaraz hitz egiten dute. Udalerrri hauetan bezala, euskararen aldeko politika aurrerakoa eginez gero, herri bat arnasmune bihurtu daitekeela eta euskaraz bizitzea posiblea dela gaineratu du.

Beraz, hizkuntza batek biziraun nahi badu, inguruan arnasmune indartsu eta sanoak edukitzea ezinbestekoa da.

26. EUSKARAREN AHOZKO ONDAREA

Euskararen ahozko ondarea ezagutzen

Milaka urte pasa dira **euskara** sortu zenetik eta gure garaietaraino **ahoz ahoko transmisioari** esker iritsi da, hein handi batean. Horixe landu du aste honetan ETB1eko **“Tribuaren Berbak”** saioak, ahozko euskara.



Kanta zaharrak, koplak, bertsoak, zirtoak, ipuinak, esaerak, herri-antzerkia, igarkizunak... belaunaldiz belaunaldi pasa diren espresio ugari ditu euskarak. Horietako asko bildu ditu **Xabi Payak “Ahozko euskal literaturaren antologia”** liburuan.

Eta Payak egindako ikerketa eta dokumentazio lan horren arabera, gure garaietara iritsi den ahozko literaturaren **espresiorik zaharrena** “Beotibarko gudua”-ren kantua da. Abestiaren hasiera soilik iritsi da; izan ere, gudua 1321. urtean izan zen eta XVI. mendekoa da jasotzen duen dokumentu zaharrena.

Esaera zaharrak ere ahozko hizkuntza dira. Eta horri lotuta jolas bat proposatu zuen Twitter bidez **“Tribuaren Berbak”** saioak: Esaera zaharrak berritu, modernizatu, eta twitterren argitaratzea #esaerazaharberrituak traolarekin batera. Hauek dira jasotako batzuk: **“Usteak erdia Gurtel”** (@Alper_ego), **“Smartphone merkea, nagusiaren nekea”** (@joxe) edota **“Artzainaren etxean, Tetra Briki”** (@gorostizaitor). Bururatzen al zaizue besterik?

Baina idazten hasi izan ez bagina, galdu egin ote zitekeen gure hizkuntza? **Josune Zabala, Soziolinguistika Klusterreko kideak** aitortu digunez, arrisku hori egon zitekeen; nahiz eta badiren idatzizko sistemarik ez duten hizkuntzak eta oraindik bizi direnak.



Hala ere, **ahozkotasuna eskolatik ikastea ezinbestekoa** dela gaur egungo gizartean irizten dio, komunikatzaile onak izatera iristeko. Horretarako metodologia landu ahal izateko, laborategi bat jarri zuten martxan 2011n eta materiala osatu dute eskoletan ahozko komunikazioa landu dezaten.



Gazteentzat, eta heldu askorentzat, **bertsolaritza da ahozko hizkuntzaren espresiorik ezagunena**; izan ere, **Amaia Agirre bertsolari eta irakaslearen** hitzetan, bertsolaritzak asmatu du gizartearen eskakizunei erantzuten eta egitura sendoa osatu du Bertsolaze Elkartearekin, Mintzola lantegiarekin eta Xenpelar dokumentazio zentroarekin. Baina

batez ere, **hezkuntzan dago ongi errotua**, hezkuntza arautuan dagoeneko bertso-zaletasuna pizten dute euskararekin jolastuz eta, ondoren, gehiago sakondu nahi duenak 1.400 bertso-eskola ditu horretarako.

Hala ere, ahozko hizkuntzak askoz alor gehiago ditu. **Ipar Euskal Herrian**, adibidez, **antzerkiak du jarraipen handia**. **Mattin Irigoien antzerkigilearen** hitzetan publikoa du antzerkiak inguru hartan eta **herrian gertatutakoa espresatzeko edo aldarrikatzeko** ere erabili da askotan, hurbileko gaiak landuz. Libertimenduak dira gaur egun horren adibide; dantzari eta bertsolariekin batera, zirtzilak aritzen dira ekimen hauetan, kale-antzerkia eginez.



Azkenik, **Ahotsak proiektua** ere ezagutu dugu 'Tribuaren Berbak' saioan. **Ahozko ondarea eta herri hizkerak jasotzeko helburuarekin** sortutako egitasmoa da eta, martxan jarri zenetik, 279 herritako informazioa bildu dute, 4.601 elkarrizketa eginez eta 19.183 bideo osatuz. Horiek guztiak **www.ahotsak.com** webgunean dituzte Aintzane Agirrebeña koordinatzaileak saioan azaldu duenez.

27. ARRASATE: EUSKARA ETA KOOPERATIBISMOA

Arrasate aitzindaria izan da, bai euskara talde eta euskal komunikabideen sorreran, bai etakooperatibismoari dagokionez ere. Ideia hau jorratu du eta bi ideia horiek uztartzen saiatu da aste honetan ETB1eko 'Tribuaren Berbak' saioa.



Horretarako Kikek Amonarrizek Joxemari Muxika AED Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko presidente ohiarengana jo du lehendabizi. Elkartea, erreferentzia bilakatu zen gainontzeko euskara talde zein elkarterentzat.

AED 1983. urtean sortu zen euskara arrasatearren bizi-esparru guztietara zabaltzeko helburuarekin. Garai hartan, gaztelaniak itota zuen euskaldungoa eta Arrasate erdal mundu batean bizi zen. Testuinguru gordin horretan, euskararen egoeraz kezkatuta zegoen zenbait 'kontzientziadun' pertsona bilduta osatu zuten elkartea. Gauzak horrela, lantalde ezberdinak jarri zituzten martxan euskararen erabilera bultzatzeko. Horien artean, gaur egun Arrasaten oso garrantzitsuak diren bi: lan-mundua eta hedabideak (Arrasate Press aldizkaria, egun Goeiena Telebista den Arrasate Telebista...).

Goiena Telebista Debagoieneko eskualdean eta Aramaion ikus daiteke, eta bertako gertaerei buruz aritzeaz gain harrobi lanak ere egiten ditu, hamaika kazetarik, aurkezlek eta teknikarik hemen eman baitituzte lehen urrats profesionalak. Anne Igartiburu, Maider Egues eta Asier Aranguren, adibidez, Arrasate Telebistan hasi ziren. Kike Amonarriz bertara hurbildu da, etalban Arantzabal, Goienako zuzendariarekin hitz egin du komunikazio taldearen (telebista, irratia, prentsa, internet, mugikorretarako aplikazioak...) inguruan gehiago ezagutzeko. Herria, herritarrek, inguruko edukiak eta euskara ditu Goienako komunikazio taldeak oinarri.



Bestalde, kooperatibismoa XIX.mendean sortu bazen ere, Arrasate ere erreferentzia bilakatu da zentzu horretan. Kooperatibismoa da Arrasate munduko mapan kokatu duena, Mondragon Korporazioa bertan sortu eta bertan errotu baita. 289 erakundez osaturik dago, 80.000 langile baino

gehiago ditu mundu osoan zehar, eta **Euskal Herriko enpresa talderik handiena** da.

Tribuaren Berbak saioa kooperatibismoa gertutik ezagutu nahi du, eta horretarako **Arianne Kareaga Lankidetzaren Ikertegiko (LANKI) kidearekin** hitz egin du. Mondragon Unibertsitateak kooperatiben esperientzia ikertzeko xedez sortu zen 2000.urtean. Kooperatibismoarentzat unerik gozoenak ez badira ere, eredua zalantzan ez dagoela azpimarratu nahi izan du Ariannek. Euskarak kooperatibismoaren filosofian izan duen garrantziaz ere hitz egin digu (Almen ikastola, HUHEZI irakasle eskola, euskara planak...).

Mondragon Korporazioaren beste erakunde batengana jo du Kike Amonarrizek: **Nuria Agirre Laboral Kutxako Gestio Sozialeko zuzendariarekin** hitz egin du, **euskarak kooperatibetan bizi duen egora ezagutzeko**. Nuriak azaldu digunez, Laboral Kutxak garrantzia handia eman dio betidanik euskarari, **euskara eta euskal kultura sustatzea** euren izaeraren oinarri direlarik.



Bestalde, Orbea ere Mondragon taldeko beste kooperatiba bat da. Hasieran, armagintzari lotutako enpresa bat izan zen, baina gaur egun **bizikletaren negozioa** ardatz du. Egoitza nagusia Mallabian du, baina Portugalen eta Txinan ere baditu fabrikak. **Mundu guztian zabaldua dagoen euskal marka da**. Horrela, Kike Amonarrizek **Unai Diego Orbeak Txinan**


duen zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan du, skype bidez.

Beraz, Arrasate herri sarrailagile bat izatetik euskararekin harreman zuzena duten finantza, banaketa, industria eta ezagutza lantzen dituzten hainbat enpresaren habia bihurtu dela ikusi dugu aste honetako **'Tribuaren Berbak'** saioan.

28. ITSASOA LAÑO DAGO

Itsasaldeko euskararen berezitasunak aztertu dituzte 'Tribuaren Berbak' saioan

"**Tribuaren Berbak**" ETB1eko saioko azken atalean itsasaldeko euskara aztertu dute, "itsasoa bezain bizia, gatz eta piperduna delako".



Horretarako, lehen geldialdia, Zumaian egin dute. Bertan, itsasoak zein hizkuntzatan hitz egingo duen galdetu dio Kike Amonarrizek **Xabier Azkue Zumaiaiko Euskara Teknikariari**. Azkueren ustez, itsasoak hainbat hizkuntza ditu, eta euskara horietako bat. "Zumaia arrantzarekin zerikusi polita izan du. Batez ere lehorreko arrantza egiten da, bai egunez, baita gauez ere", esan du Xabier

Azkuek. Eta horrela bertako hitz konketuak ikasten hasi gara: gaueko arrantzari '**gabarrantza**' esaten zaio Zumaian; itsas kabrari '**gomexa**' deitzen diote eta '**txoazkiña**' edo '**andaika**' dira 'gabarrantzan' harrapatzen diren arrainetako batzuk.

Zumaian haitz polit askoak ere ikusi ditu Kike Amonarrizek itsasotik eta horietako batek 'Marianton' izena du. Marianton izeneko emakume bat hil omen zen haitz horretan lapak batzen duela hainbat urte eta horregatik hartzen du izen hori. Hala eta guztiz, Zumaian badaude gaztelaniazko izena hartzen duten tokiak, adibidez, 'Playa Gris'. Xabier Azkueren ustez, euskal izenak berreskuratzeko ekimenak egin beharko lituzkete.

Gipuzkoatik Bizkaira salto eginez, Bermeoko saregile talde batekin eta Lekeitiko Faustino Garatea patroiarekin hitz egin du ETB1eko saiok. **Bermeo eta Lekeitiko euskarak** itsaso zaporea, arrantzale kutsu handia dute. Ana Rosa Ispizua saregileak dioenez, "kostaldeko hizkerak gatz berezia du, itsasoak bezala". Eta azken urteetan inmigrazio handia egon da, Senegaldik batez ere. Faustinoaren hitzetan, "hitzen bat esaten dute euskaraz, baina euren artean Senegaleko hizkuntzan hitz egiten dute, eta gurekin gaztelaniaz".



Bermeoko hitzak errepasatzen hasita, kalean asko dabilenari '**kalinpan**' esaten diote; pertsona motela denari '**papardoa**' deitzen zaio, eta okerra denari, berriz, '**trabeseke paelea**' esaten zaio. Lekeitian, berriz, '**Dzanga**' uretara buruz behera saltatzeari esaten zaio. '**Dzapart**', ordea, uretara hankak beherantz begira botatzeari esaten zaio.



Bizkaiko kostaldean jarraituz, Ondarroan **Kirmen Uribe idazlearekin** hitz egin du Kike Amonarrizek. Itsasoak presentzia handia du Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburuan. "Aita arrantzalea zen, eta berari idatzitako nobela bat da. Aita, aitona, birraitona eta osabak arrantzaleak izan dira, baina gure belaunaldian tradizio hori eten egin da. Horregatik galera hori islatu

nahi izan dut", esan du Kirmenek.

Ondarroako euskara ere itsasoko euskara da, eta baditu bere esaera eta berba propioak: **‘Amua ezpainetan’** erabiltzen da haserre zaudela esateko.

‘Tribuaren Berbak’ saioko *Itsasoa laño dago* atala bukatzeko **Jon Maia bertsolaria** harrapatu duteAlbaolan, laster ateak zabalduko dituen Itsas Kultur Faktorian, alegia. Izena euskal ontzietan tradizionala zen alboko pieza batetik dator. Bertan, eraikina erreformatzen ari dira San Juan baleontzia eraiki ahal izateko. “San Juan baleontzia euskal ontzi historiko bat da, 1565ean Labradorren (Kanada) hondoratu zena, eta ontzi hori berreraikiko da jendearen aurrean. Originala egin zen moduan berreraikiko da”, aipatu du bertsolariak.

Jon Maia **hizkuntza gutxituak eta itsasoa** lotzen dituen proiektu baten murgilduta dago. San Juan ontzia eraikita dagoenean, Europako hizkuntza gutxituen mapatik bidaia egingo da ontzi honekin. Bretaña, Gales, Eskozia, Irlanda, Faro Uharteak eta beste herrialde batzuk bisitatuko dituzte; euskarak presentzia handia izan baitu Ipar Atlantikoko itsasoan



Jon Maiak itsasoko euskal hitz bat ere ekarri digu saioari amaiera emateko: **‘tosta’**. Arraunlaria esertzen den oholak da tosta eta lehorrean ez da hitz hau erabiltzen aulkia edo antzeko gauzentzat. Hitz hau gurea da, baina ez soilik gurea, Irlandan, Feroe Uharteetan eta Eskozian ere hitz hau erabiltzen baitute esanahi berdinarekin.

Itsasoak eta euskarak betidanik izan duten harremana nabarmendu digu ‘Tribuaren Berbak’ saioak*Itsasoa laño dago* atalean.

29. SAREAN HARRAPATUTA

Euskarak ze paper du interneten?

Euskarak interneten, munduko sarerik handienean, duen presentzia aztertzeari ekin dio aste honetan ETB1eko **“Tribuaren Berbak”** saioak. Kike Amonarriz gidari duela, interneteko alor ezberdinak ikertzen eta eragile ezberdinekin hizketan aritu da taldea.



Pixka bat kokatzeko, interneteko sareetan begira jarrita, euskara ze lekutan dagoen ikusiko dugu: Wikipedia, adibidez, 287 hizkuntzatan dago idatzita eta, horien artean, **euskara 35. lekuandago: 181.000 artikulua** daude gure hizkuntzan idatzita. Twitter, bestalde, 33 hizkuntzatan erabili daiteke, horietako bat euskara eta 200.000 txio inguru bidaltzen dira hilero gure hizkuntzan. Horrez

gainera, Google, Facebook, Youtube edota Tuentiren euskarazko bertsioak ere erabili ditzakegu.

Baina aro digital honetan ondo finkatzeko, domeinu propio bat edukitzea aurrerapauso handia da eta gurea, .eus, errealitate bihurtze dago. Iratxe Esnaolak, **.eus domeinuaren** koordinatzaileak azaldu digunez, **“euskara eta euskal kulturaren gainean jarduten duten webguneentzat”** sortutako domeinua izango da eta jendea euskarara gerturatzea izango du helburu. Une honetan, hasiera fasean dago, domeinu hau erabiltzen hasiko diren webguneen lehen zerrenda aurkeztuko dute laister; baina 2014ko abenduaren 3an, Euskararen Egunean, publikoari zabalduko zaio eta hedatzen hasiko da.



Lehen esan dugunez, Wikipedia da euskaraz erabili daiteken erremintetako bat. 181.000 artikulutik gora daude gure hizkuntzan eta **edozein gaiei buruzko artikulua** dira. Printzipioz edonork argitaratu edo osatu dezake artikulua bat. Baina gure hizkuntzari dagokionez, **dozena bat boluntario** aritzen dira hilero artikulua euskaratzen. Xabier

Armendaritz itzultzailea da horietako bat eta gairen batean aditua den edonori gai horri buruz idazteko gonbidapena luzatu dio **“Tribuaren Berbak”** saioaren bidez.



Eta beste alor askotan bezala, hezkuntzak ere paper garrantzitsua jokatzen du interneten erabileran. Maite Goñi irakaslearen eta IKT-ko adituaren hitzetan, **internetek irakaskuntza errotik aldatzeko** aukera ematen du, bainaoraindik **ez zaio behar adinako etekinik** atera. Hala ere, txiki txikitatik haurrak interneten heztea garrantzitsua dela dio, bertako erremintek ikasketetarako aukera

ugari ematen dituztelako, eta horiek zuzen kudeatzen jakitearen garrantzia aipatu du. Eduki gehienak ingelesez edo hizkuntza handietan idatzita badaude ere, Maiteren esanetan **“euskal komunitatea txikia baino ekimentsua da”** eta mundu honetan gero eta presentzia handiagoa duena.

Horrek euskararen iraupenean asko lagunduko du; izan ere, gaur egungo gizartea ikusita, **mundu digitalean ez dagoen hizkuntzak desagertzeko arrisku** handiagoa izango duela ematen du. Eta egiazki, alde batetik, digitalizazioak aukera berriak zabaldu dizkie hizkuntza txikiei eta hainbat argitalpen egiteko kostuak txikitu ditu; gaur egun, edonork igo baitezake bideo bat edo idatzi dezake edozer gairi buruz. Baina bestetik konpetentzia ere asko hazi da. Horixe aipatu dute “Tribuaren Berbak” saioan **Garazi Goiak**, BBCko hedapenerako arduradunak, **etorkizuneko telebistari** buruz hitz egiterakoan eta **Javier Etxebestek**, interneteko ekintzaileak, **enpresek eta hizkuntzek interneten** duten paperari buruz hitz egitean.

30. 60KO HAMARKADAKO ASTINDUA

60ko hamarkadan hasi zen euskararen berpizkundea

60ko hamarkada mugarrizko izan zen euskararen bizi-iraupenean; une hartara oso ahul iritsi zen, eta hamarkada hartan gorako bideari ekin zion. Garai haiek aztertu ditu aste honetan **‘Tribuaren Berbak’** ETB1eko saioak.



Joseba Intxausti historialariak Kike Amonarriz esan dionez, **euskal gizartea** garai hartan ere **ez zegoen geldik**, aurrera begira zegoen. Gazteek ez zuten Gerra Zibila ezagutu baina bizi zen egoera hura gainditu nahi zuten. Eta Gerra galdutakoek ere euskalgintzaren motorra aurrera eraman nahi zuen, gerra aurretik bezala. Eta horrela, euskaraz arituko ziren irratiak,

argitaletxeak, ikastolak, kantagintza eta abar sortzen hasi ziren.

Ikastolen sorrerak garrantzia handia izan zuten euskararen berpizte horretan. **Kontxita Beitia** lehenengo ikastola haietako **andereñoa** izan zen. Donostiako Gros auzoko bere etxean eman zituen lehen eskolak eta gogoan du **parrokien babespean sortu** zirela herri askotan ikastolak; izan ere, legeak begiratzen hasita, Aita Elizegik Korkordato bat aurkitu omen zuen eta bertan argi jartzen omen zuen Elizak bere babespeko eskolak izan zitzakeela. Horri esker eta apaiz euskaldun askori esker, “parrokia eskolak” bezala sortu ziren ikastola asko.



Ondoren, “**Andereñoen erresidentzia**” sortu zutela gogoratzen du, andereño izango zirenei formazioa emateko, eta izen handiko irakasleak izan zituztela han ibili ziren andereñoek: Joxe Miel Barandiaran, Juan Mari Lekuona eta abar...



zen **Seaskaren sorrera**.

Seaska ere antzera sortu zela esan dio Argitxu Nobliak Kike Amonarriz. Senarra Amezketakoa zuen Argitxuk, eta ez zekien frantsesez. Harekin eta haren familiarekin komunikatu ahal izateko euskaraz ikasi behar zutela bere haurrek konturatu zen eta, hala, irakasle baten laguntzaz bere seme-alabekin hasi zen. Inguruko familietan hori ikustean, euren haurrak ere bidaltzen hasi ziren eta halakoxea izan

Euskalduntze eta alfabetatzea ere 60ko hamarkadan hasi zen. **Andoni Sagarna euskaltzainak** garai hartan euskara egoera tamalgarrian zegoela gogoratzen du: euskaldunen artean ere hitz egiteko lotsa eta beldurra antzematen omen zen. 1965ean, **Jon Oñatibia AEBetatik** etorri berria omen zen. Han gaztelania irakasteko metodo bat landu omen zuen eta, hona etortzean, **euskara ikasteko metodoa** sortu zuen. Hark hainbat irakasle hezi zituen eta horrela hasi ziren euskara irakasten.



Alfabetatzea, berriz, Jarrai antzerki taldearen ekimenez etorri omen zen. Hango kideek egin zioten proposamena Euskaltzaindiari Sagarnaren hitzetan, inork ez baitzuen eskola jaso euskaraz, eta irakurtzen eta idazten ikastea garrantzitsua ikusten zutelako.

60ko hamarkadako kultur produkzioari dagokionez, **Jose Angel Irigaray idazleak** asko produzitzen zela euskaraz argitu dio Kike Amonarrizi eta jauzi kualitatiboa gertatu zela. Kantagintzari dagokionez, **Mixel Labeguerie** bere baitako arazoak eta herriari lotutako aldarriak kanta bilakatzen hasi zen eta hortik hasi zirela gainerakoak. Beste alor artistikoetan **Jorge Oteizaren itzala** izan zen garrantzitsua Irigarayren hitzetan; oso aurrerakoia izanik, gai izan omen zen herri kulturaren nolako ondarea ikusteko.

31. GASTEIZ - VITORIA- GASTEIZ

Euskara eta Gasteiz uztartu ditu Tribuaren Berbak saioak. Izan ere, Gasteiz da euskararen



ezagupenean jauzirik handiena eman duen Euskal Herriko hiriburua.

1981ean, Gasteizen **euskaldunak % 3,4** ziren, **2011n** jasotako datuen arabera, **gasteiztarren % 22,5 dira euskaldunak**; beraz, 30 urtean, euskaldunen kopurua 19 puntu igo da. Gainera, kopuru horri ia-euskaldunen kopurua batu beharko genioke, % 26,1.

Ez da marka makala!

Patxi Martinez de Marigorta Gasteizko udaleko euskarako zerbitzuburuarekin izan da Kike Amonarriz. Haren esanetan **2 gako** daude euskaldun kopuruaren igoeraren atzean: **hezkuntzan B eta D ereduetan ari diren ikasleak** (28.500) eta **euskaltegietako ikasleak** (5.000 ikasle). Ezagutzen igoera handia egon bada ere, erabilera datuak ez dira hain onak: azken kale neurketaren arabera euskara % 3,1ek erabiltzen dute. 50.000 inguru euskaldun dago Gasteizen, hauei euskara erabiltzeko guneak eta aukerak sortzea da Martinez de Marigorta teknikariaren lehentasuna.



Iñaki Lazkano filologoak **Gasteizko euskararen historia** azaldu dio Kikeri. Gasteizen, eta Araban oro har, XVIII. mendean euskara galdua bazegoen ere, sekula ez zen zeharo desagertu. Adibidez, Henry Stanley bidaiaria Gasteizen izan zenean (XIX. mendean), Manuel Iradier laguna bisitatzen, jendeak euskaraz hitz egiten zuela zioen.

Saioko berriemaile eta GEU elkarteko kide ere baden **Ane Pedruzok** euskal giroa non dagoen erakutsi dio Kikeri. Euskararen Etxea bihurtuko den **Oihaneder jauregia**, **Hala Bedi irratia**, **Errexala elkartea**, **Parral taberna**, **Aihotz plaza**.

Mendia Optikako Kepa Mendiarekin izan da Kike. Aita euskaltzalea zuen eta Kepak berak gaztetan ikasi zuen euskaraz. Betidanik saiatu dira zerbitzua euskaraz ematen eta **publizitatea euskaraz egin zuen Gasteizko lehen komertzioetako bat da berea**. Bezeroen ikusmena neurtzeko probak ere euskarazko testuekin egiten ditu.



Rober Gutierrez Bai Euskarari Ziurtagiriko elkarteko zuzendariarekin izan da Kike. Gasteizko **merkataritzan euskarak bizi duen egoeraz** aritu da. Bilakaera izugarria izan da jakina, Dato kalean adibidez, duela 30 urte euskararen presentzia hutsaren hurrengoa zen, orain paisaia linguistikoan ikusten da, ez nahi bezain beste jakina.

Karmele Jaio idazleak Gasteizen euskal kulturaren izan duen garrantzia azaldu dio Kikeri. Gasteizkoak da Hertzaingak taldea, Gasteiztartetako idazleak berriz, Iban Zaldia eta Patxi Zubizarreta eta Ruper Ordorika eta Mikel Urdangarin musikariak. Periferian izateak abantailak dituela uste du Jaio. Idazlearen ustez, Gasteizen gero eta giro euskaldunagoa dago eta euskal kulturaren aldeko jarrerak ere gora egin du.



32. ZERGATIK EZ DUGU EUSKARAZ EGITEN?

Motibazioek helburu jakin bat lortzeko bidean jartzen gaituzte. Helburu jakin hori **euskara egiteadenean** zer gertatzen den aztertu du, aste honetan, 'Tribuaren Berbak' saioak.

Lehenik, eta behin **euskara egin ahal izateko baldintza** batzuk bete behar dira: norberak euskaraz jakitea, mintzakideak euskaraz badakiela jakitea, eta garrantzitsuena, **euskaraz egin nahi izatea**. Ordea, asko gara euskaraz hitz egiten dakigunak, baina dakigun guztiok ez dugu beti eta dakiten guztiekin erabiltzen. **Zergatik kostatzen zaigu hainbeste nahi izatetik hitz egitera jauzi egitea? Zergatik egiten dugu erdaraz euskaraz egin dezakegunean?**



Juanjo Allur, Siadeco taldeko ikertzaileak, jendeak kalean euskaraz ez egiteko **arrazoiak sailkatzen** lagunduko dio Kike Amonarrizi. Bi multzo nagusi bereizi ditu: Alde batetik, **norberarekin lotutako arrazoiak** egongo lirateke (euskaraz ideiak adierazteko zailtasuna, gaztelaniaz aritzeko erosotasuna, gai batzuetaz hitz egiteko euskarak suposatzen duen esfortzua, borondate falta, euskara ama hizkuntza ez izatea, pertsona jakin batzuekin hizkuntza jakin bat erabiltzeko ohitura...) ; eta bestetik, **arrazoi sozialak**, hau da, inguruarekin edo gizartearekin lotutakoak. Sailkapen honen arabera, euskara ez erabiltzeko ematen diren arrazoi gehienak lehen multzoan egongo lirateke, eta beraz, **euskara erabiltzea norberaren esku asko dagoela esan du Juango Allurrek**.

Hau dela eta, arrazoi guzti hauei konponbideak bilatzea izango litzateke erronka nagusia. Eta horretarako, **euskara hiztunen artean erakargarri egiteko metodoak** bultzatu behar dira. Ilusioa ezinbesteko elementua da, **Fermin Etxegoien kazetariaren** arabera. Baina, batez ere, euskara erakargarria izateko **estetikoki funtzionala** izan behar duela uste du. Euskara erraztea eta sinplifikatzea proposatzen du, jendeak euskara ondo barneratu eta erabili dezan.



Bestalde, euskara bultzatzeko hainbat kanpaina egin dira. **Estitxu Garai, komunikazio eta marketing adituaren** arabera, **euskara sustatzeko kanpaina** hauek beharrezkoak dira baina eraginkorrak izateko, lehenik eta behin, jendeak euskaraz hitz egiteko motibazioak zeintzuk diren ikertu behar dira. Behin **motibazioak identifikatuta**, euskara sustatzeko kanpainak diseinatu behar dira.



Aurrekoari lotuta, jendeak euskaraz hitz egiteko **motibazio metodoak** ere oso garrantzitsuak dira. **Aurkene Redondo coachak** jendea nola motibatu azaldu digu. Horretarako, 'galdera boteretsuen metodologia' erabiltzen du: Nahi duguna ondo definitzea eta identifikatzea, nahi dugun hori gure esku dagoen edo ez definitzea, helburua lortzeko pausuak zehaztea, baliabideak bilatzea, epe bat

finkatzea, zer edo zer alboratu behar dugun jakitea eta, azkenik, nahi dugun helburua gure buruan irudikatzea energia horretan jartzeko.

Azkenik, orain arte ikusi ditugun 'Tribuaren Berbak' saioko atal ezberdinetan beraien burua motibatu eta euskaraz gozatzeko helburua lortu duen euskaldun berri asko ezagutu ditugu.

Beraz, aste honetako saioak erakutsi digu euskaraz egin nahi duenak euskaraz egin dezakeela.



33. OPOR GIROAN

Zer egin dezakegu euskararekin oporretan gaudenean?

ETB1eko 'Tribuaren Berbak' saioaren lehen denboraldiko azken atala izan dugu asteazken honetan ikusgai. Udazkenean istorio eta kontu berriei itzuliko da Kike Amonarriz baina, aste honetan, opor giroan esan digu agur.

Oporretan gaudenean euskararekin zer egin dezakegun argitzen saiatu da. Zer egin euskararekin oporretan gaudenean? Maletan sartu beharko genuke edo etxera bueltatu arte atseden eman?



Horretarako, lehenik eta behin, turistek euskararen berri ote duten jakin nahi izan du Kikek, Biarritzera eta Donostiara joandako bisitarien eskutik. Txinatarrak, japoniarrak, ingelesak, amerikarrak, italiarrak, frantziarrak...guztiek antzeko erantzuna eman diote Kike Amonarrizi: **Euskararen inguruan ezer gutxi dakitela, eta euskara ulertzea zein irakurtzea oso**

zaila egiten zaiela turista gehienei.

Turistek euskararen inguruan duten ideia hau pixka bat aldatzeko, adibidez, Donostian "Euskararen Donostia" ibilbide gidatuakantolatzen ditu Bagera Donostiako Euskaltzaleen elkarteak. Hizkuntza ezberdinetan egiten dituzten bisita gidatu hauen bidez, **euskararen historia ezagutzeko aukera ematen diete Donostiara etorritako turistek**. Donostiak euskararekin duen harreman estuaren lekuko diren hamaika txoko ezagutzeko aukera ere izango dute turistek: Udaletxea, Herri Irratiaren egoitza, Antzoki Zaharra, kaia, Orixe ikastola, Sarriegi plaza, San Juan kalea -Mikel Laboaren sorlekua, Bretxako merkatua...



Literaturaren aldetik **Bernardo Atxagaren liburuak** dira salduenak. **Euskarazko elkarriketa manualak** ere erosten dituzte turistek, baina **pintxo-errezeten liburuak** dira gehien interesatzen zaizkien liburuak.

Dena den, euskara eta euskal munduaren inguruan informazio gehiago bildu nahi duenturistarentzat liburu ezberdinak ere badaude. Elkar liburudendan gure hizkuntza eta kulturari buruz ingelesez gauza gutxi daudela esan digute: Xamarren **Orhipean**: Gure herria ezagutzen liburua, Mark Kurlanskyren **The Basque History of the World** eta Paddy Woodworthen **The Basque Country**, adibidez.

Euskararen inguruko liburuak irakurtzeaz gain, euskaran murgiltzeko **barnetegiak** aukera ezin hobe dira. Horregatik saioko lantaldea **Bakaikura** joan da bertan **Gabriel Aresti eukaltegiak duen barnetegia** hurbilagotik ezagutzeko. Eider Corbezon Bakaikuko barnetegiko irakaslearekin eta bertan ikasten dauden zenbait ikaslearekin hitz egin du Kike Amonarrizek.



Udaleku eta barnetegietan ikasitakoa kalean praktikatzea beharrezkoa da, eta horretarako, udan herri guztietan ditugun **festak aukera itzela** dira. Laida Mugica Kontseiluko kidea da, eta "Euskaraz besta egin nahi dut" kanpainaren antolatzailearekin honi buruz hitz egin du Kikek. Jai batzordeek Ipar Euskal Herriko jaiak antolatzen dituztenean (egitarauak, kartelak, txapelketak, ekitaldiak...) euskara

kontutan har dezaten du helburu kanpainak honek. Gainera, festan dagoen jendeak ere euskara erabiltzeko martxan jarritako ekimenak zeintzuk diren kontatu digu Laidak.

Udan Euskal Herriko txoko guztietan festa giroa izaten da nagusi, baina lasaitasuna bilatzen dutenak ere badira. Horretarako, **nekazaletxe** ugari ditugu gurean. Horietako askok **euskara eta euskal mundua hurbiletik ezagutzeko aukera** eskaintzen dio turistari. 'Tribuaren Berbak' saioa, adibidez, Mikel Irizarrek eta Fatima Aranzabalek Elorrión duten Esteñibar nekazaletxean izan da. Ostatuaz gain beraien denbora eskaintzeko diote bisitariari, euskaldunekin bizi eta bertoko turismoa ezagutu dezan.



33 ataletan zehar, euskararen inguruko hainbat gai jorratu ondoren, gero arte esateko garaia iritsi da. Datorren ikasturtean, euskarari buruzko istorio eta kontu gehiagorekin bueltatuko da Kike Amonarriz eta 'Tribuaren Berbak' saioa ETB1era.

34. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA EUSKARA?

‘**Tribuaren Berbak**’ ETB1eko saioak bigarren denboraldia abiatu du eta lehen atala izan dugu igande honetan ikusgai. Joan den denboraldian euskarari buruzko hainbat istorio ezagutu genituen; besteak beste, 7.000 milioi pertsona baino gehiago bizi direla munduan eta gizakiok 7.000 hizkuntza inguru hitz egiten ditugula. Halaber, euskara ardatz hartuta, Euskal Herriko izkina eta bazter guztiak arakatu genituen.

Bada, euskararekin loturiko kontu berriekin itzuli da orain Kike Amonarriz. Hasteko, ‘**Zergatik da garrantzitsua euskara?**’ Galdera horretatik abiatuta ekin dio lehen saioari. Askoren ustetan hobe litzateke munduan hizkuntza bakarra izatea; izan ere, horrela, ziurrenik, hobeto ulertuko ginateke.



Munduan hizkuntza bakarra izatea, onerako edo txarrerako izango litzatekeen jakin nahi izan du Kike Amonarrizek eta kalean galdetuta, denetariko erantzunak jaso ditu. Aspergarria izango litzatekeela diote batzuk; beste batzuen ustez, ordea, horixe litzateke egoera perfektua.

Ta, hizkuntzak loreengatik aldatuko bagenitu? Hau da, **zein lore aukeratuko zenukete munduko lore bakarra izateko?** Azken batean, lore guztiek funtzio bera betetzen dute. Orduan, zertarako behar ditugu horrenbeste lore desberdin?

Loreak inguruan dituztela elkartu dira Belen Uranga soziologoa eta Kike Amonarriz. Testuinguru horretan azaldu du Urangak **hizkuntza ekologikoa** izeneko kontzeptua, hau da, **hizkuntza guztien iraunkortasuna** lortu nahian, hizkuntza ikuspegi ekologikotik ikustea. Hortaz, hizkuntza baten **ekosistema hizkuntz komunitatea bera** dela azaldu du Urangak, datozen belaunaldientzat hizkuntza hori interesgarria eta erabilgarria izatea eragingo den komunitatea, hain zuzen ere. Bestetik, hizkuntz aniztasunaren garrantzia azpimarratu du Urangak eta, halaber, hizkuntza bi edo hiru bakarrik izateak, maila sozialean zein kulturean pobrezia handia ekarriko lukeela nabarmendu du. Azkenik, Urangaren esanetan, ‘**gaurko euskaldunok dugun eginkizun etikoa ondorengoei euskara transmititzea da**’.



Handik, **lau esparru ezberdinetako tribukideengana** jo du ‘Tribuaren berbak’ saioko lan taldeak, esparru horietan euskarak duen garrantzia zein den azaltzeko. Batetik, Juan Garaño eta Joxe Mari Goenaga **zinemagileen ustetan** euskara garrantzitsua da zinemagintzan, errealitate euskaldun batentzako fikzio euskaldun

bat ere behar delako. Bestetik, Santi Agirregoikoa **Elay Taldeko** zuzendari orokorraren hitzetan, euren lantokian euskara dute laneko hizkuntza nagusia. Halaber, **Usurbilgo DYA**ko lan taldearentzat ere garrantzitsua da euskara, izan ere, jendea ondoen euskaraz

adierazten da eta larrialdi kasuetan ezinbestekoa da elkar ondo komunikatzea. Azkenik, Haizea Barcenilla **arte komisarioak** azaldutakoaren arabera, arte munduan euskara gero eta garrantzitsuagoa da, gizarte bera geroz eta euskaldunagoa delako.

Jendeak euskarari zergatik ematen dion garrantzia argitze aldera, **Amaia Antero soziolinguistarekin** elkartu da Kike Amonarriz. Haren esanetan, arrazoi batzuk praktikoak izango diren arren (lanpostu bat lortzeko, seme-alabekin hitz egiteko, etab.), beste askorentzat pentsatzeko, sentitzeko eta hori besteei komunikatzeko hizkuntzarik kuttunena da euskara.



Bada, **arrazoi intimo horiek dira garrantzitsuenak**. Gainera, Anterok azpimarratu duenez, hizkuntz komunitate orok dauka duintasunez bizitzeko eskubidea eta, **'hizkuntzak identitate indibiduala eta kolektiboa eraikitzen laguntzen digu'**.

Kolonbiara ere egin du jauzi 'Tribuaren berbak' saioko lan taldeak, izan ere, **Kolonbia**



aniztasun gehien biltzen duen munduko herrialdeetako bat da, baita hizkuntzari dagokionez ere. Jon Landaburu hizkuntzalariak 40 urtetik gora egin ditu hizkuntza indigenak ikertzen, eta Kolonbiatik bertatik jakinarazi digunez, herrialdean inguru oso ezberdinak izateak eragina du hizkuntz aniztasunean. Landabururen hitzetan, **'herri baten memoria eta sentsibiltatea da**

hizkuntza'.

Marie Wilcox wukchumni hizkuntzari geratzen zaion azken hitzuna da. Charlie Mungulda amurtag hizkuntzaz komunikatzeko gai den azkenekoa den bezala. Eta Cristina Calderón yagáñez egiten dakien azken hitzuna da. Tamalez, **oso hitzun gutxi dituzten hizkuntza asko daude eta bi astean behin horietako bat betiko galtzen dugu**. Eta berekin batera mundua ulertzeko modu berezi bat.

Bernardo Atxaga idazlearekin izan du hurrengo hitzordua Kike Amonarrizek. Atxagarentzat, ikasbide bat izan da euskara, asko ikasi baitu munduari buruz. Halaber, **euskara lanerako bere etxea** izan dela azpimaratu du Atxagak eta, bere ustetan, erderaz idatzita, ez litzateke euskaraz halako ondo arituko.



35. MUNDU-GERRAK ETA EUSKARA

XX. mendeko gerrek atzerakada ekarri zuten Ipar Euskal Herriko euskararen

Gerrateek, batik bat XX. mendeko **bi gerra handiek euskararekin izan duten harremana** aztertu du aste honetan **'Tribuaren Berbak'** ETB1eko saioak. Ipar Euskal Herria bete betean harrapatu zuten I. Mundu Gerrak eta II. Mundu Gerrak. Eta adituek diotenek, biek izan zuten eragina euskararen atzeratzean.



Eneko Bidegain Mondragon Unibertsitateko irakasleari galdetu dio honi buruz Kike Amonarrizek. Enekoren iritziz, I. Mundu Gerran nabaria izan zen euskararen atzeratzea, baina ez lehenengoak ez bigarren gerrak ez ziren atzeratze horren hasiera edota amaiera izan; atzeratze prozesu horren erdian gertatu ziren gerrak. Izan ere, I. Mundu Gerra hasi baino 50 urte lehenago Frantziako estatua jabetu zen mugetan

zeuden lurraldeetan biztanleriaren zati handi batek ez zuela frantsesa hitz egiten. Horri buelta emateko, eskoletan frantses hizkuntzaren eta frantses aberriaren aldeko ideologia aldaketa bultzatzen hasi ziren.

Eta Mundu Gerrak iritsi zirenean, Ipar Euskal Herriko biztanleek, Frantziako beste herri batzuetako kideekin batera, **etsai bakarra zuten: alemaniarrak**. Elkarrekin borroka egiten zuten, anaiak bezala, etsaiaren aurka. Beraz, eskoletatik zetorren frantses aberriaren aldeko ideologia hura, odolaren poderioz indartu egin zen. Hala kontatu diote Kike Amonarrizi bai Enekok berak, baita **Xipri Alberbidek**, II. Mundu Gerra bizi izan zuen idazleak.



Euskara gerren ondorioz kaltetua izan bazen ere, gure hizkuntza guk uste baino gehiago erabili zuten gerra haietan. Ba al zenekiten **AEBetako armadak aginduak emateko euskara** erabili zuela?



Josu Chueca EHuko irakaslearen hitzetan, II. Mundu Gerran, Asiako frontean kontsigna batzuk euskaraz ematen zirela jakinarazi digu ETB1eko saioan. Denok badakigu AEBetan Euskal Herritik joandako etorkin ugari dagoela. Horietako batzuen semeak AEBetako armadan sartu ziren eta haietako bati egokia iruditu zitzaion aginduak euskaraz eta kode izkutuen bidez ematea. "Egon arretaz egunari" esaldiak, adibidez, Guadalcanal-

eko batailari hasiera eman zion.

Garai hartan kazetaritza ere egin zen euskaraz. I. Mundu Gerran 'Eskualduna' izeneko aldizkari bat zabaltzen zen Ipar Euskal Herrian; ia osorik euskaraz idatzita zegoen eta aliatuen aldeko, Frantses estatuaren aldeko, ideologia zabaltzen zuen.

II. Mundu Gerran ere izen bereko beste aldizkari bat zegoela jakinarazi digu Josu Chueca EHUKo irakasleak. 'Eskualduna'-k eskuin muturreko ideologia zabaltzen omen zuen, euskara hutsean, eta alemaniarrek ez zuten inolako arazorik ikusi aldizkari hartan, argitaratzen utzi zuten. Ondoren, aliatuek gerra irabazi zutenean itxi zen.

Gerra inspirazio iturri izan daitekeela ere erakutsi digu 'Tribuaren Berbak' saioak. **Marc Armspach Marko komikigileak** gerra protagonista duen *Les Godillots* lana erakutsi digu.



Eta azkenik, gaur egungo **gerretako kazetaritza** ezagutze aldera, **Andoni Lubaki** argazki-kazetari zumarragarrarekin hitz egin du Kike Amonarrirek. Hainbat gerra ikusi eta jaso ditu bere argazkietan. Berria eta Gara euskal egunkarietan zein kanpoko beste medio batzuetan agertzen dira eta Chris Hondros saria ere irabazi izan du egindako lanarekin.

Bere esperientzia kontatzeaz gainera, gaur egungo argazkilaritza-kazetaritza Euskal Herrian sortu zela jakin dugu. Gerra Zibilean David Seymourrek Elgetako lubakietan ateratako argazkiak berehala bidali eta argitaratzen baitziren.

36. EZKERRALDEAN

Zein da euskararen egoera Ezkerraldean eta Meatzaldean?

'**Tribuaren Berbak**' saioko denboraldi berriko hirugarren atalean, **Bizkaiko Ezkerraldean** ibili da Kike Amonarriz. Ezkerraldeak **erdaldun fama** du. Euskarak bultzada handia izan zuen urte batzuetan, ondoren galdu egin zen, baina, zein da **gaur egungo egoera**?

Barakaldo da biztanle euskaldun gutxien duen Ezkerraldeko herria, **%18,3**ko portzentajearekin. **Sestaon** datuak ez dira Barakaldon baino askoz hobeak, baina biztanleriaren **%18,6**ak daki euskaraz. Portzentajeek gora egiten dute **Santurtzin**, biztanleriaren **%19,8**a euskalduna delarik, eta **Portugalete** da Ezkerraldeko herririk euskaldunena, **%20**ko portzentajearekin.



XX. mendearen hasieran Barakaldon euskara egiten zela azaldu digu **Mikel Gorrotxategi** Euskaltzaindiako onomastikako batzordeko idazkariak. Eta galera aspalditik badator ere, bertako eguneroko hizkuntza izan zela euskara. Ezkerraldea izenez ezagutzen dugu Bizkaiko zonalde hau gaur egun, baina Mikelek adierazi digunez, **XIX. mendean, Somorrostro**

Arana izenez ezagutzen zen.

Euskal filologian doktorea den **Beatriz Fernandezek**, **60ko hamarkadako Santurtziko euskararen** berri eman digu. Inguru erdaldun batean ikastolako lehen haur haiek osatzen zuten 'mikrokosmos euskalduna'ren bizipenak azaldu dizkigu.

Mertxe Andres euskara teknikariak **Barakaldon euskaldun** batek egin behar duen esfortzu bikoitzaren inguruan hitz egin digu. Mertxek jakinarazi digunez, Barakaldon gero eta euskara gehiago entzuten da kalean, nahiz eta oraindik, egiteko lan asko dagoen.



Euskararen erabilera eta bilakaera askoz **hobea da Meatzaldean**.

Trapagararen Kimetz Arana, Ion Barrokak eta beste gazte batzuk herrian euskara erabiltzeko espazioak sortzearen beharraz aritu zaizkigu. Izan ere, gazteek hartu dute **Meatzaldean euskara** aurrera ateratzeko erronka.



Musikak beti izan du eragina euskararen erabileran eta ikaskuntzan. Rock tradizionalak indar handia izan zuen Ezkerraldean Parabellum edo Eskorbuto bezalako taldeekin, baina gaur egun bada indarra hartzen ari den beste musika estilo bat eta hori euskal rapa da. **Maisha MC eta Endika Lahain euskal raperoak** ezagutu ditugu, eta euskal rapak Ezkerraldean duen indarraz hitz egin digute.

Harrigarria dirudien arren, euskal rapa toki erdaldunetan ari da indar gehien hartzen.

37. GARUNA, HIZKUNTZAREN FABRIKA

Kike Amonarrizek garunak hizkuntzan duen garrantziaz hitz egin digu **'Tribuaren Berbak'** saioko 'Garuna, hizkuntzaren fabrika' atalean. Gizakia da ezagutzen den garunik garatuenaren jabe, baina honek guztiak zein zerikusi du hizkuntzarekin?

Hizkuntzaren kokapena, garunean



Hizkuntzak badauka bere tokia eta atala garunaren barruan. Hau hobeto ulertu ahal izateko, Kike Amonarrizek, Itziar Laka hizkuntzalariarekin hitz egin du. Itziarrek esan digunez, **hizkuntza, garuneko 'Silvioren fisura' izeneko atalean** kokatzen da. Silvioren fisurak, bi atal ditu; Broca esparrua eta Wernicke esparrua. Bi esparru hauek neurologoen izenak hartzen dituzte.

Itziar Lakak esparru hauen funtzioak argitu dizkigu. Broca esparruan, gramatika, soinuak etb. kudeatzen ditugu. Hitzen formak, bestalde, Wernicke esparruan kudeatzen ditugu.

Amets egitea eta pentsatzea zein hizkuntzatan egiten dugun ere galdetu diogu Itziar Lakari. Itziarrek esan digunez, amets egitea eta pentsatzea gauza ezberdinak dira, baina gauza bat dute amankomunean: amestu eta pentsatu hitz gutxiarekin egiten dugula. Amtes egiten dugunean, gehiena irudiak eta mugimenduak dira.

Pentsamendua, gure buruak egiten duen lana bada, gehiena ez da hizkuntzarekin egiten. Hizkuntza, gure buruarekin hitz egiteko erabiltzen dugula, gaineratu digu Itziar Lakak.

Erleen komunikazio-sistema, hizkuntza al da?

Martxel Aizpurua biologoa eta erlezaina da, eta Kike Amonarriz berarekin egon da, **erleen komunikazio-sistema** ikertzeko. Martxelek erleak dantza baten bitartez komunikatzen direla esan digu, eta dantza horren arabera jasotzen dute zer egin behar duten. Erleek komunikazio-sistema bat dutela baieztatu digu Martxel Aizpuruak, baina sistema hori ez dela hizkuntza gaineratu digu. Hizkuntza batek ikasia izan behar duela argitu digu Martxelek.



Erle jaioberriak senideak ezagutu gabe hartu, laborategira eraman eta mendian askatuko bagenitu, pauta berdinak jarraituko lituzkete, eta horrek esaten digu geneetatik datorrela informazio hori. Gainera, Europako, Amerikako, Afrikako edota Asiako erleek, komunikazio-sistema verdina erabiltzen dute.

Garunaren kaltetzeak hizkuntzaren galera ekar lezake

Hizkuntza garuneko zein tokitan kokatzen den argitu digu Itziar Laka hizkuntzalariak, baina zati hau kaltetzen denean, hizkuntza galtzea izan daiteke ondorioetako bat. Lore Erriondo EHUKo irakasleak esan digunez, **garunaren kaltetzeak, hizkuntzaren galera** ekar lezake.

Garuneko hizkuntza kudeatzen duen zatia kaltzen bazaigu, hizkuntza galtzera iritsi gaitezke. Zati hau kaltetuta badaukagu, zailtasunak izan ditzakegu hizkuntza erabiltzean. Kalteak traumek, kolpeek, ebakuntzek, tumoreek edo gaixotasunek eragiten dituzte, eta garunaren zati bat hiltzea eragin lezake. Iktusa izan daitezke ondorioetako bat, eta hizkuntza kokatuta dagoen tokia itzaltzen bada, hizkuntza galtzeraino iritsi gaitezke.

Hizkuntzaren galerari, Afasia deitzen zaio. Afasiak arazoak sortzen ditu adierazpenean eta ulermenean. Pentsamenduan ez luke eraginik izango, bai ordea, hizkuntzan.

Eleaniztunen eta elebakarren garuna, berdina al da?

Eleaniztunen eta elebakarren garunak ez du berdin lan egiten.



Honen inguruko xehetasunak **Mikel Santesteban EHUKo ikerlariak** eskaini dizkigu. Eleaniztuna izanda, bi hizkuntza edo gehiago menperatzen dituzu, eta ondorioz, bi sistema edo gehiago garatzen ditu zure garunak. Gainera, elebakar batek baino hitz gehiago ditu elebidunak, eta garunak lan gehiago egin behar du. Elebidun eta eleaniztunek bi hizkuntza (edo gehiago) aktibatzen dituzte aldi berean. Euskara eta

gaztelania menperatzen badituz, adibidez, zuhaitz bat ikustean “zuhaitz” eta “árbol” hitzak aktibatuko zaizkit, eta erabili nahi dudana hizkuntzako hitza aukera beharko dut. Ondorioz, ariketa mental bat egitera behartzen dut garuna.

Mikel Santestebanek elebiduna edo eleaniztuna izateak elebakarra izateak baino abantaila gehiago dituela adierazi digu. Adibidez, elebidunek garrantzirik ez duen informazioa baztertzeko erraztasun handiagoa dute. Elebiduna edo eleaniztuna izateak, Alzheimerre hiru urte atzera dezakeela diote espezialistek egindako ikerketek. Horrek ez du esan nahi Alzheimerre izango ez duzunik, baina gaixotasun degeneratiboak atzeratzen dituela baieztatzen dute ikerketek.

Baina, elebiduna edo eleaniztuna izateak badu desabantailaren bat ere. Mikel Santestebanek esan digunez, elebiduna den pertsona batek bere lehen hizkuntzan hitz egiten duenean, elebakarrak diren pertsonak baino milisegundo batzuk motelagoa da hitz egiterakoan.

38. EUSKARA IKASTEKO HAMAIKA BIDE

Gure hizkuntza ikasteko ezohiko bideak erabili dituzten lagunekin izan da Kike Amonarriz, **“Tribuaren Berbak”** saioaren bigarren denboraldiko laugarren atalean. **Euskara ikasteko hamaika bide** daude, ikasle ezberdinei egokitutako nahi adina era. Jende gehienak familian, eskolan, edota euskaltegian ikasi du euskara, ohiko bideak erabili ditu euskalduntzeko. Baina, zeintzuk dira **euskara ikasteko ezohiko bideak?**

Kolonbiako **Jose Miguel Ramirez** eta Greziako **Maria Spantidi** YouTube**n ezagun** egin dira. Biak ditugu euskaldun autodidaktak, eta euren kabuz ikasi dute euskara, **Euskal Herria zapaldu gabe**, gainera. Jose Miguel Ramirezek **15 hizkuntza dakizki**, eta **kuttunena euskara** du. Euskal Herria ezagutzeko asmoa du, berton lagun handi asko baititu. **Mariak 10 hilabete** besterik ez ditu behar izan **bere kabuz euskara menperatzeko**. Jose Miguelek bezala, Mariak ere **Euskal Herria eta gure kultura ezagutzeko gogo handia** du, baita euskara praktikatzeko ere.



Adam Zawiszwskik eta **Veronica Domingok**, berriz, euskara klaseak Polonian eta Argentinan jaso zituzten, **eta gerora etorri ziren gurera** ikasitakoa berrindartzera. **Veronicak** txikitatik izan du harremana euskararekin: **amona euskalduna** zuen. **Duela 20 urte** hasi zen Euskal Etxean euskara ikasten, **“Argentinan Euskaraz”** programaren bidez. Astean 2 klase ematen zituzten. Euskarak aukera asko eman dizkio Veronicak: alde batetik, amonarekin konplizitate handiagoa izatea lortu zuen; bestetik, euskal kultura ikasteko aukera eman zion. **Adamek**, aldiz,



unibertsitatean ezagutu zuen euskara. Frantses filologia ikasten ari zela, euskara ikasteko aukera eman zioten, eta izena eman zuen. Kikeri adierazi dionez, Poznanen 1991n ala 1992an hasi ziren euskara klaseak ematen. Astean, ordu t'erdiko 3 eskola ematen zituen, neguan Zornotzako barnetegian ikastaroak egiten zituen, eta udan ere etortzen zen ikastaroak egitera. Batueraz egiteaz gain, bizkaieraz ere egiten du Adamek. Egunero

erabiltzen duen komunikatzeko tresna da Adamentzat euskara.

Mungian izan da Kike Amonarriz, **euskaldunok etxetik eta eskolatik kanpo ikasten ditugun hizkuntzez** galdetzen. **Ingelesa eta frantsesa** dira gehien ikasten dituzten hizkuntzak.

Asko dira historian zehar **euskaraz ikasteko argitaratu diren metodo eta testuliburuak**, eta guztiak topa daitezke **Donostiako HABE liburutegian, Antiguu auzoan. 50.000 erreferentzia eta liburu baino gehiago** aurki daitezke bertan. Hainbat metodo erakutsi

dizkigu Kikek, hala nola “Euskera Viviente/Euskara Bizia” harribitxia, CCCko kaseteak, edo “Bai Horixe” euskara ikasteko egin zuten lehen telebistako saioa.



Euskaltegiek ohiko aurrez aurreko eskolez gain eskaintzen dituzten aukerak azaldu dizkigu Kikek. Klase presentzialez gain, **autoikaskuntza gero eta gehiago** erabiltzen dute. “Bertxo” irakasleak azaldutakoaren arabera, ikasleek, ordenagailuaren aurrean ikasten dute. Horrez gain, klasera ere joaten dira. Zuriñe Abasolo **autoikaskuntza bidez ari da euskara ikasten**: alde batetik, ez du

denbora askorik lanaren ondorioz, eta aurki ama izango da.

Adina ez da arazo izaten ikasteko gogoia dagoenean. Txorierriko hainbat **edadedun lagunek euskara zergatik ikasten ari diren** azaldu diote Kikeri. Maria Gaston irakasleak azaldutakoaren arabera, 60 urtetik gorakoak dira bere ikasleak, eta astean hirutan biltzen dira: birritan klase normalak izaten dituzte, eta hirugarrenean beste talde batekin biltzen dira mintzapraktikak egiteko. Hona hemen, euskara zergatik ikasten ari diren: batez ere **bilobekin euskaraz hitz egiteko**, erronka modura, abesbatzan abesten dituzten kantuak ulertzeko, gure aberriaren hizkuntza delako...



Gurera **atzeritik heldutako gaztetxoek ere ikasten dute euskara**. Joseba Ibarra kultur arteko hezkuntza arduradunak **gaztetxo etorkinak nola euskalduntzen diren** azaldu dio Kikeri. Beste hizkuntzak erakusten diren bezala, **euskara ere maitasun handiz irakatsi behar dela** dio Josebak. Batez ere, ikasle etorkinak, gainerako ikasleekin batera, eskolako dinamikan sartzea lortu behar da, berriek euskara ikas dezaten.



Saharako Carama Mohamed eta Burkina Fasoko Talato Zeina Zongo euskaldun berriak dira. Caramak 12 urte ditu, eta duela 3 urte etorri zen Euskal Herrira. Zeinak 13 urte ditu, eta duela 4 urte etorri zen gurera. **Euskara ikastea erraza** egin zaien arren, **aditzak pixka bat zailak** direla aitortu dute. Zeinak euskal musika maite du: Ken Zazpi, Betagarri... Caramari liburuak gustatzen zaizkio. Biei gustatzen zaizkie **udalekuak**.

Hizkuntza bat ikasteko hamaika aukera daudela ikusi dugu, beraz, norberak berea aukera dezala.

39. OKZITANIERA, EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA

Okzitaniako hizkuntzak bizi duen egoera izan du hizpide aste honetako **'Tribuaren Berbak'** saioak. Hizkuntza erromanikoa da okzitania, eta, Frantziako hegoaldean ez ezik, Espainian, Italian eta gurean ere hitz egiten da, okzitania ere Euskal Herriko hizkuntza baita.

Bi milioi hiztun dituen hizkuntza

Okzitaniaraz hitz egiten den eremua lau estatutan banatuta dago: Italia, Monako, Espainia eta, bereziki, Frantzia hegoaldeko eremu osoak. Okzitaniararen egoera hobeto ulertu ahal izateko, Franck Dolosor kazetariarekin elkartuko da Kike Amonarriz. Harek azaldu digunez, **bi milioi hiztun ditu okzitaniaraz, Frantzia hegoalde osoan sakabanatuta** eta, beraz, galduak bezala dira. Dolosorren hitzetan, 'ospe gutxi izan duen hizkuntza izan da azken urteetan' eta, halaber, ez da ofiziala eta gutxi irakasten da. Interneti esker, baina, argi batzuk ikusten direla gaineratu du Dolosorrek.

Erdi aroan pisu handiko hizkuntza izan zen okzitania, Dolosorrek azaldu digunez. Euskal Herrian duela urte batzuk hiztun ugari bazeuden ere, gehienak adin handikoak izanik, azken urteotan atzerakada handia izan dela jakinarazi digu kazetariak. Baionaren kasuan, esaterako, hango hizkuntza ofiziala ere izan zen okzitania.

Hizkuntzaren egiturari dagokionez, katalanaren antza handia dauka okzitaniaraz, Dolosorrek azaldu digunez, izan ere, lexikoaren %80 inguru berdina dute.

Gaskoia dialektoaren berezitasunak

Bruno Sallaberry musikariarekin egin du hitzordua Kike Amonarrizez, Bidaxuneko gazteluan, **gaskoia dialektoaren berezitasunak ezagutzeko**. Bidaxunekoa bertakoa da Sallaberry eta gaskoia etxean ikasi zuen, hango hiztun gehienek bezala. Herritar askok euskal abizena badute ere, batik bat gaskoiez hitz egiten dela azaldu digu musikariak; gaineratu duenez, euskara eta gaskoia menperatzen dute herritar askok eta elkarriketa berdinean, frantsesarekin nahasten dute. Bera euskal herritarra sentitzen da txikitatik, baina baita gaskoia ere; Euskal Herrian zein Okzitania osoan, bietan sentitzen dela etxean azaldu digu Sallaberryk eta, musikaria izanik, kantatu ere euskaraz zein gaskoiez kantatzen du.



Okzitaniaraz Donostia eta Pasaia inguruetan utzi duen arrastoa



Aditu batzuen ustez, gaskoiera hizkuntza bat da; aditu gehienek ustez, berriz, okzitaniararen dialekto bat besterik ez da. Hori bai, denak bat datoz esatean Gipuzkoan aspaldi galdu zen arren, bere aztarnak hor daudela oraindik.

Bada, **Gipuzkoan utzi duen arrasto horren berri izateko**, Joxe Ramon Zubiaur hizkuntzalariarengana jo du Kike Amonarrizek. Ulian elkartu dira, Donostian, izan ere, gaskoiak inguru haretan kokatzen ziren. Beste halako gune

batzuk ere aipatu dizkigu Zubiaurrek: Urgull, Morlans, Miramon, Getaria, etab. XII. mende bukaeran hasi eta XIX. mendera arte dezente hitz egiten zen gaskoieraz Pasaia inguruan. XX. mendean ere tertulia bat egiten zen Donostian gaskoieraz. Gaur egun ere baditugu hainbat dokumentu hizkuntza hartan jasotakoak.

Okzitania, Durangoko Azokako herrialde gonbidatua

Okzitaniar kulturara hurbildu nahi izatera, aurten Durangoko Azokan aukera aparta izango duzue, **herrialde gonbidatua Okzitania** izango baita. Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko lehendakariak berak jakinarazi digunez, kultura gutxiak dituzten kanpoko herrialdeak ekarri nahi izan ditu Durangoko Azokak 2006tik hona. 'Hurbil dagoen herrialde kulturala, baina aldi berean guretzat oso-oso ezezaguna dena', halaxe definitu du Mujikak Okzitania. Ilusioz jasoko dute euren bisita eta sarrera hitzaldia okzitaniako idazle baten esku izango da aurtengo edizioan.



'Akitanian biztanle erdiek okzitaniarra ulertzen dute'



Pier-Paul Berzaitz abeslariak aitortu digunez, Pau eta Zuberoa artean bizi da. **Pauen bertan okzitaniarra oso gutxi entzuten da** haren esanetan, hitz solte batzuk baino ez. Hala ere, Pauko plazan udan jai handia egiten da eta hor okzitaniaraz hitz egiten duen jende ugari batzen da. Pauko euskal etxera joz, bertatik bertara ezagutu dugu Euskal Herria

biziarazten duten hainbat ekimen lantzen dituzten gunea.

Handik, Pauen dagoen Okzitaniako institutura egingo dute Pier-Paul Berzaitzek eta Kike Amonarizek, hango zuzendari Joan Breçekin elkartzeko. Haren hitzetan, euren helburua zera da, **okzitaniarra gizarteratzea eta kultur ondare inmateriala sustatzea**, hau da, dantza, ipuinak, abestiak, etab. Akitanian biztanle erdiek ulertzen dute okzitaniarra eta %10ak hitz egiten du, Breçek jakinarazi duenez. Gaur gaurkoz euren erronka hizkuntza politika baten bidez berreskuratzea da, bi arrazoi tarteko: bizitasuna galdu dela, eta baita kalitatea ere. 'Eskaera sozial handia dago eta hizkuntza ikasteko eskolak zabaldu behar ditugu, familia jada ez baita transmisio gune', gaineratu du Breçek.

Akitaniako Calandreta, Euskal Herriko ikastolaren parekoa



Euskal Herriko ikastolaren parekoa da **Calandreta, okzitaniarazko murgiltze eskolak** ematen dira bertan eta Isabèu Vergnes hango zuzendariarekin okzitaniararen etorkizunaz mintzatu da Kike Amonariz. Okzitaniako lurralde osoan dauden Calandretetan 3.500 ikasle inguru dituzte eta hara doazen ikasle gehienek ez dute etxetik jaso okzitaniarra. Gero eta ikasle gehiago jasotzen dituzte Calandretetan, Vergnesen esanetan, eta ikasle horiek hizkuntza irakasteko ahalmena izateaz gain, okzitaniaraz bizitzeko gai dira. Hala ere, Vergnesen argi utzi nahi izan du baliabide gehiago behar dituztela hizkuntza gizarteratzeko eta hedatzeko.

Oraindik ez dakigu gurea ere baden okzitaniararen egoera nola bukatuko den; egia da egoera ez dela samurra, baina oraindik ere garaiz gabiltza egoera hori irauli eta ipuinari amaiera zoriontsua emateko. Ta, hala izan dadin, sar dadila kalabazan eta irten dadila Pauko plazan!

40. KULTURA EXPORT

Gutxi edo asko, herrialde guztiek esportatzen dute zer edo zer. Baina, **nola esportatzen da kultura?** Ez al da paradoxa gure kultura kanpoan ezagutzea nahi izatea, baina kanpoko kulturen gauza handirik ez jakitea? **Euskal kultura esportagarria al da?** Galdera horiei erantzuten saiatu da aste honetako 'Tribuaren Berbak' saioa Kultura Export izeneko atalean.

Berri txarrak: 20 urte mundutik zehar euskara zabaltzen



Lekunberriko musika taldea **nazioartean gehien ezagutzen den euskal taldeetako bat** da. Bada, euskal kultura esportagarria den jakiteko, taldeko abeslari Gorka Urbizurekin elkartuko da Kike Amonarriz. Euren ibilbideari begiratuta, jotzen hasi zirenetik hona, hiru kontzertutik bi euskal herritik kanpora eskaini dituzte. Urbizuren hitzetan, horrek adierazten du **posible dela euskaraz**

kanpoan ere bidea egitea. Mota ezberdinetako kontzertuak jo dituzte, herrialdetik herrialdera alde handia baitago. Euskal herria ez da horren ezaguna kanpoan, Urbizuren ustez, eta askotan azalpenak ematen ibili izan dira, nondik datozen, euren hizkuntza zein den, etab. 'Agian denbora behar dugu gure sistema txiki honetan sinisteko eta ikusteko esparru askotan kalitatezko gauzak dauzkagula', gaineratu du Urbizuk.

Halaber, **inportatzeaz** ere aritu da abeslaria. Euskaldunok gurean lantzen den horren berri zenbaiteraino dugun galdetzea ere garrantzitsua da haren ustez. 'Beharbada askok erantzun berdinak emango lituzteke edo bat bere ere ezagutu ez', dio Urbizuk.

Etxepare Euskal Institutua

Euskara eta **euskal kultura munduan barrena zabaltzea du ardatz eta xede institutuak.** Institutuko zuzendari Aizpea Goenagak azaldutakoaren arabera, munduan dauden kulturei buruz ezer gutxi dakigu. Hala ere, baditugu bi gauza gure alde, haren hitzetan: euskara, hizkuntza bezala jankimin handia sortzen duena, eta maila altuko artistak. **Gurean egiten dena**



kanpoan ezagutarazteko seinaleztat jo du euskal kultura Goenagak, ikur bat, eta hori kanpoan ezagutarazteak duen garrantzita azpimarratu du. Bide horretan, sortzaileen lana bultzatzeaz gain, Etxeparek berak koproduzitzen dituen ekimenak aipatu ditu Etxepareko zuzendariak.

Mariasun Landa, bigarren euskal idazlerik itzuliena



Estatu mailan Landaren liburu asko itzuli dituzte, baina **atzerriko beste hamabi hizkuntzatarara ere itzuli dituzte haren liburuak**. Idazlearen esanetan, norberak komunikatzeko idazten du, adierazbide bat da idaztea eta, hortaz, zenbat eta jende gehiagorengana helduta, are eta hobeto. Hala ere, kanpoko irakurleen erantzun gutxi jaso

dituela aitortu du Landak. Errusiarren kasua nabarmendu du, 'hango kultura maila eta zer modu sakonean irakurtzen duten harritzekoa da', Landaren hitzetan.

Euskal kultura Donostia 2016an

Euskararen eta euskal kulturaren esportazioaz ari garela, Donostia 2016 ekimenak horren inguruan zer duen esateko jakin nahi izan du Kike Amonarrizek, eta hori argitzeko, Xabier Paya Donostia 2016 Kultur zuzendariarengana jo du. **Hizkuntzen arteko elkarbizitza** eskuartean dituzten proiektu denetan egon behar dela presente azpimarratu du Payak.



Halaber, proiektu zehatzagoak aipatuz, esaterako, Shakespearen 'Uda gau betako ametsa' itzultzeko lana dute eskuartean, Juan Gartziaeren eskutik. **'Hizkuntzen arteko elkarbizitzarako tresnak sortu nahi ditugu, kultura, arte edo teknologiaren bidez'**, gaineratu du Payak.

Dantza eta antzerkia uztartuz



Jarraian, Mireia Gabilondo Tanttaka antzerki taldeko kidea eta Jon Maya Kukai dantza taldeko kidea izan ditu bidelagun Kike Amonarrizek. Bi disziplinak uztartzeko garrantzitsuena horretarako gogoia izatea dela estean bat datoz bi artistak. **'Hitzak azaltzen ez direnean ere, gure dantzak badu giro bat eta euskara azaltzen ez denean ere, gurekin daramagu'**, dio Mayak. Bestalde, Gabilondok

azaldu duenez, euren ikuskizunak jatorrizko bertsioan egiten dituzte eta geroz eta jende gehiago joaten da mota horretako ikuskizunetara. Jasotako arrera oso ona izan dela azpimarratu dute biek ere; azken finean, jendeak interesa baduela eta, **euskararen esportazioaren bideak eta aukerak badaudela** azpimarratu dute.

Azken finean, edozein kultura lanen helburua ahalik eta jende kopuru handienara iristea da eta hortxe datza **mundura ateratzearen eta esportazioaren garrantzia**. Bernart Etxepare gure lehen idazleak horixe zuen buruan 1945ean hau idatziz zuenean: **'Euskara, jalgi hadi mundura'**

41. ETXE BARRUKO ERRONKA

Zein erronka ditu euskarak etxe barruan?

Euskarak etxe barruan gainditu beharreko erronkei buruz aritu dira Kike Amonarriz eta konpainia **Etxe barruko erronka** atalean. Etxean, familian... belaunez belaun transmititu izan da beti euskara. Garai bateko kontua da hori, ordea, gaur egun gauzak aldatu egin baitira. Datu esanguratsu bat: gazteen euskaldun kopurua handituz doa, baina etxean euskararen erabilera ez da maila berean igo. Zergatik? Erantzunak ematen saiatu da “Tribuaren Berbak”.

Zarauzko Orokietan Herri Eskolan hasi du Kike Amonarrizek saioa, **ikasleek etxean erabiltzen dituzten hizkuntzez** galdezka. Hona hemen Kikek aurkitu dituen emaitzak.

-Batez ere **euskaraz** egiten duten **familiak**: 5.

-Batez ere **gaztelera** erabiltzen duten etxeak: 6.

-**Euskara edo gaztelera ez den hizkuntza bat** erabiltzen duten etxeak: 2.

-**Euskara eta gaztelania** uztartzen dituzten familiak: 11.



Ondoren, **Ortiz Perez familiaren etxean** izan da, **zein hizkuntzatan bizi diren** jakiteko. Zarautzen bizi diren arren, **Maria Jesus Perez** eta **Ubaldo Ortiz** gurasoak Barakaldokoak eta euskaldun berriak dira. **Ubaldok unibertsitate garaian ikasi zuen euskara** euskaltegian. **Maiden eta Ander Ortiz** dira beraien **seme-alabak**. **Nagusiki gaztelera hitz egiten dute etxean**, baina noizean behin **euskara** erabiltzen dute: **etxerako lanak** egiterako orduan, lagunak etxera doazenean... Ubaldok azaldu duenez, **zaila da hizkuntza ohiturak aldatzea**.

Gaur egun familia hitzaren esanahia lehen baino askoz zabalagoa da, eta **familia egituren aldaketa** errealitatea da. Horrek **euskararen transmisioan eragin handia** izan du. Horretaz aritu da Kike **Jorge Gimenez Hizkuntza Politika sailburuordearekin**. Honek azaldu duenez, **familia egituren aldaketak eragin zehatza izan du euskararen erabileran**. Duela 20-30 urte, euskaldunek euskaldunekin sortzen zituzten familiak, beraz, euskaraz egiten zuten familia kopurua txikiagoa zen. Orain, aldiz, **gero eta familia misto gehiago** daude, hau da, guraso bat euskalduna da eta bestea erdalduna. Ondorioz, **hizkuntzen erabilera aldatu** egin da. Dena den, **euskararen etxeko erabilera ez da aldatu azken 20 urteotan**. Bestalde, **euskaldun kopurua asko igo da** azken urteotan, eta horrek **eragina izan lezake etorkizunean**. Azkenik, **etxean euskara bultzatzeko ekintzez** aritu dira. Jorge Gimenezek azaldu duenez, dentsitate arazoak dauden tokietan euskal hiztunak biltzea da ekimenetako bat.





Gai horrekin jarraituz, **familia eta euskara uztartzeko helburua duen programa** batez aritu da Kike Laura Martinez euskara teknikariarekin. **Eman Giltza** ekimenaren bidez, gurasoen zalantzak eta kezak argitzen dituzte, webgune baten bidez. Beraien esperientziak ere azaltzen dituzte, guraso guztiek antzerako arazo eta zalantzak ikus ditzaten. Bestetik, etxean seme-alabekin

euskara erabiltzeko materiala jarri dute gurasoen esku. Haurrek euskara erabiltzeko jokoak ere badaude Eman Giltzaren webgunean. Azkenik, haurrek euskaraz irakurtzeko eta aisialdian euskara erabiltzeko ekimenak ere badituzte martxan Txorierriko Mankomunitatean.

Kale inkestaren atalean, haur hizkeraz galdetu die Kikek **Hernaniko** herritarrei. **Ba al dakite hitz hauen esanahia?** apatx (eseri), **apapa** (kalera joan), kokolo (txokolatea), **mama** (edaria), pa (musu), **txitxi** (haragia), txutxu (txoria), **pitxitxi** (katua), kika (hortzak), **papo** (amaitu), ninia (umea), **maite** (laztandu), pupu (mina), **fu** (putz egin)...



Saioa bukatzeko, **Paula Kasares soziolinguistak** Lasarte-Oriako **Sasoeta-Zumaburu** ikastetxeko **gurasoek euskararen etxeko erabileraz dituzten duda eta galderei erantzun** die.



-Nire bikoteak euskara gutxi daki. Hurrekin gaudenean euskara gutxi hori praktikatu behar du hurrekin ala euskara erabili behar du? Kasaresek azaldu duenez, ez dio arazorik ikusten bere bikotekideak seme-alabekin euskaraz hitz egiteari. Zuzentasuna garrantzitsua den arren, gurasoen eta haurren arteko harremanean ez da garrantzitsuena.

-Nola transmititu euskararen erabilpena herri erdaldun batean? Guraso euskaldunek ulertu behar dute hurrek, komunikatuko baldin badira, sarritan erdaraz egin beharko dutela. Bestalde, etxe erdaldunetako haurrak euskalduntzen direnean, hizkuntza portaerak aldatu behar dituzte, gainerako euskaldunekin ere euskaraz egiteko.

-Etxean euskaraz hitz egiten dugu, baina eskolako lagunekin erdaraz komunikatzen dira. Nola egin umeei beraien artean euskaraz komunikatzeko? Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da, sarritan laguntza behar du.

-Kubatarra naiz eta ez dakit euskaraz. Nola lagunduko diet seme-alabei etxeko lanekin? Edukiekin laguntzea baino garrantzitsuagoa da, Paula Kasaresen ustez, motibazioarekin laguntzea.

-Nire bikotea eta ni euskaldun berriak gara. Nola egin gure alabak etxean ere euskaraz egiteko? Euskara konplizitate elementu bilakatuko luke bere alabarekin.

Familiartean erabiltzen dugun hizkuntza euskara izatea **gure esku dago**. Beraz, **etxe barruan euskara gehiago** entzun nahi baduzue, egin besterik ez duzue

42. EUSKARA JUSTIZIA ESKE



Euskarak justizia munduan duen presentzia arituko da hurrengo Tribuaren Berbak saioa. Izan ere, EAEko justizia administrazioan euskaraz aritzeko eskubidea du herritarrak, baina legeak hala badio ere egunerokoan gauzak arras ezberdinak dira, eta gaztelera nagusitzen da aretoetan.

Juana Goizueta EHuko Zuzenbide fakultateko dekanak, euskarak zuzenbide ikasketetan duen lekuaren berri emango du. Eta epaiketa batean parte hartzen duten agente ezberdinen lana zein den azalduko dute epaile, abokatu, fiskal, idazkari judizial eta prokuradore banak.



“Auzia euskaraz” proiektuko kide den Xabier Balerdik egitasmo horren berri emango du, epaitegien euskara gehiago entzuteko jorratzen dituzten bideak azalduko ditu. Jaime Tapia epaileak epaile euskaldunen berri emango du, eta auziak epaile euskaldun batek zuzentzeak duen garrantzia aipatuko du.

Jon Goiekoetxea itzultzaileak berriz, bere jardunaren berri emango du; epaiketan alderen batek euskara jakin ez eta epaiketa euskaraz egiten denean zer gertatzen den, alegia. Igor Ispizua notarioak etxe eskriturak, testamentuak eta gainerako dokumentuak euskaraz egin daitezkeela azalduko du, baina gutxi direla aukera horri heltzen diotenak. Jaime Elias Bizkiako abokatuen elkargoko abokatu euskaldunen ordeazkaria berriz, justizia euskalduntzeko erronkaz eta bere esperientziak arituko da.



43. KOSTALDEKO ENKANTUA

Ze egoeratan dago euskara gure kostaldean?

Euskal Herriko **kostaldeko hizkerak**, **kostaldeko euskarak**, aztertu ditu aste honetan “**Tribuaren Berbak**”, ETB1eko saioak. Lekeitio eta Bermeotik hasi eta Miarritzeraino, hainbat herritako euskara eta hizkera propioak mantentzeko dauden ekimenak ezagutzera eman ditu **Kike Amonarrizek** saio honetan.



Bizkaian hasita, **Lekeitio eta Bermeoko euskara** aztertu duten bi filologo izan ditu lagun: **June Lauzirika eta Jone Aboitiz**. Bi hizkera hauek 20-25 urte inguruko 20 gazteren hizkerak aztertu dituzte bi neska hauek, azken urteetan euskalki hauek aldatzen ari ote diren ikusteko. Eta bai, **aldatzen ari direla** nabarmendu dute. Alde batetik, beste hizkuntzetako hitzak eta hauen

bariazioak ugaritu direlako (porrejenplo, tipo, rollo, fifti-fifti...). Eta, bestetik, beste euskara batzuen (batuaren edo inguruko herrietako euskaren) eragina handitu delako; adibidez, lehen entendidu erabiltzen zuten eta orain ulertu.

Ekialdera eginez, **Ondarroako hizkera** ezaguna da Euskal Herri osoan, euskarari ematen dizkion hitz berezi pila direla eta. **Iñigo Zabala** ondarrutarrarekin egin du zita Kikek, azken urte hauetan euren hizkerarekin izan dituen esperientziak entzuteko. Besteak beste, **Kakatzan mendi-bizikleta lasterketako** kartelen egilea izan ohi da. Urtero, sare sozialen bidez Euskal Herri osora zabaltzen dira lasterketa honetarako egiten dituen kartel umoretsuak.



Eta zuek... ba al dakizue zer esan nahi duten **intxirrikatu** edota **lantzoi** hitzek?



Zarauzko eta Orioko euskarak, gertu egonagatik ere, ezberdintasun asko dituzte. Zarautzen, **Gaztetxera** gerturatu da “**Tribuaren Berbak**” saioa eta **Iker Itxaso eta Jone Azkoaga** aurkitu ditu han. **Zarauzko euskararen** berezitasunetako bat da mutilen artean hitanoaren erabilera oso zabaldua dagoela, gazte nahiz zaharren artean. Horrez gainera, badituzte hainbat hitz oso bertakoak direnak; **txaparro**

adibidez, uretarako edozein jantziri (bainujantzi, neopreno, bikini...) esaten diote horrela.

Oriok ere itsasoarekin lotutako hitz pila ematen dizkio euskarari (**txikota, arranpla, mutiloia...**) eta herri euskaldunaren fama izan du beti. Baina **Jabier Zabaleta euskara teknikariak**, esan digunez, duela 25 urte egindako ikerketa baten ondorioz, gazteen %30ek soilik erabiltzen zutela **euskara Orioko kaleetan** konturatu ziren. Orduan martxan jarri zuten euskara sustatzeko plan batean bi eskolak eta gazte pila bat inplikatu zituzten, eta, gaur egun, %90era igo da zenbaki hori.



Azkenik, **Miarritzeraino** iritsiz, hiri kosmopolita eta surflari honetan euskarak duen presentzia ez dela oso ona esan digu **Eneko Gorri euskara teknikariak**. Baina azken urteetan zantzu positiboak antzematen dituztela esan digu; esate baterako duela 20 urte ia inork ez zuen euskaraz ikasten eta gaur egun, haurren %25 ari dira gure hizkuntzan hezkuntza jasotzen.

Turismoari begira dagoen hiri honetan **euskararen alde egindako ekimenetako** bat, poltsikoko hiztegi ttipiak argitaratzea izan da. Hainbat gairi buruzko hiztegitxoakatera dituzte euskara alor guztietan eta jende guztiarentzat erabilgarria izan dadin.

Ipar Euskal Herriko kostaldean surfak duen indarra ikusita, **euskara eta surfa** uztartuko dituzten ekimen ugari egiten dituzte, euskara bizitzako alor guztietan erabili daitekeela erakusteko. **Ander Ithurbide, Txomin Sorraits eta Iban Ithurbideri** esker surf eskolak euskaraz hartu daitezkeela edota, Glissegunak ekimenari esker, surfean euskaraz aritu daitekeela jakin dugu



44. KIROL LEHIAN

Kiroletan ere... euskaraz!

Kirola euskaraz egiteak duen garrantziaz jardun da Kike Amonarriz aste honetako 'Tribuaren Berbak' saioko "Kirol Lehian" atalean. Kirolak integrazioa bultzatzen du, eta gauza jakina da koordinazioa eta psikomotrizitatea ere hobetzen dituela. Osasuntsua ere bada, eta euskaraz praktikatzuz gero, gainera, gure hizkuntza sano biziberrituko da.

Ume bakoitzak bere bilakaera du. Batzuk bederatzi hilabeteekin korrika ibiltzen dira, eta beste batzuek 18 hilabete beharko dituzte bere lehen urratsak emateko. Hori bai, azkenean, den-denek oinez egingo dute. Ibiltzearekin nahikoa izan ez, eta parkourra edota antzeko mugimenduen jarraitzaileak gero eta ugariagoak dira. Hauek aurrean aurkitzen dituzten oztopoak gorputzak eskaintzen dizkien abileziekin gainditzea dute helburu.

Kirolak integrazioa bultzatzea, lotsa eta indibidualismoa gainditzea eta koordinazioa eta psikomotrizitatea hobetzea ahalbidetzen du. Kike Amonarrizek kirolariekin eta hezitzaileekin hitz egin du, gaiaren gainean gehiago jakiteko helburuarekin.



Aretxabaletako ikastolako futbol zelaian hasi du Kike Amonarrizek saioa, eta bertan, **Igor Arenaza UDAko kirol zuzendariarekin** izan da. Gaztetxoan artean euskara bultzatzeko orduan, begiraleek zein hezitzaileek duten garrantziaz aritu dira. Eskolaz kanpoko kirolak gero eta ugariagoak dira, eta kalitate maila igo behar dela uste du

Arenazak. Formakuntza euskaraz egitea ezinbestekoa ikusten du, eta ingurukoek euskaraz egiteak haurrengan daukan eragina azpimarratu du Igorrek. Gainera, Aretxabaletak Eskuak proiektua ipini du martxan. Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz esan nahi du ekimenak, eta horren bitartez motibazioa eta ilusioa areagotu nahi da, zeharka landu daitezkeen baloreak aprobetxatuz.

Ondoren, Maider Unda, Leire Olaberria, Gaizka Garitano eta Matxalen Ziarsolorekin hizketan izan da Kike, eta euskarak euren kirol jardueran duen presentziari buruz galdetu die.

Maider Undak Olinpiar Jokoetan brontzezko domina lortzeko asko borrokatu zuela aitortu du, baina euskaraz bizitzeko ere esfortzu handia egin behar izan duela baieztatu du. Euskara egunerokoan hurbil dauka, baina kanpoan ez duela egiten esan du, normalean euskaldun bakarra delako.



Gaizka Garitano Eibarko entrenatzaileak ondo ezagutzen ditu Athleticeko, Realeko, Alaveseko eta Eibarko aldagelak, hori dela eta, futbol taldeetan euskarak duen lekuari buruz aritu da. Euskaldunon hizkuntza eguneroko tresna dela baieztatu du, eta horrek eragiten duen harrotasuna nabarmendu nahi izan du jokalaria ohia.

Leire Olaberria txirrindulariak ingelesa erabiltzen du normalean, baina euskaraz baliatzen da euskal selekzioarekin. Matxalen Ziarsolo Bera-Berako jokalaria, ordea, euskaraz bizi dela azaldu du, eta kontatu du taldeko atzerriko jokalaria hitz batzuk ikasten ari direla.



Euskarak munduan barrena hainbat hitz zabaldu ditu, eta kirolaren munduan “Jai Alai” izan daiteke zabaldiena. Frantzian, Espainian, Estatu Batuetan, Mexikon eta Filipinetan, batik bat, zesta punta “Jai Alai” izenez baita ezaguna. Kirolari profesionalak eredu dira askorentzat, baita hizkuntza kontuetan ere. Hori dela eta, Leitzako pilotalekura jo du Kikek, eta **Abel Barriola** pilotariarekin bildu da kirolari ezagunek euskaraz hitz egiteak duen eraginaz solasean. Abelen ustez telebistan egiten dena eragin zuzena dauka gazteetan. Eurentzako eredugarriak diren pertsonen ohiturak errepikatzen dituzte, eta hizkuntza ohitura horien artean dagoela esan du. Izan ere, aitortu du pilotan hitz tekniko asko erdaratik datozela, eta apustuak ere gaztelaniaz egiten direla kirola Euskal Herritik kanpo jokatzan delako, eta negozioa ulertu behar delako.

Jose Angel Iribarre Athleticen 18 denboraldi, eta 614 partidu jokatu zituen. Gaur egun Athleticekin partidu gehien jokatu dituen jokalaria da. Hala ere, askok 1976 urtean Atotxako zelaira ikurrinarekin ateratzeagatik izango dute gogoan. ‘Kirolkidea’ kirol hiztegiaren bultzatzaile nagusia izan zela, ordea, jende gutxi daki. Iribarre adierazi du hiztegia hutsuneak betetzeko bultzatu zuela. Garai hartan tarte izugarriak ikusten zituen kirol munduan, eta bere ibilbide profesionalaren amaiera zela aprobetxatuz zeozer itzuli nahi izan zion kirolari. Momentu horretan dena gaztelaniaz eta ingelesaz bazen ere, Iribarre aitortu du egoera asko aldatu dela, eta euskararen presentzia areagotu egin dela Lezaman eta klubean. Gero eta gehiago entzuten da zelai barruan eta kanpoan, baina erabiltenean oraindik lana dago egiteke.



Lezamatik Anoetara joan da Kike Amonarriz, eta **Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kazetariarekin** gauzak zenbat aldatu diren izan dute hizpide. Izan ere, futboleko zein beste kirolaren euskararen erabilerak bilakaera handia izan duela baieztatu du esatariak. Kazetaritzan aldaketa hori asko nabaritu da, garai batean herri kirolak bezalako modalitateetan bakarrik erabiltzen zelako euskara. Iribarren ustez asko igartzen dira eman diren urratsak, eta nabarmendu nahi izan du profesionalak txapelketa garrantzitsuetan euskaraz eskerrak emateko detaileak daukan eragina.

Curling-a eskoziar jatorriko kirola da, eta izotz gainean praktikatzen den petanka antzekoa dela esan daiteke. Baina petanka ez bezala curling-a kirol olimpikoa da, eta Gasteizen ere, zale anitz ditu. Kike **Harrikada Curling Taldeko kideen entrenamenduan** izan da, euskaraz edozein kirol praktika daitekeela erakusteko. Itzulpen erraza daukaten hitz batzuk erabiltzen badituzte ere, terminologia aldetik dena egin behar dutela aitortu dute jokalariek.



Gaur egun, kirol bitxi asko daude: urpeko errugbia, bizi-poloa, jugger izeneko kirola, burbuila futbola... Azkenean berdin du zer kirol aukeratzen dugun, kontua ondo pasatzea da, eta euskaraz bada... hobeto. Ondo izan eta hobeto bizi

45. IRUÑEA, HIRI BURUZAGIA

Nafarroako hiriburuan izan da oraingo honetan Kike Amonarriz. Bertako biztanleen ohiturak eta euskarak bertan bizi duen egoera bertatik bertara ezagutzera gerturatu da Iruñeara.

Gaur egungo euskararen mapatik nabari urrundu den lurraldea izanik, **geure hizkuntzaren aztarna esanguratsuenak** gordetzen ditu Iruñeko hiriak. Datu historiko horien bila gerturatu da Kike Iruñeko San Jose plazatxora. Bertan, **Kike Diez de Ultzurrun itzultzailearekin** elkartu da. Kikek Labrit Tours izeneko enpresarentzat egiten du lan, Iruñean zehar euskararen aztarnak jarraituz **ibilbide turistikoak** antolatzen dituen enpresa.




Kike Diez de Ultzurrunek azaldu digunez, San Jose plazan dagoen Iruñeko Katedralean, **'Lingua Navarrorum'** agiria aurkitu zuten duela 60 urte inguru. Agiri hau latinez idatzita dagoen arren, euskarazko hitz eta esaldiak gordetzen ditu bere baitan. Honen harira, Kike Diez de Ultzurrunek Iruñean euskarak izandako garrantzia ulertzeko gako bat eman digu: XVI.mendetik hasita XIX.mendera arte,

sinestunak euskaraz konfesatzen ziren Iruñeko apaizekin.

Gainera, plaza inguratzen duten bi eraikinetan, euskararekin lotura estua duten ekimenak aurrera eramanez dira historian zehar. Izan ere, **gerra osteko lehen euskaltegi eta ikastolak** bertan izan zuten egoitza.

Euskarak Iruñean izandako garapen historikoa aztertuta, Kike Amonarrizek Iruñea eta inguruetako kultura eta artearen esparruan hizkuntzak duen presentzia behatu nahi izan du. Horretarako, **Oier Zuniga aktorea eta Angel Erro idazlearekin** izan da.

Angel Erro idazlearekin **Iruñeko Katakarak kultur gunean** egin dugu topo. Kultura eta literaturaren alorrean **euskararen egoeraz kezkatuta** dagoen euskaldun berria dugu Angel. Bere aburuz, sinesgaitza da kanpoko hizkuntzak ikasi eta euskara alde batera uzteko dugun gaitasuna.



Artearen ibilbidea jarraituz, Oier Zuñiga aktorearekin batu gara **Gayarre Antzokian**. Oierren esanetan, Nafarroako euskarazko kultura eskaintza oso murrizta da. **Instituzioen babesa ez izateak prozesuak nahiko atzeratzen dituen arren, sormena azaleratzen laguntzen duela adierazi digu.** Euskarazko eskaintza hori aberasteko asmotan, **Labanaroa Antzerki Taldea** sortu zuen Oierrek,

Laura Villanueva eta Maialen Diazekin batera.

Euskarazko hezkuntzaren alorrean ere Iruñea eta Nafarroak biztanleek egoera larria bizi dutela jakinarazi digu gure laugarren gonbidatuak. **Jon**



Mattin Matxain EHUko eta DIPCKo ikertzaileak, bere esperientzia propiotik abiatuta, Nafarroan, **euskarazko ikasketak gauzatzeko dauden zailtasunez hitz egin digu**. Bere ikasle garaietan euskaraz ikasi nahi zuela kontatu digu Jon Mattinek, eta, Nafarroan aukera hori ez zegoenez, Donostian ikasi behar izan zuela. Baina, duela 20 urte gertatutakoa, gaur egun ere errepikatu egiten da. Jon Mattin Matxainek Donostiako Unibertsitatean (EHU) ematen ditu eskolak eta bere ikasleen artean, bertara euskaraz ikasten joan diren nafarrak ditu. Irakasleak adierazi digunez, **Nafarroan, zientzien alorreko gradu bat euskaraz ikastea ezinezkoa da**. Irakasgai batzuk euskaraz ikasteko aukera dagoen arren, ezinezkoa da gradu osoa euskara hutsean egitea.

Azkenik, **Reyes Ilintxeta kazetariarekin** egon da Kike Amonarriz, **euskal komunikabideek Iruñean duten presentziaz** hitz egiteko. Ilintxetaren esanetan, **euskarak Nafarroan jasan beharreko presioa izugarria da**. Presio horren kontrako erreakzio gisa, euskal komunikabideen presentzia areagotzen ari da azken urteotan. Horren adibide gisa, **Xaloa Telebista** ekimena aipatu ditu Reyesek. Telebista hau soilik Baztanen emititzen zen arren, jaso berri du Iruñean emititzeko baimena.



Balantzaren beste aldean, **krisi sakona bizi duten euskarazko komunikabideak** aipatu nahi izan ditu Reyesek. Egoera kaskar horren adierazle nagusia **Euskalerrria Irratia** da, 26 urte lanean eman ondoren, oraldik ere, Nafarroan emititzeko baimenik ez duen irratia.

46. EREDU ERE BAGARELAKE

Euskara bere txikitasunean handia da, eta beste hizkuntza gutxitu batzuentzat eredu dela erakustera etorri zaigu **‘Tribuaren berbak’** saioaren azken atala.


“Eredu ere bagarelako” izenburupean emititu du ETB1ek aste honetako saioa. Euskara zenbait alorretan, eta zenbait lurralderentzat, erreferente dela erakutsi du, eta, horretarako, hainbat pertsonaren esperientziak eta iritzia bildu ditu **Kike Amonarrizek**.



Garabide hizkuntza lankidetzan egiten duen garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da. **Maddi Iñarrak eta Ander Bolibarrek** azaldu dute hizkuntza biziberritzeko planak egiten dituztela, batik bat, Hego Amerikan. Euren ustez, hizkuntza berreskurapena da Euskal Herriak munduarekin elkarbanatzeko duen esperientzia interesgarrienetako bat. **Kolonbiarekin, Guatemalarekin, Ekuadorrekin**

eta Mexikorekin harreman iraunkorra dute, eta herrialde horietako hainbat komunitatek eredu hartzen dute Euskal Herria hezkuntza-ereduari, herrigintzari eta komunikabideei dagokionean.

Bertsolaritza oso gurea dugu, eta, garai batean hala pentsatzen bazen ere, **ez da kantu inprobisatuen adibide bakarra munduan. Portugalen, Galizian, Kanaria Uharteetan, Britainian eta Iberoamerikan**, besteak beste, topa ditzakegu horren adibideak. Gainera, azken urteotan asko zabaldu eta indartu dira bertsolaritzak kantu inprobisatua lantzen duten beste herrialdeekin dituen harremanak. **Andoni Egaña** bertsolariaren hitzetan, ezagutu dituzten munduko beste kultura guztietan, hemen bezala, amaieratik hasten dira bertsoa eraikitzen. Aldiz, kultura gehienetan musika-tresnen laguntzaz inprobisatzen dutenez, bitxia egiten zaie gure bertsolariek “a capella” kantatzea. Alabaina, atzerrian, bertsogintzak berak baino gehiago, **hemengo auto-antolatze moduak harritu du jendea gehien**; hau da, Bertsolari Elkarteak sortzeak, eta hark ikerketak, zabalpenean eta transmisioan egindako lanak.



Korrika ere erreferente da euskararen sustapenean. Lau urtean behin Euskal Herria kilometro zeharkatzen duen **lasterketa herrikoia 19.enez abiatuko da martxoaren 19an**. **Asier Amondo** arduradunak adierazi du Korrika badela “auzolanaren eta elkarlanaren adibide”, eta “horrek laguntzen gaitu ahalduntzen, alde batetik, eta, bestetik, euskahalduntzen”. Bestalde, nabarmendu du kanpoko **beste hizkuntza gutxitu**

batzuentzat erreferentzia ere badela, eta munduan dituen **beste “anai-arreba” txiki** batzuk aipatu ditu: **Correlingua (Galizia), Correllengua (Katalunia), Corsa per la lenga (Val D’Aran), Ar Redadeg (Britainia), Ray yr laith (Gales) eta Rith (Irlanda)**.



AEK-ko koordinatzaile nagusi **Mertxe Mugikak**, Korrikaz beharrian, **helduen euskalduntze-alfabetatzeaz** hitz egin dio Kike Amonarrizi. Haren hitzetan, hemen daukan dimentsioa ez dauka beste inon. Dena den, adierazi du Kataluniari “inbidiaz” begiratzen diola. Izan ere, bertan, heldu batek katalana ikastea erabakitzen duenean, lehen eta bigarren mailak doan dauzka; hori ez da gertatzen, aldiz, euskarara ekarrita. Institutio

nagusiek laguntzen badute ere, (“eta eskerrak!”), ez dago Kataluniaren pareko “doakotasunik”.

Saioaren amaieran, **Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrika eta Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao** elkarriketatu ditu, elkarrekin, Amonarrizek.

Euskararen indarguneei dagokionez, Baztarrikak hezkuntza eta helduen euskalduntzea aipatu ditu, eta esan du “erreferente garela hizkuntza politika integralak ditugulako (hedabideetan, zerbitzu publikoetan, administrazioan, IKTetan, unibertsitatean...)”. Aitzitik, Bilbao azpimarratu du euskaletzatik zenbat proiektu sortu den, zenbat ekarpen egin zaion bai norbanakoak, bai espazioak euskalduntzeari. Nonbait, ez da ohikoa kanpoan eragileak, enpresak eta abar gai izatea komunean jartzeko euren printzipioak, eta ahots bakar batez hitz egitea.

Ahulguneei buruz ere hitz egin dute. Kontseiluko idazkari nagusiak herritarrak aktibatze beharra aipatu du, eta azpimarratu du “euskaraz biziko den komunitate trinkoa” behar dugula, eta “norberak horren kontzientzia hartu” behar duela.

Baztarrikak, Hizkuntza Politikarako sailari dagokionez, onartu du **asko dagoela hobetzeko eta**



egiteko euskara biziberritzeko, baina gakoa dela “euskara erabiltzeko gai denak euskara erabiltzeko gogoia izatea, eta euskara erabiltzeko hautua egitea; azken batean, euskara euskaldunentzat erakargarri gertatzea”.

Horretarako, beharrezkoak dira **gizartearen inplikazio aktiboa eta adostasun eta sozial zabala**. Baztarrikak azpimarratu du “politika euskararen zerbitzura” behar dugula, eta ez “euskara politikaren zerbitzura”.

Amaitzeko, biek ahala biek aitortu dute bidea luzea dela. Eta horretarako, jakina, beharrezkoa da erakundeek eta eragileek norabide berean lan egitea.

47. PARISEN EUSKARAZ

Paris “**argien hiria**” dela esan izan da, urte luzez izan zelako Europako arte eta hezkuntzaren erdigunea. Artisten sorlekua ere bada, baina, beste edozeren gainetik, maitasunaren hiria izateagatik da ezaguna. Euskal kulturarentzat erreferentziazko hiria da, baita hainbat euskaldun jaso dituen harrera-hiria ere.



San Martin kanalaren inguruan topatu du Amonarrizek lehen euskalduna: **Ronnie Lynn Patterson** du izena, eta Kansasen, AEBetan, jaiotako jazz musikaria da. 24 urte daramatza Parisen bizitzen, baina **Ipar Euskal Herrian** denboratxo bat pasatu zuen. **Beñat Axiari eta Mixel Etxekopar** musikariekin harremana izan zuen. Hori dela eta, metodo-liburuei heldu zien euskara ikasteko, baita ikasi ere!

Paristarren artean galdeketa egin du Kikek, Frantziako hizkuntza gutxituak ezagutzen ote dituzten jakiteko. EITBren berriemaile **Xabier Madariagak** esan du euskarak ez duela inolako presentziarik, eta **Euskal Herria, berri, postal hutsa dela bertakoentzat**. Berak egunero azaldu behar izaten du “basque” dela, baina Pirinioen beste aldekoa, jendeak ez duelako Euskal Herriaren egoeraren berri.



Guri buruzko ezagutza handirik ez dute izango, baina, hala ere, Parisen **Eskual Etxe** galanta daukate. **Louis Domecq eta Kattin Hauscarriague** ezagutu ditu, Kikek **euskal etxearen sortzaileetako bi** izandakoak. Louis paristarra da, baina gurasoak Hazparnekoak eta Donapaleu ingurukoak zituen. Kattin, berri, Euskal Herrian sortu eta hazi zen. Sorbonan ezagutu zuen Louis, eta elkarrekin beti egin dute euskaraz. “**Parisen ateratu zen gure eskuara**”, diote.

Hasierako garaietan indar handiagoa bazuen ere, gaur egun, sei elkarte biltzen ditu **Eskual Etxeak, 600 bazkide ditu, eta eskaintza anitza du**: euskara ikastaroak, dantza eta abesbatzen emanaldiak... Gainera, ikasleentzat aterpe ere bada. Eraikina arakatu du Amonarrizek, eta hainbat ikasle, irakasle eta bazkide ezagutu du. Antolaturiko ekintzen berri izan du, baita Interneten eta sare sozialetan egiten duten lanaren berri ere.

Elkartean **60 pertsona ari dira euskara ikasten**, 7 taldetan banatuta. Gehienak paristarrak dira, eta bikotekidea euskalduna delako, edo gurasoak edo arbasoak Euskal Herrikoak zirelako ari dira euren hizkuntza ikasten, euskara berreskuratu beharreko altxortzat baitaukat.



Parisek dauka gordeta, hain justu, **euskararen eta euskal kulturaren altxorrik handiena**. **Frantziako Liburutegi Nazionalean** dago euskaraz idatzitako lehen liburua, **Bernart Etxeparek 1545ean** idatzitako *Linguae Vasconum Primitiae*. Liburua harribitxia da, beraz, euskaldunontzat, eta haren balioa areagotzen du, gainera, liburu horren **ale bakarra** izateak.



“Tribuaren Berbak” saioak, gainera, euskarari lotuta, Parisek biltzen dituen bitxikeria gehiago azaldu digu. Esaterako, **1889ko Erakusketa Unibertsalean**, Eiffel Dorrea erakusgarri nagusi izan zuen hartan, **euskarazko lehen grabazioak** egin zituzten, tartean, **irrintzi bat**, eta “**Donostiako Hiru Damatxo**” kantua. Gainera, Frantziako hiriburuan agertu zen **euskarazko lehen film luzea**, **Gure**

Sor lekua. Urte luzez desagertuta egon ostean, 2013an aurkitu zuen dokumentala **Josu Martinez EHUKo ikerlariak** Andre Madre jeneralaren Pariseko etxean. Zoritxarrez, lan horren irudiak baino ez daude; audioa galdua dauka.

Bestalde, **Montparnasse metro geltokiko kartel batean**, euskarazko hitzak agertzen dira: “**Txartelak**” eta “**Informazioa**”. Hain zuzen ere, horixe da, tribukideok dakigula, **Parisen euskaraz idatzita agertzen den errotulu ofizial bakarra**. Geltokian topatutako bidaiariei galdera egin diete, baina inork ez zekien zein hizkuntzatan idatzita zeuden hitz horiek.



Parisen euskaraz ere egiten dela erakutsi du ETB1eko saioak, eta munduko beste hainbat txokotako euskaldunek bezala, han ere, **gogoz eusten diotela euskarari**.

48.- KORRIKA BADATOR

19. **Korrika** abiatzear den honetan, euskararen aldeko ekimen erraldoia hartu du abiapuntu **“Tribuaren Berbak”** saioak. Hasieratik hasteko, **Donostiako San Telmo museora** jo du Kike Amonarrizek, bertan baitute, ondo gordeta, **Remigio Mendiburuk egindako lehen lekukoa**. AEK-k dohaintzan utzi zion museoari 1999an, eta 2011z geroztik dago ikusgai museo ezagun horretako erakusketa iraunkorrean. Tenperatura, hezetasuna eta argia ongi kontrolatuta dauzkate, onddorik eta antzerakorik ager ez dadin, eta, beraz, zaharberritzera irits ez dadin.



Mendiburuk egindako lekuko haren ideia **Juan Gorriti** artistak eman zion: motrailu baten makilaren itxura ematekoa, alegia. Oraingo lekukoa Gorritik egin da, aurrekoaren ereduari jarraiki. Artistak dio **“gure herriaren historia plasmazten” duela lekukoak**, eta, horregatik, ez du nahi hori garbitzerik, bertan bildutako malkoak, izerdia, euria, izotza eta abar mantendu egin behar direlako. Mendibururen lekukoa, esan bezala, San Telmon dago; Gorritiri, ordea, berea beti jendearen esku artean egotea gustatuko litzaioke.

18. Korrikaren lekukoa eraman zuen azken persona izan zen **Ametz Arzallus** bertsolaria. Hark idatzi zuen lekukoak barruan zeraman mezua, eta Baionako plazan hura irakurtzea ohore handia izan zen beretzat. **“Korrikak badu zerbait magikoa, euskaldunon bizipoza sentiarazten eta zabaltzen duelako”**. Horregatik, egun hartan bizipoz hori guztia bere gorputzean kontzentratuta sentitu zuen bertsolariak. **“Euskaldun bati egin dakioken opari politenetakoa da”**, adierazi du.



Amonarriz, Lekeitiora joan da **Edurne Brouardekin** hitz egitera. Orain arte Korrikaren koordinatzaile izandakoak **Oñatitik Bilbora** joan zen **lehen Korrika** gogoratu du, 1980. urtean **elurpean eta euripean** aritu ziren, baina hala ere, jende andana bildu zuten, eta, beraz, mantendu beharra zegoela erabaki zuten.

Izan ere, euskararen aldeko ekintza nagusietakoa da, baina helburu ekonomikoa ere badu. **Asier Amondo** egungo koordinatzaileak azpimarratu du oraindik euskaltegiak ez daudela normalizatuta, eta Korrikak biltzen duen dirua beharrezkoa zaiela, bereziki Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Dena den, aipatu du beretzat helburu polita litzatekeela aurtengorako **“euskahaldun kontzeptu gisa gelditzea”**, ahalduntzeak ekarriko bailuke indarrak metatzea euskararen inguruan, auzolanean eta elkarlanean.

Akelarre, Egan, Gozategi, Oskorri, Esne Beltza, Gose, Tapia eta Leturia, Fermin Muguruza... Musikari ugarik izan dute Korrikako kanta egitearen ardura, baina **lehen**

abestiaren egilea Xabier Amuriza izan zen. “Zuek ere esan bai euskarari” zuen izena, eta **“arrapaladan” egin behar izan zuen.**

Azpiegitura lan izugarria behar du Korrikak. **Andoni Seijo “Ibilbide” taldeko kideak** kontatu duenez **16 pertsona** ibiltzen dira egunero lanean **2 furgonetatan**. **Ibilgailuak gasolina hartzeko baino ez dira geratzen.** Lekueta puntual iristeko, aldeztu aurretik lan handia egiten dute, eta batez besteko bat dute ezarrita: **kilometroko 6 minutu**. Seijok aipatu du **barru-poz izugarria** eragiten diela toki batera iritsi eta jende andana zain dutela ikusteak, baina are gehiago hunkitzen dira zenbait lekutan, persona gutxiago badira ere, horiek ahalegin osoa egiten ikusita.



Hori gertatzen da, esaterako, **Nafarroako Erriberan**. Bertan topatu ditu Kikek **Alizia Iribarren** Nafarroako AEK-ren koordinatzailea eta **Itziar Elejalde** Korrikaren batzordeko kidea. Euren hitzetan, Korrikak laguntza handia ematen dio inguru hartako euskarari, **“ilusio handia pizten duelako euskaltzale eta euskaldunen artean”**. Bestalde, dirua ekartzen du, baina, batez ere, **euskara ikusarazi egiten du**, eta horrek **“hurrengo 2 urtetarako pilak kargatzen”** laguntzen die.

19. Korrika **Urepelen** abiatuko da, eta bertan, sorburuan, amaitu nahi izan dute **“Tribuaren berbak”** saioa. Adur euskara taldeko **Xan Airerekin eta Karine Etxeberriekin** elkartu da Kike bertako plazan, 0 kilometroa egongo den lekuan. **320 biztanle** inguru dira, eta lan handia izaten ari da guztia antolatzea, baina **“emozio handiz”** egin dute. Korrika ez da bertatik sekula igaro, eta, beraz, lorpen handia izan da abiapuntu izatea.



49. 60ETAKO EMIGRAZIOA GAUR

Migratzea, jatorria utzita inora joatea, gizakia bezain zaharra da. Saioak etorkinen gaiari heldu nahi izan dio, zehazki, **Euskal Herriko gizartean eragin handiena izan duen immigrazioari: 60ko hamarkadakoari**, alegia. Etorrera masibo hark euskararen zein eragin izan zuen aztertu du saioak. Izan ere, XX. mendeko bigarren erditik aurrera **Espainiatik etorritako jende-oldeak gure herria eraldatu zuen**. Beharrak bultzatuta, baina, mailetak bete ilusio eta itxaropenez. Inoiz ezagutu gabeko astindua izan zen, ordea; **shock**-a bertakoentzat, baita etorritakoentzat ere. Bien arteko talka, azken batean!

Gaztela eta Leondik, Extremaduratik, Andaluziatik eta Galiziatik etorri ziren gehienbat. Hasi, **Galiziako** etorkinak ezagutuz hasi da saioa. **Trintxerpen eta Barakaldon** komunitate handiak sortu zituzten, eta, Xose Estevez historialari galiziarren arabera, egun, **Euskal**



Herrian hirugarren hizkuntza mintzatuena izango litzateke galiziera, gaztelaniaren eta euskararen atzetik. Izan ere, **50.000** **hiztun** galiziarreko komunitatea daukagu gurean. Bestalde, **Euskal Herriko Galiziako etxerik zaharrena Barakaldon** dago. 1901ean sortu zuten, Bizkaiko Labe Garaiak sortu ziren urte beretsuan. Anxo Deivek Kikeri esan dionez, munduko zentro galiziar garrantzitsuenetakoa da, **1.000** **bazkide** inguru baititu.

Jone Miren Hernandez EHUKo Gizarte Antropologiako irakaslearekin hitz egin du Amonarrirek etorkinen etorrera hark sortutako eraginari buruz. Gai horri lotutako tesia egin zuen, eta bertan ateratako ondorioetako bat da, hain zuzen ere, aipatu berri dugun shock hori eragin zuela egoera hark. Izan ere, aurretik ere beste immigrazio mugimendu batzuk gertatu ziren arren, 60ko hamarkadan **“oso azkar gertatu zen aldaketa”** eta, gainera, **“jende kopuru handia”** etorri zen. Tokian tokiko datuak ezberdinak badira ere, zenbait lekutako biztanleen kopurua bikoiztu edo hirukoiztu egin zen. Beraz, shock handia izan zen, ezinbestean.



Garai hartan Euskal Herria bizileku hartu zutenek, nolako harremana izan zuten eta dute euskararekin?. **Paco Tejedos**, esaterako, 9 urte zituela etorri zen Ataungo Aia auzora. Guztiak aritzen ziren bertan euskaraz, eta, hortaz, **euskara ikasi beharra** zegoen; “ez zegoen besterik”, esan du. **Beni Hurtado** Extremaduratik etorri zen Bilboko Abusu aldera, eta **Pablo**

Bragado, berriz, Zamoratik heldu zen Zornotzara. Gaztetxoak ziren biak ahala biak, eta inguruan ez zuten euskaldun askorik. Beraz, ez zuten euskara ikasi. Orain, ordea, **erretiroa hartu dutenetik, buru-belarri dabiltza euskaltegian**. Haien hitzetan, gutxi dira euskara ikasi dutenak euren belaunaldiko jendearen artean, bizi diren zonaldean ez baitute beharrik sentitu. Hurrengo belaunaldiari begira, berriz, euskararen egoera nahiko ondo ikusten dute, seme-alabek euskaraz bai baitakite.

Eva Miguelezen gurasoak Leondik etorri ziren. Bera Euskal Herrian jaio zen, eta eskolan euskaraz ikasi zuen, baina inguru guztia erdalduna zuenez, ez zuen erabiltzen. Maria Jordana, berriz, Lizarratik etorri zen Urretxura, euskararekin inolako loturarik izan gabe. Hala ere, betidanik sentitu izan da euskalduna, eta bizilekua aldatzean, **“ikasteko beharra”** sentitu zuen. **“Mundu berri bat zabaldu”** zaiola aitortu du Mariak. Eva ere betidanik sentitu da euskalduna, baina alaba izatean ohartu da **etxetik jaso behar duela euskara “hemen % 100ean bizitzeko”**.

Jon Maia bertsolariaren aita eta ama Extremaduratik eta Zamoratik etorri ziren Urretxura. **Mundu euskalduna eta ez-euskalduna oso modu naturalean uztartu ditu** berak, “biak etxetik jaso” dituelako. Integrazioaren garrantzia nabarmendu nahi izan du. Nire abuelak eta abuelok jarrera hori izan zuten. Francoren garaian etorri ziren, eta ikusi zuten han zapaltzen zituen hanka bera zela hemengo kultura zapaltzen zuena”. Aiton-amona haiek seme-alabei transmititutako baloreei esker, bilobak, Jon eta haren lehengusu guztiak, euskaldunak dira. Bi begiradak biltzen ditu Maiak, etorkinena eta euskal munduarena. Oso banatuta egon dira urte luzetan bi esparru horiek, eta, **bizikidetzari** begira, nabarmendu du derrigorrezkoa izango dela orain arte bereizita egon garenak elkarrengana hurbiltzea.



50. PIRINIOETAKO EUSKARA

Euskal Herriaren “ekialde urrunera” jo du saioak: misterioz beteta dagoen **Nafarroako Pirinioetara**. Eskualde berezia da, klima gogorrekoa. Elurrak eta hotzak luze jotzen dute bertan, eta horrek eragina izan du bertako jendearen bizimoduan, baita darabilten hizkuntzan ere.

Hiru bailara ezagutuko ditugu: **Erronkaribar, Zaraitzu eta Aezkoa**. Ibar horietan, euskarak bilakaera ezberdina izan du. Aezkoak bere euskara bereziari eutsi dio, baina, zoritxarrez, Zaraitzun eta Erronkarin galdu egin ziren bertako euskalkiak.



Erronkaribarren egin dute lehen geldialdia. Zazpi udalerrik osatzen dute bailara, eta, bertan, 1.500 pertsona eskas bizi dira. 1991n hil zen erronkarieraz hitz egiten zuen azken hiztuna, **Fidela** Bernat, baina horrek ez du esan nahi euskara bertan desagertuta dagoenik.

Dabid Lalana euskara teknikariaren hitzetan, **Erronkaribarreko biztanleen % 16 dira euskal hiztunak**; guztira, 250 bat herritar. izan ere, bertan, “bizpahiru belaunaldi nahikoak izan ziren euskararen arrastoa desagertzeko”

Julian Gaiarre tenor handiak ezagutarazi ditu inork baino gehiago bere herria eta ibarraren izenak. Gaiarre **euskal hiztuna zen**, bere belaunaldiko auzoak bezala, Horren froga dira, bere izeba Juanari bidalitako gutunak.

Emakumeak izan ziren erronkariera gorde zutenak. Askok bizibidea ateratzeko Maulera jo zuten espartin industrian lan egitera. Jakina, zuberotarrekin euskaraz egiten zuten, ezin bestela izan. Enarak esaten zieten emakume haiei.

Alberto Angos erronkarierak duen aditueta bat. Ez da ordea, ez filologoa, ez soziolinguista. **Barakaldoko soldatzailea** da, eta haren abizenaren jatorria bilatu nahian, inguru harekin eta bertako euskararekin egin zuen topo. Hiru liburu argitaratu ditu erronkarieraren gramatikari eta hiztegiari buruz.



Joan den mendearen azken hamarkadan ekin zitzaion **berreskurapenari** eta Lalanaren arabera, “oso urte emankorrak izan ziren”. D eredua ezartzea lortu zuten orduan, eta hori ezinbestekoa izan zen. Gainera, garrantzitsua izan zen euskaltegien, Kebenko kultur elkartearen eta euskara zerbitzuaren lana. **Gaur egun, ikasle gehienak D ereduan matrikulatuta daude.**

Dena den, haur horiek erronkarierako hitz gutxi jaso dute. Alabaina, inguru hartako persona **heldu erdaldunek bertako euskarako hainbat hitz erabiltzen dute**, euren gaztelanian barneratu zituztelako.

Zaraitzu ibarrera jo du ondoren Amonarrirek. Bederatzi udalerrik osatzen dute bailara, eta 1.500 pasa biztanle bizi da bertan. **Zaraitzuera galdu zen**, baina Erronkaribarren bezala, inguru horretan ere euskarak bizirik jarraitzen du. Hitzun gehixeago dago, euskara hamarkada batzuk gehiagoz mantentzea lortu baitzuten, eta bertako biztanleek **hango euskalkiko hainbat ele gordetzen dute** oraindik.



Itzaltzu herri txikia da, **Gartxoten kondairari** esker da ezaguna, batik bat. Biztanle gutxi dira, baina bertako lau umeak euskal hitzunik dira. Haiek dira **azken 100 urteetan jaio diren lehen euskaldunak**.



Zaraitzuko txokoez gozatu ostean, **Aezkoara** jo du Kikek. Bederatzi udalerrik osatzen dute Ibarra, eta biztanleak ez dira milara iristen. Baina ibar horrek badu berezitasun bat: Erronkarin eta Zaraitzun ez bezala, ibar honetan aetzek **euskara bizirik mantendu dute**. **Juan Karlos Etxegoien** Xamar irakaslearen iritziz, agian, Erronkaribar eta Zaraitzu izan direlako erdararen mugak “atxiki diote

euskarari hobeki” bertan, beste bi bailaren babesean, alegia. Dena den, aezkera mantentzeko lan egin beharra dago, eta horretan dihardu **Zerika taldeak**. Euskal hitzunik gehienak adinekoak dira, eta Ion Retegi taldeko kidearen hitzetan, zahar haiekin biltzen dira, “gazteengan arrasto bat gelditzeko”. Izan ere, ezinbestekoa da eragin hori izatea euskalkiak iraun dezan.

51. ON EGIN DAGIOLA EUSKARARI

Sukaldaritza, janariak prestatzeko artea, hartu du ahotan saioak. Lehen



geltokia, **Ordiziako azoka**. Bertan, **Edurne Jauregi** baserritarrek esan dio **salerosketa gehienak euskaraz** egiten dituztela. Produktu asko euskaraz eskatzen ahalegintzen omen da jendea, ziazerba, kuia, kuiatxo eta alberjinia hitza erabilia, esaterako, espinaka, kalabaza, kalabazina eta berenjena beharrean. Hala ere, erosketak ordaintzerako orduan, gehienek, gaztelaniara jotzen omen dute.

Amonarriz Donostiako kaleetan ibili da, **behi** bat hartuta, jendeari galdezka haren **zatiak euskaraz** nola esaten diren ba ote dakien. Hainbat zatiren izenak zabaldua daude, adibidez, azpizuna, saiheskia, buztana... Beste hainbat, ordea, ez zaizkigu ezagun egiten, hala nola, mokorra (kadera) eta koskorra (redondoa). **Arrainekin** ere antzera gabiltza. Urnietako **Nekane Garmendiak** esan du zenbait izen oso barneratuta daukagula, esaterako, legatza, bisigua, bakailaoa... Aldiz, kostatzen ari zaigu beste zenbait barneratzea. Helburu horrekin, Urnietako Euskara Zerbitzuak **eskuorri batzuk** zabaldu ditu **arrainen euskarazko izenekin**.

Rabelais idazle frantsesak asmatutako Gargantua erraldoi jatun ase ezina, Bilbok bere egin zuen. Eta aipatzekoa da Rabelaisek idatzitako liburuan badirela **euskarazko pasarteak**, eta euskaraz idatzitako lehen liburua baino bi urte lehenago argitaratu zela! **Euskarazko errezeta liburu zaharrik** ere badugu euskaraz. **Escualdun cocinera, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake**. 1864an argitaratu zuten Baionan, eta lapurteraz idatzita dago.



Euskal jatetxe izardun ugari dugu, eta horietan euskarak zein leku betetzen duen jakin nahian, **Zuberoa jatetxera** jo dugu. **Hilario Arbelaizte**k hasieratik eman dio garrantzia euskarari. **Dakienari euskaraz egitea ezinbestekotzat** jotzen duenez, bertako zerbitzariak, nahitaez, jakin behar dute gaztelaniarekin, frantsesarekin eta ingelesarekin batera. Bertan, euskarara hurbiltzen dituzte munduko zientzialariak, musikariak, eta pertsona entzutetsuak.

Fernando Elkoroiribe Leioako Ostalaritza Eskolako irakasleak esan duenez, 1981ean ireki zituen ateak, baina 1998an hasi zen **euskarazko eskaintza** formakuntza zikloetan. Gaur egun, bi ziklo eskaintzen dituzte osorik euskaraz. Gainera, lan handia egin dute **euskarazko terminologia eta errezetak** ematen, eta **normalkuntza talde bat** sortu dute. Izan ere, **irakasleen % 85 dira euskaldunak**, baina euskarak ez du behar lukeen indarra.

Basque Culinary Center, bestalde, **nazioartera begira eraikitako proiektua** da, Joxe Mari Aizaga zuzendari orokorrak eta Alex Beitia zuzendari teknikoak esan dutenez,. Gaztelania eta ingelesa dira hizkuntza nagusiak, baina **zaleentzako ikastaroak** euskaraz eskaintzen dituzte, **euskal terminologia lantzeko mintegi bat** dute, eta gure kulturara hurbiltzen dituzte ikasle atzerritar guztiak.

Jatetxetara eta dendetara goazenean, sarritan, ez badakigu parean daukaguna euskal hiztuna den, ez diogu lehen hitza euskaraz egiten. Hori saihesteko, **Donostiako Udalak** martxan jarri du **“Merkataritzan eta ostalaritzan ere euskaraz”** ekimena. Edurne Otamendik azaldu du **zerbitzua euskaraz emateko gai diren establezimenduak** identifikatzen ari direla. Jendaurrean lan egiten dutenen erdiak behintzat euskal hiztunak badira, eranskailuak ematen dizkiete, bezeroek bertan euskaraz egin dezaketela jakin dezaten.

Sukaldaritzako terminologia euskaraz zabaltzeko lanean dihardu ETB1eko **‘Txoriene’** saioak. **Zigor Iturrieta** aurkezleak esan du berak ere ikasi behar izan dituela hitz asko. Dena dela, Leioako Ostalaritza Eskolak egindako lanari eta EiTBen Euskara Zerbitzuari esker, hitz eta ekintza berriak barneratzen laguntzen diotela jendeari.



Euskara bultzatzeko behar handia dute **Nafarroa hegoaldean**. Horregatik, bertako **euskalgintzari laguntzeko, eta ekoizle txikiei bultzada emateko, Errigora** ekimena sortu zuten. Mendiko upategiko Imanol Iberok azaldu du ekimen horri esker sustatu diren egitasmoak. Gainera, **euskarak balio erantsia eman die produktuei**, eta ekoizleei sekulako aukera eman die Euskal Herri osoan merkaturatzeko.



Sukaldaritza arloan, euskara gutxinaka ari da: euskaldunon gose handia berdintzeko adina agian ez, baina horretan ere bagoaz aurrera.

52. GOIERRI: MUIN ETA MOTORE

Hasteko, titular bat utzi digu **Maider Agirrek**, **Beasaingo euskara teknikariak**: Goierri **Gipuzkoako laugarren eskualde euskaldunena** da; aurretik ditu Urola bailara, Tolosaldea eta Debagoiena. Beraz, badauka nahikoa zeregin etorkizunari begira. Eta zehazki, Beasaingo datuei erreparatuz, euskara ondo dakitenak % 56 inguru badira ere, **euskararen erabilera % 35ean dago**.

Goierriin, beste eskualde askotan bezala, alde handia dago **herri txikietatik herri handietara**. Orokorrean, herri txikietan euskararen ezagutza eta erabilera % 80tik gorakoa da. Dena den, azken azterketetako emaitzek **ardura piztu dute herri txikietan ere**: Gabiriko kultura zinegotziak, **Jokin Muruak**, adierazi duenez, **gastelaniaren presentzia handitu egin da** herri txikietako eguneroko bizitzan.



Euskara hedatzeko lanean erreferente izatera iritsi da **Lazkaoko Maizpidee** euskaltegi eta barnetegia. 70eko hamarkadan hasi ziren lanean, eta hasieran eskualdean euskara zabaltzea zuten xede. Garai hartan, 2000. urterako Goierri osoa euskalduntzea jarri zuten helburu; eta bete ez bada ere, lan itzela egin dute. Gaur egun ere, eskualderako lanean jarraitzen dute, baina gero eta gehiago dira beste lurraldeetatik euskara ikastera bertara etortzen direnak.



Goierriko euskarak bere ezaugarri propioak dituela erakutsi digu **Lierni Elortza** segurarrak ETB1eko saioan. Ezagunena, seguruenik, kausazko ablatiboetan (-tik atzizkiarekin amaitzen diren hitzetan) goierritarrek –tio bukaera erabiltzen dutela izango da; esate baterako, zergatio, oraindio, nundio...

Horrez gainera, **herritik herrira ere badaude aldaerak**. Bertako helduek hizkeran antzematen omen dute

pertsona bat Ataungoa, Zaldibikoa edo Zeraingoa denean. Juanjo Aranburu Idiazabalgo artzainak aitortu digunez, ordea, **gazteen kasuan**, gero eta gutxiago nabaritzen dira ezberdintasun hauek **euskara batuagoa edo nahasiagoa** erabiltzen dutelako.

Hizkera bezala, **Goierriko herri bakoitzak badu bere ezizena** ere. Hauek dira horietako batzuk: Idiazabalgoak azeriak, Altzagakoak zakurrak, Zaldibikoak arkakusoak, Zegamakoak beleak, Lazkaokoak antzarak, Ataungoak otsoak, Gaintzakoak zapoak, Mutiloakoak txerrigorriak, Zeraingoa xaguak, Beasaingoak bareak, Ordiziakoak azak, Segurakoak zopajaleak...

Euskara bultzatzeko lana bizitzako arlo guztietan egin behar dela sinistuta, ari dira lanean **CAF enpresan**. Eskualdeko enpresarik handiena da eta 2006tik **euskararen plana eta euskara batzordea** dauzkate. **Joxe Begiristainek** azaldu duenez, plan horri eta langileek egindako ahaleginari esker, nahiz enpresa barruko, nahiz kanpoko harremanetan, gero eta

ohikoagoa da gure hizkuntza erabiltzea komunikatzeko. **Gainera, trenek euskaraz hitz egitea ere lortu dute!**

Bestalde, Lazkaon, altxor bat daukate gordeta. **Juan Jose Agirre** monje beneditarraren ekimenez, euskararen eta Euskal Herriaren historia kontatzen duten milaka dokumentu bildu dituzte **Beneditarren Dokumentazio Gunean**. Agirrek berak azaldu duenez, “herri baten historia egin nahi bada, azkeneko paper txikienak ere balio du”. **Etxahun Galparsoro** teknikariak adierazi du jasota daukaten **liburu zaharrena 1669koa** dela, Ziburuko Joanes Etcheberri idatzitako *Manual* devotioenezkoa. Guztira, **60.000 liburu** dauzkate, eta, horiez gain, **aldizkariak, kartelak eta pegatinak** ere badituzte.



Zer eskaini dio Goierri euskalgintzari? Xabier Mendiguren idazlearen esanetan,



batetik, “euskaldun mordoxka bat”. Baina, bestetik, oro har, oso lurralde pobrea izan denez, ez da sortzaile askorik atera. 70eko hamarkada, aldiz, askoz ere oparoagoa izan zen. Apaizgaitegiak eta komentuak hustearekin batera, apaiz ohi jantzi horiek irakasle aritu ziren Euskal Herri osoko eskoletan. Bestalde, Goierri euskararen arnasgunea dela esatea “topiko” hutsa da, eta gaur egun egiten dena baino gehiago egin beharko litzateke euskara bultzatzeko, izan ere,

Mendigurenen hitzetan, **“euskaldun portzentaje handia daukagunok euskal kultura kontsumitzerako orduan eredu izan behar genuke”**.

Goierri eta Goierri bezalako eskualde euskaldunagoek aitzindari papera jokatu behar dute. Horretarako aukera dute eta hori da euren erantzukizuna: euskararen motor izatea.

53. EUSKARA DELA ETA, EMAKUMEEK ZER DIOTE?

Saioak, Lorea Agirrek, **Jakin** aldizkariko zuzendariak, 19. Korrikako mezuan esandakoa hartu du abiapuntu gisa: ahaldundu behar dugula. **Ahalduntzea**



feminismotik datorren ideia da, plaza hartzea da, boterea hartzea, ez inor menpean hartzeko, egoera eraldatzeko baizik. hori dela eta, genero-ikuspegia txertatu nahi izan dio saioak euskararen inguruko hausnarketari. Agirre berak esan du diskurtso bera erabili dela hegemoniatik, emakumeen eta euskararen gainean, menderatuta edukitzeko. Feminismoak 'jakitearen,

jabetzearen eta boteretzearen' beharraz hitz egiten du, eta hori euskalgintzari ere aplikatu dakioke.

Itziar Idiazabal EHuko UNESCO katedradunarekin **ama hizkuntza** esamoldeaz aritu dira. Izan ere, oraindik ere erabiltzen da, baina, gaur egun, **zuzenagoa da lehen hizkuntza esatea**, ama ez baita derrigorrez hizkuntza transmititzen duen bakarra. Lehen hizkuntza esatean, berriz, ez dugu esaten nork irakatsi duen, ikasitako lehena izan dela baizik.

Hizkuntzen transmisioan emakumeek garrantzi berezia izan dutela nabarmendu du **Jone Miren Hernandez** EHuko irakasleak. Euskal Herrian, historikoki, emakumeen papera oso lotuta egin da hizkuntzarekin, eta, ideologikoki berari egokitu zaio hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa. Emakumeen aukera izan ez bada ere, eurek hartu dute euren gain ardura hori. Dena dela, azpimarratu duenez, ardura hau isilean geratu da, ez baitu izan **prestigio sozialik**.

Emakumeak bere tokia hartzen ari dira tradizioz gizonezkoena izan den eremuetan. Musikaren arloan, esaterako, 'frontman'ak ezagutu ditugu batik bat, baina, badira 'frontwoman'ak ere. **Ines Osinagak, Gose** taldeko kantari eta trikitilariak, nahiago du **plazandre** kontzeptua. Esan du etxekoandretik asko duela plazandreak, "ez duelako amatasun-bajarik, gizarte segurantzak ez dituelako aurreikusten lanean sartutako orduak...". **Agertokia bere emetasunetik** baliatzen du Osinagak. Garrantzitsua da, bere ustez, taula gainean irudikatzen duen rola, eta rol horrekin esan nahi duena. Uste baino gehiago dira horretan diharduten emakumeak, baina bistaratzea ez da erraza.



Bide beretik, **Estitxu Eizagirre Argia** aldizkariko zuzendariak nabarmendu du emakumeak aritzen zirela lehen ere **bertsotan**, baina ez zutela plazan abesten. Gaur egun dauden emakume bertsolariak ikusita, asko lortu dela esan du, baina, oraindik ere, **alde handia dagoela plazetan dagoen emakume eta gizonezko kopuruaren artean**. Gainera,



fisikoki ere beste bide bat zabaldu du, bai ahotsari, bai jarrerari dagokionean; azken batean, aniztasun handiagoa ekarri dio feminismoak bertsolaritzari.

Euskarak hiru hizkuntza trataera ditu, berorika, zuka eta hika. Azken horrek, gainera, genero bereizketa egiten du, **toka eta noka. Ritxi Lizartza** itzultzailearen hitzetan, tradizioz hala ez bada ere, **azken urteetan gizonezkoek**

erabiltzen dute batik bat. Are gehiago, kaleko hizkeran, genero aldetik desoreka bat egon daiteke, izan ere, mutilen artean eta mutilei zuzentzeko, hika erabiltzen da, baina neskei zuzentzeko, berriz, zuka. Lizartzak ez luke esango hitanoa desagertzear denik, baina sortzen ari den eredu berri hori saihesteko, beharrezkoa da kontzientzia bat sortzea, eta eskoletan hitanoa txertatzea.

Emakumeen presentzia txikia izaten da hainbat esparrutan, besteak beste, komunikabideetan eta literaturan. **Itxaro Borda** idazten hasi zenean ia ez zen emakume idazlerik, eta, gainera gai ausartak hautatu zituen. 1994an argitaratu zuen lehen detektibe nobela, eta protagonista gisa Amaia Ezpeldoi hautatu zuen, detektibea, emakumea eta bisexuala. Emakumeen literatura urratsez urrats joan omen da aitzinera, eta, olde horretan, bera ere joan da aurrera.



Mari Luz Esteban antropologoak dio **feminismoa euskalgintzarako baliagarria dela gogoeta-tresna gisa**. Feminismoan, erronka nagusietako bat da, gaur egun, emakumea defendatzeaz gain, emakumeen eta gizonen arteko mugak deseraikitzea. Estebanek adierazi du erronka hori bera daukagula euskalgintzan ere. Batetik, nola defendatu euskaldunen eskubideak, eta, bestetik, nola ulertu euskal identitatea modu konplexuagoan. Kontzientzia modu dinamikoan hartzearen garrantzia nabarmendu du. Hau da, ideologia soilik ez da nahikoa, praktikarik gabe.

54. XXI. MENDEAN, HAMAIKA TRIBU, HAMAIKA EUSKARA

XXI. mendeko euskara izan du hizpide saioak. Nolakoa da hiztunen komunitatea? Zein da



hiztunen profila? **Miren Azkarate** euskaltzainak azken 50 urteotan euskarak izan duen bilakaera aipatu du. Euskara batuaren hasierako garai hartako helburu nagusia zen gutxieneko arau batzuk finkatzea. Gaur egun, ordea, euskara sartu da hezkuntza munduan, administrazioan, hedabideetan... Dena dela, euskara batua aldaera formala da, eta **gazteek** eskolan ikasi dute, baina motz geratzen zaie harremanetarako; **beste zerbait behar**

dute, “gozatzeko balioko dien eredu bat”.

Mikel Zalbide euskaltzainak hiztunen bilakaeraz hitz egin du. Garai bateko euskaldun elebakarrak galdu egin dira. Multz garrantzitsua osatzen dute euskal elebidunek, euskaraz erdaraz bezain ondo edo hobeto moldatzen direnek. Gainera **inoizko handiena da euskaraz alfabetatuta dauden multzoa**. Erdal elebidunak ere asko ugaritu dira, hau da, erdaraz hobeto moldatzen direnak. Ikasleen euskara maila baldintzatzen duten bost faktore nagusi aipatu ditu: berezko gaitasuna, etxea, kaleko hizkera nagusia, lagunartea eta eskola.



Ibon Manterola EHuko UNESCO katedradunak, gure hiztun komunitatearen aniztasuna nabarmendu du. Batzuek asko dakite, eta asko egiten dute; badira asko jakin, baina gutxi egiten dutenak; gutxi dakitenak baina dakiten horri etekin handia ateratzen diotenak... Bestalde, azpimarratu egin du euskaraz ez dakiten baina haurrak euskaraz eskolatzeko hautua egin duten gurasoen garrantzia. Gainera, etorkizunera begira, **euskararentzat garrantzitsuagotzat** jo ditu eragile gisa jatorriz erdaldunak, hau da, **euskaldun berriak, euskaldun zaharrak baino**.

Gazteen artean ikerketa egin du **Garbiñe Bereziartuak**, Azpeitiko euskara teknikariak. Haren hitzetan, komunikatzeko modu berriak sortzen ari dira. **Sare sozialetan** erabiltzen den hizkera norberak eguneroko bizitzan dituen ohiturekin lotuta dago, eta, duten herrietan, euskalkia bera hizkuntza baliabide bat gehiago da. Batua eskolarekin lotzen dutenez, ez dute harreman informaletarako erabiltzen. **Euskalkiak, beraz, asko aberasten du hiztunen errepertorioa**.

Maite Quintanilla antropologoak Soraluzeko gazteak eta euskara ikertu ditu. Azpimarratu du “oso epaituak” sentitzen direla, eta ez zaiela euri galdetzen. Zenbaitek hautu kontzientea egin dute euskararen alde; beste batzuek, ordea, hegemoniak agintzen duenari

jarraitzen diote. **Gakoa**, bere ustez, **esperientzia eta bizipen positiboetan** datza. Beraz, euskara ikuspuntu baikor batetik helarazi behar zaiela uste du.

Ipar Euskal Herrian, Jokin Etxeberri ekoizlearen testigantza jaso du Amonarrizek. Donibane Lohizune inguruan, batez ere, batua egiten omen da gehiago gaur egun. Bestalde, Hego Euskal Herrian “euskañola” egiteko dagoen joeraren parekorik ba ote dagoen galdetuta, ezezkoa erantzun du, bertan ez baitaukate hizkuntzak nahasteko hainbesteko joerarik.

Orioko **Dibina Lanberri**ekin ere hitz egin du. **Gazte garaian** erabat **euskaraz** egiten zuten uzten zieten leku guztietan, eta **hika** aritzen omen ziren batez ere. Ia ez zuten erdaraz egiten, eta haserrea adierazteko hitzak eta jolas gehienak euskaraz egiten zituzten.

Gaur egungo lagunarteko hizkeran gaztelaniaren edo frantsesaren eragina handia dela uste du **Asisko Urmeneta** marrazkilariak. Batua sortu izana beharrezkotzat jo du, baina maila jaso horretan dagoen hizkera hori “monokorde, monokromo eta monotono”a dela aipatu du. Kolore edo ñabardura pixka bat behar dugunean, kasurik onenean, euskalkira jotzen dugula esan du, baina, kasurik okerrenean, erdarara. **Euskara inperfektu, inkorrektu eta lardaskagarria**” behar dela adierazi du.



Anjel Lertxundi idazlearen ustez, euskarak badu adierazkortasuna; aldiz, **gu geu gara**

euskarari etekina ateratzen ez diogunak, gatza eta piperra behar ditugunean erdarara jotzen dugulako. Izan ere, erdara gehiago entzuten dugunez egunean zehar, beste hizkuntzatan barneratuta dauzkagun elementuak erabiltzea erosoago zaigu. Horri lotuta. Bestalde, **ahozkotasuna landu beharko litzatekeela** azpimarratu du, bai hezkuntza mailan, bai familian.



55. MUGARIK EZ DA EUSKARARENTZAT

Saioak mugak izan ditu ardatz. Hasteko, **Elsa Spizzichino Hendaia**ko euskara teknikariarekin eta **Iban Eguzkitza Irungo** euskara zuzendariarekin bi herriak elkartzen



harremanak indartzekoa ere.

dituen Santiago zubian elkartu da Kike. **Egoera desberdina da** batean eta bestean, bereziki, **Iparraldean euskarak ofizialtasuna ez izatearen eraginez**. Beharrak ere ezberdinak dira. Dena dela, biek euskararen erabilera sendotu beharra aipatu dute, baita mugaz gaindiko

Noiztik daude bereizita Hego eta Ipar Euskal Herria? Peio Etxeberri-Aintzart historialariaren hitzetan, Erdi Aroan bazegoen nolabaiteko probintzien arteko muga, baina XVII. mendean hasi zen amildegia handitzen, eta XIX. mendean, Baionako Hitzarmenarekin, erabat bereizi ziren, Ebron zegoen muga Pirinioetara eramandakoan. Hala ere, **3. Errepublikarekin Frantzia eta Frankismoarekin** Espainian, areagotu egin zen mugaren eragina. Alabaina, kostaldean nabariagoa da, barnealdean naturalki zeharkatzen duelako jendeak. **Azken urteetan, eragin hori apaldu egin da muga fisikoak kendu zituztenetik**. Euskararengan ere izan ditu ondorioak, Iparraldeko euskara frantsestu egin baita, eta Hegoaldekoa gazteleratu. Hala ere, euskara batuaren eraginez, gauzak aldatzen ari dira, eta ez dago arazorik elkarrekin komunikatzeko.

Elixabete Garmendia kazetariaren arabera, **euskal kulturaren sorgune** izan zen **Iparraldea**, esaterako, kantagintzan. Izan ere, han askatasuna zegoen; Hegoaldean, berriz, zentsura. Bestalde, babesgune ere izan zen ekimen kultural askorako, eta aipatu du **Elkar** argitaletxea eta **Udako Euskal Unibertsitatea**, adibidez, bertan sortu zirela. Gaur egun, muga fisikoa erraz gainditzen dugula esan du; aldiz, **“muga mentalak oraindik badauzkagu”**.

Mugan alde batera ibiltzen ziren, duela hainbat urte, **kontrabandistak**. **Mattin Tapia** senpertarra ere horretan aritzen zen gaztetan, beste ezer ez zutenez, “sos batzuk ateratzeko”. Aipatu duenez, **gendarme eta guarda zaharrak euskaldunak** ziren, eurak ere kontrabandoan aritutakoak. Gainera, mugaz bestaldekoekin ere **euskaraz** aritzen ziren beti.



Lapurdiko itsas hegiko euskaraz asko daki **Maitena Duhalde** hizkuntzalariak. Hendaia, Urruñak, Biriatur, Ziburuk, Donibane Lohizunek eta Azkainek osatzen dute eremu hori, eta **berezitasun handiena aditz-sisteman** du. Horrez gain, alboan duten gipuzkeraren eraginez, bustidura eta hainbat hitz berezi ere erabiltzen dute.

Biriaturko mugatik **Zugarramurdikora** joan da Amonarriz. Bertan, **Helena Xuriok** esan dio **Xareta eskualdean** ez



dutela mugarik sentitzen (Ainhoa eta Sara -Lapurdi- eta Urdazubi eta Zugarramurdi - Nafarroa- herriak biltzen ditu). Dena dela, **telebistaren indarra** handia dela nabarmendu du. Hau da, Hegoaldean jendeak telebista espainiarraren eragina duela eta Iparraldean, berriz, frantsesarena. Eskualdeko herri guztietan **euskara bera hitz egiten duten arren, gero eta gehiago ari dira desberdintzen**, “Iparraldeko euskara batua” eta “Hegoaldeko euskara batua” erabiltzen baitituzte gaur egungo gazteek. Euskal Telebistaren eraginez ere, lehen erabiltzen ez zituzten hitzak barneratu baitituzte.

Zugarramurdi bizi da, halaber, **Carles Belda** katalana. Nabarmendu du Xareta eskualdearen pareko egoera dagoela **Cerdanyan**, ipar-hego legezko mugak bereizita baitago. Han ere hizkuntzak batzen omen ditu alde batekoak eta bestekoak.

Hain zuzen ere, **Amaia Castorene** baigorriarrak aipatu du, Baztanen (Nafarroa) eta Baigorriren (Lapurdi) artean ere ez dutela mugarik sentitzen. **Basaize** elkarteko kidea da, eta, euskara sustatzea du helburu elkarte horrek. Alabaina, haren erakusleho handiena



Nafarroaren Eguna da. 1979tik antolatzen dute, eta Pirinioetako bi aldeetako nafarren arteko harremanak sendotzea eta iraunaraztea du helburu nagusia. Izan ere, Castorenek esan duenez, “euskarak batzen gaitu, eta, dena da gure herria”.

Haizeari langak jartzea ezinezkoa den bezala, hizkuntza hesitu nahi izatea ere ezinezkoa da. **Euskarak ez baikaitu**

bereizten, batu baizik. Mugak norberak jartzen dizkio maiz bere buruari, eta horiek gainditzeko euskara ez dadila aitzakia izan, bitarteko baizik.

56. ESKOLAN ERABILERA SUSTATUZ

Saio honetan, eskolak euskararen erabilera indartzeko egiten ari diren lanaz aritu dira Kike Amonarriz eta haren gonbidatuak. **Milioi erdi pasatxo ikasle dugu Euskal Herrian**, Haur hezkuntzatik hasi, eta Lanbide Heziketaraino. Horietatik, % 51 **D ereduan**, euskara



hutsez % 15, **B ereduan**, eredu elebidunean: % 14 **A ereduan**, euskara irakasgai gisa soilik izanda; eta % 20 **erdara hutsez**. Datu horiek asko aldatzen dira eremu administratiboaren arabera, ez baita egoera bera EAEn, Nafarroan, eta Ipar Euskal Herrian.

Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko kideak dio euskararen erabilera oso desberdina dela ereduaren arabera, bai ikasgelan, bai jolaslekuan. Jakina, **D ereduan** da handiena. Berak nabarmendu du eredu bakoitzeko **erabilerak aztertzerakoan** kontuan hartu behar dela **ikasleen tipologia oso desberdina dela**. Amaitzeko, eskolak erabilera bultzatzeko zer hobetu badu ere, beste sektore batzuetan askoz gehiago dagoela hobetzeko, nabarmendu du.



Nola lor daiteke euskara eskolako hizkuntza izatetik bizitzako hizkuntza izatera heltzea? **Jasone Aldekoa** Hezkuntza Berritzatzeko aholkulariak azaldu du Ulibarri programarekin ari direla lanean arlo horretan. Helburua da nerabeak izatea euren hizkuntza hauaren jabe. Horretarako, **ezinbestekoa da familiaren atxikimendua**, eta **aisialdiko jarduera guneen lana**. **Ikasleei eurei ere galdetu zaie**, eta, haien hitzetan, beharrezkoa da euskaraz eskaintza handiagoa izatea entretenitzeko. Eskolatik kanpo ere euskarak erakargarri izan behar du.

Eskola asko ari dira saiatzen erabilera sustatzen. **Gasteizko Koldo Mitxelena institutuko** arduradunek diotenez, esate baterako, ikasleek **“euskaraz gero eta gehiago dakite, baina gero eta gutxiago erabiltzen dute”**. Oso gazte direnean asko hitz egiten dute, baina handitzen doazen heinean, galtzen doaz. Horregatik, erabilera sustatzeko lan handia egiten dute, eta eustea lortzen dute.

Hernaniko Inmakulada kristau eskolan % 10 dira jatorriz euskaldunak. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan **D eredua** dute ezarrita, baina DBHn **B eredua** dute, etorkin ugari matrikulatzen baitzaie maila horietan. Ikasgela barruan eta kanpoan euskaraz aritzen dira HHn eta LHN; DBHn, berriz, gaztelaniaz. Egitasmoak gauzatzen dituzte aisialdian erabilera

sustatzeko eta zeregin nagusitzat dute motibazioa sortzea, “horren atzetik etorriko delako erabiltzeko grina”.

Tolosako Laskorain ikastetxean % 96 aritzen dira euskaraz gelan eta jolastokian. 80ko hamarkadan egoera bestelakoa zen eta garapen horretan eragin izugarria izan du **“Euskaraz Bizi”** planak. Helburu nagusiak dira hitz egitea, errotzea eta adin desberdinetara iristea. Adinak kontuan hartuta, HHn eta LHn lortu nahi dute ikasleek eskolan eraikitzea harreman sare euskalduna. Horretarako, ezinbesteko laguntzailea da **Argitxo iratxoa**.

Kanboko Xalbador

ikastegira barnealdeko herrietatik datozen ikasleek, etxean euskaraz aritzeko aukera izaten dute; kostaldekoek, berriz, gutxiago. Lehen arraroa zen ikasleek komentarioren bat frantsesez egitea. Gaur egun, ordea ez. Beraz, berreskuratze lan horretan, eskolak funtzio publikoa du. Gainera, **ikasleei euskararen etorkizuna euren eskuetan dagoela ikustarazten diete**. Kontzientzia hori gurasoekin eta hurrekin lantzen dute.



Nafarroan, legea aldatzeak D eredua zabaltzeko aukera gehiago emango du datorren ikasturtetik aurrera. Hori pozgarria da Sortzenen arabera, baina arazo batzuk gainditzeko beharra dago oraindik ere. Gainera, **hiztun kopuruak gora egin du, baina erabilerak, ordea, ez**. ETB bertan ezin ikusi izanak eragin handia izan du. Sortzenek ikasleen erabilera sustatzeko egiten du lan, normalean familiak erdaldunak direlako, eta gaztelaniaz hitz egiteko joera dutelako.

Jasone Cenoz EHUKo katedradunak dio hizkuntza akademikoa lantzea beharrezkoa dela, eta eskolak lan hori egiten duela. Dena dela, nabarmendu du **euskara eguneroko bizitzako hizkuntza bihurtu behar dugula**. Bestalde, **eleoniztasunaren garrantzia** ere azpimarratu du.

Saioa amaitzeko, **Irungo Berritzeguneko Iñaki Biainengana** jo du Amonarrirek. Haren hitzetan, **eskola euskararen arnagunea da**, eta lan handia egin dezake, baina ezin du bakarrik egin. **Beste “hanka” batzuk behar ditu: familia, aisialdiko eskaintza eta hedabideak**. “Euskara erabiltzen jarraitzea nahi badugu, euskararen aldeko jarrera modu sistematikoan lantzen hasi beharko ginateke”, esan du. Gainera, familiei dagokienez, **garrantzitsua da umeei transmititzea euskara erabiltzeko ohitura**.

57. NERBIOITIK IBAIZABALERA

Urduñan hasi dugu ibilbidea. Bizkaiko hiri bakarra da, eta Arabak eta Burgosek inguratutako uhartea dela esan daiteke. Betidanik bizi izan dira elkarrekin gaztelania eta euskara bertan, nahiz eta gaztelaniaren eragina nabarmenagoa den. Aketza Merino historialariaren hitzetan, azken euskaldunak XIX. mendearen amaieran jaio ziren bertan. Azken hamarkadetan, aldiz, bilakaera oso ona izan da. Belaunaldi berriek euskaraz dakite, eskolan edo euskaltegian ikasi dutelako. Orain, umeei euskara etxean ikasten dute, eta, beraz, ez dira hain euskaldun berriak.



Amurrio izan da bigarren geltokia. Arabako 3. udalerri populatuena da. Industriak pisu berezia izan du bertan, eta 60ko eta 70eko hamarkadetan populazioa asko handitu zen. Gaur egun, biztanleriaren herena da euskalduna, baina erabileran dago erronka. Erronka horri helduta sortu zuten, hain justu ere, 2010ean, **Aiaraldea Komunikazio Leihoa**. Izar Mendiguren eta Gartzen Garaïoren hitzetan, hainbat alorreko jendea elkartu zen euskaraz komunikabide bat sortzeko. Informazioa ahal beste euskarritan zabaltzea denez euren filosofia, **webgunea** aineratu zuten lehenengo, gero irratia etorri zen, eta azkenik, egunkaria eta sare sozialak iritsi ziren. Bestalde, komunikabideak sortzeaz gain, elkargoa ere eratu dute, errealitate euskaldun berriak sortu behar zirela ikusi zutelako.

Amurrión bertan, **Izatefaltsua** musika taldea ezagutu du Kikek. 10 urte daramate lanean, eta betidanik euskaraz egin dituzte kantak. Eskualdean musika talde ugari dago, eta gehienak euskaraz aritzen direla nabarmendu dute, ingelesez eta gaztelaniaz aritzen direnak ere badauden arren. Gainera, entzuleei dagokienez, nabaritu dute euskaldun gehiago daudela, nahiz eta nahi baino gutxiago hitz egiten den euskaraz.



Herriko gurasoen artean ere ibili da galdezka Amonarriz, hurrengo belaunaldiak nolakoak izango diren jakin ahal izateko. Haurrak eskolan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskaraz aritzen dira, baina euren artean, ordea ez. Gurasoekin ez bada, haurrak gaztelaniaz aritzen dira.

Aiara, euskararen presentzia kalean sustatzeko, **Hogeitalau euskara elkarte**a sortu zuten duela 15 urte. Joseba Llanok azaldu duenez, euskara eskolatik kalera ateratzea dute helburu. Zailtasunak izan dituzte, eskualdeko herriak geografikoki oso sakabanatuta daudelako. Gainera, herri txikiak izanik, bizitza soziala ez da hirietakoaren parekoa. Edonola ere, kaleko erabilera sustatzeko lanean dihardute, eta ikuskizunak antolatzen dituzte bereziki umeei zuzenduta.

Nerbioiri jarraiki, **Laudiora** iritsi da saioa. Arabako 2. herri handiena da. Felix Mugurutza euskara teknikariak azaldu du 80ko hamarkadan % 5 zirela euskaldunak, eta, gaur egun, aldiz, % 30, eta beste % 30, ia euskaldunak. Azken 10 urteetan, baina, aldaketa erabilerari

lotuta etorri da, % 250ekoa izan baita igoera. Oso leku gutxitan izan da horrelako daturik. Gainera, azpimarratu du haurrak tartean daudenean erabiltzen dela gehien euskara, eta “hori da etorkizuna bermatuko digun gakoa”. Amaitzeko, **euskaldun berrien ahalegina** nabarmendu du.

Ondoren, **Arrigorriagan** izan da saioa, Bizkaian. Bertan, Berbalagun egitasmoaz aritu zaio Aritza Agirrezabal dinamizatzailea. Klean euskaraz egitea da helburu nagusia, hau da, euskara klasetatik plazara ateratzea. Nabarmendu du euskaldun berri askorentzat ezinbestekoa dela, eskoletan baino ez baitzuten egiten euskaraz. Are gehiago, naturaltasuna eman die proiektuak, lasaiago hitz egiten dute, eta, garrantzitsuen, beldurra eta lotsa galdu dute.

Arrigorriagatik, **Zaratamora**. Bertan, bi eremu desberdindu daude. Karlos Zarragak esan duenez, industriegunean gaztelaniaz aritzeko joera dago, langile asko kanpotik etorritakoak direlako; landa eremuan, aldiz, euskara mantendu da. Zaratamoko historia arakatu du, eta, XIX. mendean, euskaldun elebakarrak ziren guztiak. XX. mendearen hasieran ere euskara zen hizkuntza nagusia. Bere gazte garaian gaztelaniaz eskolan ikasi zuten, baina, handik kanpo, euskaraz aritzen ziren. Gaur egun, D ereduaren ikasten dute haur guztiek, eta asko jolas orduetan euskaraz aritzen badira ere, beste batzuek gaztelaniara jotzen dute.

Azken geltokia **Basauri** izan da. Udalerrri horretan euskara biziberritzeko lan handia egiten



du 1995ean sortutako **Euskarabila** elkarteak. Ludi Viguerak azaldu duenez, “Basaurik euskara elkarte bat merezi eta behar zuela” ikusita jende konprometitua, anitza eta euskalduna elkartu zen. Azken urteetan, oso sonatua izan da ‘Basaurin be bagara’ ekimena. Viguerak esan du euskalgintzak egin beharreko lanaz gain, administrazioen eta erakunde publikoen bultzada beharrezkoa dela eta, ezinbestekoa dela ilusioa. Helburua da euskaraz bizi ahal izatea eta, horretarako, “derrigorrezkoa da elkarrekin ekitea”.

58. EUSKARA OSASUNGINTZAN

Erradiografia atera dio saioak euskarak osasungintzan duen osasunari. Gai korapilatsua da, eta administratibotik urratsak eman dira, baina urrats ausartagoak eskatzen dituzte askok.

Hasteko, **Garbiñe Garaire**kin hitz egin du Amonarrizek, Mendaroko ospitaleko Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariarekin, “Euskaraz bai sano!” kanpainari buruz. Komunikazioa



euskaraz jaso nahi duten pazienteei hori gauzatzea da helburua, eta “E” ikurra duen pinaren bidez, zerbitzuak identifikatzen dituzte jendeak jakin dezan profesional elebidunak nor diren. Beste ardatz bat da pazienteak euskaraz erregistratzea, lehen hizkuntza euskara dutela zehaztuta. Aukera badago, baina administrazioak erantzun behar dio aukera hori egin duen pazienteari zerbitzu osoa euskaraz eskainiz.

Aitor Montes Aramaioko familia medikuaren arabera, zehazki eskatzen ez bada, gaztelaniaz erregistratzen dute mundu guztia eta hori aldatzeko ezinbestekoa da eskaera egitea. Montes aitzindaria da ekografia txostenak euskaraz egiten. Haren hitzetan, “zoritarrez, ezohikoa da, eta penagarria da hori albiste izatea”. Bere ustez, horrek ez du legea betetzen, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak urratzen ditu, eta medikuen kode deontologikoa ere ez du errespetatzen. Osakidetza II. Normalkuntza Plana onartu du, eta positibotzat jo du euskararen ibilbideak onartu dituela maila guztietan osasun arreta euskaraz bermatzeko tresna gisa. Hutsune gisa aipatu du, ordea, ahozkotasunera mugatzen dela, eta askotan ez dituela erabiltzaileak kontuan hartzen.

Jon Etxeberria Osakidetza zuzendari nagusiak aipatu du 30 urte behar izan direla erakunde horretan buru euskalduna izateko. “Euskara Osakidetzan badago, eta zabaldu beharra dago”, esan du. Izan ere, Osakidetzaren estrategia nagusietako bat da hizkuntza eskubideak bermatzea. 25.000-30.000 langile inguru daude, eta % 35 dira euskaldunak. Hori bai, batez besteko adina 51 urtekoa da; aldiz, 40 urtetik beherako gehienek dakite euskaraz. “Euskaraz bai sano!” kanpainaren helburua sentsibilizazioan datzala aipatu du. Orain ahozko harremanetan ari dira lanean, baina, horiek finkatu ondoren joango dira aurrera egiten idatzizkoan.



Baionako ospitalean, ‘Ospitalean euskaraz’ izeneko elkarteak dute, eta, haren ekimenez, erietxearen zuzendaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmena sinatu dute. Maialen Axeritegi azaldu duenez, hitzarmen horren helburua da euskararen presentzia ziurtatzea eta erabileran laguntzea: “Elebitasunaren alde asko dago egiteko”. ‘Nahi baduzu euskaraz’ esaldidun pinak jartzen dituzte profesional euskaldunek, eta mahaietan ere kartelak jarri dituzte. Beste ardatz bat da, jendea bultzatzea euskaraz ikastera. Erietxe berean, Goizeder Etxeberri esan du gaixoak gustura sentitzen direla euskaraz badakitela ikustean, horrek konfiantza ematen baitie.

Usurbilen, **Tomas Iturralde** botikariak erabateko garrantzia ematen dio pazienteak bere hizkuntzan hartzeari eta azpimarratu du farmazia industrian ez dela euskara agertzen, botikariek eurek egindako maisu formuletan baino ez. Medikuek preskribatutako formula pertsonalizatuak dira horiek. Eurek behintzat, pazienteak euskalduna bada, oharrak euskaraz idazten dituzte.



Leioako **Medikuntza fakultatea** izan da saioaren hurrengo geltokia. Bertan, bi mediku-gairi egin die elkarrizketa. **Asier Genuaren eta June Balenziagaren** iritziak, osasungintza euskalduntzeko, beharrezkoa da mediku euskaldunak hezteak. Gaur egun, herenak bakarrik ikasten du euskaraz. Gakoa matrikulazioan dagoela uste dute, ez baita

euskarazko matrikulazioa bultzatzeko lanik egiten. Gaur egun, Leioan, lehen 3 urteak euskaraz ikas daitezke. 4. mailatik aurrera, ordea, erietxeetara doaz, eta gauza aldatu egiten da.

Euskarazko adarra 1989-1990 ikasturtean sartu zuten medikuntza fakultatean. **Agurtzane Ortiz** fakultateko euskara dekanordearen hitzetan, orduan irakasgai batzuk hasi ziren ematen euskaraz. Asko kosta zaie, eta lorpen handia izan da lehen zikloa euskaraz ikasteko aukera ematea. 2. zikloan bestelakoa da egoera, eta oztopo nagusia baliabide pertsonaletan dago, irakasleetan alegia. Gainera, material akademiko eskasa dute euskaraz. Lan handiagoa egin beharra dago deialdiak egiteko eta laguntzak emateko material berriak prestatzeko edo itzulpenak egiteko, baita tesiak euskaraz egiteko ere.

Saioa amaitzeko, **Leitzako osasun etxera** jo du Kikek. Bertan, **Begoña Martinez** medikuak garrantzi handia ematen dio pazienteak euskaraz hartzeari, eta jendeak estimatu egiten du hori. Nafarroako iparraldean bermatuta egon behar du arreta euskaraz izateak. Dena dela, oposaketetan euskarari frantsesari, ingelesari eta alemanari baino puntuazio handiagoa ematen zaio. Horregatik, gerta daiteke postua lortzen duen medikuak euskaraz ez jakitea.

59. EZINBESTEKO EKINTZAILETZA

Euskararen aldeko ekintzaileak existitu izan ez balira, euskararen historia eta izatea bera beste modu batekoak izango lirateke. **Euskararen aldeko ekintzailetza** aipatuta, garai bateko irudiak datozkigu gogora: ikastolak, gau eskolak, euskararen aldeko jaialdiak. Bidea urratzen jarraitzen dugu, ordea, eta teknologia berriak nagusi diren garaiotan, euskarak ongi heldu dio bide horri.

Horren adibide da **CodeSyntax** enpresa. Luistxo Fernandezek azaldu duenez, duela 15 urte jaio zen, Internetarako baliabideak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzeko asmoarekin.



Webguneak, sakelako telefonoetara aplikazioak, softwareak, eta abar egiten dituzte, eta beste hizkuntza gutxitu batzuekin ere egin dute lan, esaterako galesarekin. Nabarmenezkoa da UMAP aplikazioa sortu zutela Twitterreko euskarazko txioak detektatzeko eta unean uneko euskarazko joerak emateko. Luistxok berak, bestalde, **Azpituluak euskaraz** proiektua du. 600

bat filmen azpigituluak ditu bilduta euskaraz. Urtzi Odriozola lankideak, bideojokoei buruzko Gamerauntsia ataria sortu du eta Asier Sarasuak **Ahotsak.eus**, Euskal Herriko ahozko ondarea jaso eta sareratzeko proiektua sustatu du.

Ekintzailea izateko, dirua ezinbestekoa da, eta ez da erraza izaten hori biltzea. Euskal Herrian zozketa-txartelen salmentak oso ondo funtzionatu izan du beti, eta, filosofia horri helduta, **Karena crowdfunding** sortu zuten Txemi Valdecantosek eta Unai Martinez Lizarduiak, finantzaketa kolektiborako euskarazko lehen ataria. **Auzolana, euskara eta parte-hartzea uztartzen dituzte**. 20 bat egitasmo dituzte esku artean, eta % 90ek lortu dute finantzazioa. Lehentasuna ematen diete euskarazko egitasmoei eta atzetik onura soziala dutenei.



Julen Arexolaleiba Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintza Transmisio tituluaren koordinatzaileak nabarmendu du **oso garrantzitsua izan dela ekintzailetza euskararen berreskurapenean**. Historian zehar izandako ekintzailetzak aipatu ditu eta instituzionalizazioak jendea hautu politikoaren arabera sailkatzea ekarri duela eta horrek ez digula mesederik egin. Bestalde, azpimarratu du boterean dagoena dagoela, ezin dugula euskaldunok delegatu talde politikoengan gurea den ardura. "Aurrera begira, euskara jakiteko ez da ekintzailetza beharko, baina euskaldun izan nahi izateko, beharrezkoa izango da".

Aziti Bihiako kideak ezagutu ditu, ondoren, Amonarrirek, **euskararen Indiana Jones**. Eneko Zuloagak eta Ekaitz Santaziliak azaldu dute EHUKo 10 bat doktoregaik osatu dutela, euskararen historiaren inguruan lanean jarduteko. Elkarte horretako kideek berreskuratu dute, esaterako **Materraren Doctrina Christina** liburuaren lehen edizioa (1617koa) Danimarkan.

Gasteizen jarraituta, **Oihaneder Euskararen Etxea** ezagutu du Kikek, **Ane Pedruzoren** eskutik. Gasteizen **euskararen erabileran eragitea** du helburu, baita euskal hiztunen komunitatea trinkotzea, eta espazio erreferentziala izatea sorkuntzarako ere. 'Alea' astekaria argitaratzen dute Oihanederren, eta eragile askoren artean ematen diote bizitza espazioari. Euskararen etxean, **Urko Aristirekin** egin du topo. **Tokikomeko**, euskarazko toki komunikabideen bateraguneko, lehendakaria da bera. "**Gertutasuna da gure indargunea**", adierazi du.



Komunikabideek sortu zuten elkarte solaskidetza bateratua eratzeko, esparru komunak kudeatzeko, eta garapenerako bidean etorkizunera begira jartzeko. 60 komunikabide kudeatzen dituzte.

Euskaingintzako erakunde garrantzitsuenetako bi dira **Euskal Herrian Euskaraz eta Topagunea**.

Nestor Estebanek esan du **EHEren lan ildo nagusiak** direla norbanakoen aktibazioa, espazioak euskalduntzea, eta euskaraz bizitzea ahalbidetuko digun hizkuntza politika propioa sortzea. Elena Lakak esan du ekintzailetasuna ez dagoela bere puntu gorenean, eta, beraz, **Topaguneak**, lehenik eta behin, indartu beharra daukala hori, eta sarea egin behar duela, plazak eta lekuak irabazteko. Leku askotan elkarlanean aritzen dira bi erakundeok, eta Kontseiluan ere elkarrekin daude, beste erakunde batzuekin batera.

Ximun Carrerek eta Pantxika Maitiak azaldu dute **Kanaldude** telebista euskaraz zer kontatu bazelako sortu zutela. 8 langile oso eta laguntzaileak eta aldizkako langileak ditu, eta **euren lurraldean gertatzen denaren lekuko zuzenak** dira. **Internet** dute euskarri nagusi mundu osoan euren edukiak zabaltzeko. Haien ustez, **euskararen aldeko borroka ez dago irabazia**, baina inguruan gero eta gehiagok sentitzen dute zerbait badela, eta ulertu eta parte hartu nahi duen jendea hurbiltzen zaie. Nabarmendu dute ezinbestekoa dela ekintzaile izaten jarraitzea, etorkizunean pentsatzea, eta gazteei lekukoa ematea.



60. ONDORIOZ...

2013ko azaroaren 13an, urduri hasi zuen ibilbidea **‘Tribuaren Berbak’** saioak. Helburua zen euskararen inguruko interesa piztea, hizkuntzarekin gozatuz, eta ikusleak harrituz, betiere modu atsegin eta alaietan. **Azken atalean, ondorioak** aterako dira eta egindako lana **errepasatu**.

Estitxu Garai EHUKo irakasleak aipatu du saioak **modu eraikitzailean begiratu diola euskararen egoerari**, aurrera egiteko moduan, freskotasunez eta dinamikotasunez. Haren hitzetan, programaren gakoetako bat izan da **konektatu duela jendearen esperientziekin**. “Euskararen aldeko kanpainetan ere horretan sakondu beharko litzateke; euskara erakutsi, baina jendearen bizitzan duen eraginean oinarrituta”.



“Euskararen aldeko kanpainetan ere horretan sakondu beharko litzateke; euskara erakutsi, baina jendearen bizitzan duen eraginean oinarrituta”.

Munduan 6-7 mila hizkuntza inguru daude, eta, milioi bat hiztunetatik gorakoak, 400 inguru dira. Lehen saioan kalera atera zen Amonarriz euskarak munduan duen tokiari buruz galdetzeraz. Azken saio honetan ere gauza bera egin du.

Iñaki Larrañaga kazetariak **galesa eta euskara** alderatu ditu: populazioan antzekoak gara, tamaina eta dentsitate aldetik ere bai. Dena dela, euskarak azken urteetan normalizazio prozesu bizkorragoa izan du. **Galestarrentzat eredu garela** esan daiteke, eta horren adibide da Korrikaren ahizpa galestarra martxan jarri zutela. Larrañaga **gasteiztarra** denez, bertako egoerari buruz ere aritu da. Azken hamarkadetan **euskararen presentzia asko handitu da**: “**Gasteiz** erdaldunaren mitoak badu egiatik zerbait, baina, gaztelania nagusi izanagatik ere, euskara bigarren hizkuntza indartsua da.

Euskarari lotutako mitoei buruz ari garela, nabarmentzekoa da **euskara ikastea zaila dela dioena**. **Mikel Morris** itzultzailea amerikarra da, eta 12 hizkuntza ikasi ditu, tartean, euskara. Haren hitzetan, linguistika munduan **euskara ikastea oso preziatua da**, hizkuntza ez-indoeuropar bakarria delako, eta jatorri misteriozkoa duelako. Nabarmendu du euskal fonetika oso erraza dela. Gainera, ez dago generorik, euskal aditza oso erregularra da, “matematikoki erraza da”. Beraz, haren hitzetan,, **oinarrizko euskara ikastea ez da zaila**.



Koldo Zuazo hizkuntzalariarekin elkartu da Kike. Bere ustez, 60ko hamarkadatik hona, **beste dinamika batean sartuta gaude**. Ahozko hizkuntza izatetik, idatziz ere erabiltzera pasatu gara. Hori bai, Ipar Euskal Herrian gero eta eragin handiagoa dauka

frantsesak, eta Hegoaldean, berriz, gaztelaniak. Beraz, **alde batetik, euskara batzen ari da, baina, bestetik, euskaldunen arteko muga gero eta handiagoa da.** Euskara batua maila jasorako sortu zen, eta eskoletako eredu ere jaso da, baina “behar da beste batu bat, lagunarterako...”. Bere ustez, euskara batua eta euskalkiak ez daude kontrajarrita, osagarriak dira.

Yuli Vargas kubatarrak euskara ikasteari ekin zion **Eskoriatzan. Kanpotik datozenei euskaraz ikastea gomendatuko lieke integratuta sentitzeko.** Bestalde, aipatu du euskaldunek kanpotarra integratzeko ahalegina egiten dutela, eta gaztelaniaz hasten direla hark uler ditzan. Hori euskararentzat kaltegarria dela uste du, eta **euskaldunei esan nahi die gaztelaniara ez pasatzeko, eta euskaraz egiten jarraitzeko.**

Iñaki Etxeleku kazetaria *‘Iparraldeko Hitza’*ren zuzendaria da. Euskara batuaz idazten dute, baina lexiko aldetik, bertako euskalkiei lekua egiten diete. Belaunaldi berriek euskara hibridoa egiten dute, eta euskalkiak lantzea interesgarria da, baina ez da sekula ekidin behar euskara batura jotzea. Mundu gero eta globalizatu honetan, Gazte belaunaldiak beldurrik gabe lanean ari direla azpimarratu du, baina transmisioan lan batzuk egiteko daudela deritzo.



Kike Amonarrirek gidatutako saioaren helburu nagusietako bat izan da **jendea motibatzea**, jendea ilusionatzea. Horri lotuta, Emun kooperatibako **Juanjo Ruizi aholkuak** eskatu dizkio **euskaldunek euskaraz gehiago egin dezaten.**

Saioa amaitzeko, Iñaki Martinez De Luna soziolinguistak adierazi du euskarak etorkizun argia eta biribila daukala. Dinamismo handia dago, baina hori ez dago egituratuta; atomizatuta dago, eta estrategia desberdinak daude. “Planteamendu estrategikoak berrikusi behar ditugu, garai bateko ideiek ez baitute balio gaur egun”. Orain arte, euskaltzaleen eta euskalgintza arloaren esku egon da euskararen ardura, eta hori ez da hizkuntza bat dagokion mailan jartzeko modua. “Hizkuntza gizartearena izango bada, gizarteak ere euskararen ardura hartu behar du”. Beraz, etorkizunerako ardatz gisa jarri ditu ilusioa eta dinamika kolektiboa.